moto g 14

Erabiltzailearen eskuliburua

Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

© 2023 Motorola Mobility LLC. Eskubide guztiak erreserbatuta.

MOTOROLA, M estilizatuaren logotipoa eta MOTO marken familia Motorola Trademark Holdings LLCren marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira. Lenovoren marka komertziala da LENOVO. Google LLCren marka komertzialak dira Google, Android, Google Play eta beste marka batzuk. MicroSDren logotipoa SD-3C LLCren marka erregistratua da.

Zenbait zerbitzu, funtzio eta aplikazio sarearen menpe daude, eta gerta daiteke eremu guztietan erabilgarri ez egotea; baliteke beste zehaztapen, baldintza eta tarifa batzuk aplikatzea ere. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Produktuaren funtzio, ezaugarri eta bestelako zehaztapenak eta erabiltzailearen laguntza-gida honetako informazioa informaziorik berrienean oinarrituta daude, eta zuzenak dira argitaratzeko unean. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko.

Laguntza-gida honen irudi batzuk adibide gisa bakarrik ematen dira.

Eduki honen azken bertsioa erabiltzeko, ireki **Ezarpenak–Laguntza** telefonoan.

Edukia

Telefonoaren konfigurazioa **1**

Zure hardwareari buruz 1
SIM eta SD txartela sartzea edo ateratzea 3
Telefono zaharraren datuak kopiatzea 5
Bi SIM txartel kudeatzea 7
Ahots-postontziaren konfigurazioa 7
Posta elektronikoa konfiguratzea 8
Zeure erara jartzea 9

Ikasi oinarrizko kontzeptuak **11**

Pantaila nagusiari buruz 11
Blokeo-pantailari buruz 12

Inoiz ez duzu Android erabili? **14**

Hau zure lehen smartphonea bada 14
Lehen iPhone bat bazenuen 16
Googleko kontuari buruz 16
Egoera-barrako ikonoak 17
Telefonoari buruz jakin beharrekoak 21

Telefonoan nabigatzea **23**

Keinuak ikastea 23
Aplikazio eta pantaila batetik bestera mugitzea 24
Ezarpen bizkorrak erabiltzea 25
Pantaila piztea eta itzaltzea 29
Telefonoa itzaltzea 29

Tresna erabilgarriak **30**

Linterna aktibatzea eta desaktibatzea 30
QR kode1ak eskaneatzeko 30
Ahotsa erabiltzea telefonoa kontrolatzeko 30
Leku batera iristeko jarraibideak eskuratzea 31
Erlojuaren eta eguraldiaren widgeta erabiltzea 32
Denbora telefonoarekin nola pasatzen duzun kudeatzea 34

Testuarekin lan egitea **37**

Pantailako teklatua erabiltzea 37
Testua ebaki, kopiatu eta itsastea 38
Ahots bidezko idazketa erabiltzea 39
Formularioak automatikoki betetzea 39

Pertsonalizatu telefonoa **40**

Pantaila nagusia **40**

Pantaila-atzealdea aldatzea 40
Gogokoen ontzia pertsonalizatzea 40

Widgetak, lasterbideak edo karpetak erabiltzea 41
Aplikazioak antolatzea eta ikonoaren itxura kontrolatzea 44
Pantaila nagusia bira dadin baimentzea edo ez baimentzea 46
Googleren feed-a ezabatzea 46
Pantaila nagusia abiarazleekin pertsonalizatzea 46

Pantaila-blokeoa 48

Pantaila-babeslea erabiltzea 48

Aplikazioen erabilera 49

Aplikazioak ireki, itxi eta aldatzea 49
Pantailan bi aplikazio ikustea 50
Jakinarazpenak 51
Aurrez instalatutako aplikazioei buruz 52

Aplikazioak deskargatu, ezabatu eta kudeatzea 57

Aplikazioak instalatzea edo eguneratzea 57
Aplikazioak kudeatzea edo ezabatzea 59
Aplikazio kaltegarrietatik babestea 62

Bilatu eta nabigatu 63

Interneten bilatzea 63
Zure telefonoan bilatzea 65
Interneten nabigatzea 65

SMSak eta MMSak 67

Testu-mezuei eta multimedia-mezuei buruz 67
Mezuak ikustea eta bidaltzea 67
Mezuak kudeatzea eta ezabatzea 70
Mezularitza-aplikazio lehenetsia aldatzea 72
Sarrerako deiei erantzuteko mezua aldatzea 72
SMSak edo MMSak ordenagailuan jasotzea 72

Posta elektronikoa 74

Mezu elektronikoak irakurri, bidali eta kudeatzea 74
Mezu elektronikoei erantsitako fitxategiak ikustea 75
Pantaila nagusian sarrera-ontzien aurrebista ikustea 76
Posta elektronikoko sinadura gehitzea 76
Posta elektronikoko jakinarazpenak kontrolatzea 77

Calendar aplikazioa 78

Egutegiari buruz 78
Egutegiko gertaerak bilatzea 78
Gertaerak sortu eta kudeatzea 79
Egutegiko gertaeren jakinarazpenak kontrolatzea 80

Reloj aplikazioa 81

Alarmak ezartzea 81
Tenporizadorea eta kronometroa erabiltzea 82

Data eta ordua ezartzea 83
Kontaktuak, deiak, ahots-postontzia 85
Kontaktuak 85
Kontaktuak eranstea 85
Kontatuak editatzea edo ezabatzea 86
Kontaktuak gogoko gisa markatzea 87
Kontaktuak antolatzea 87
Kontaktuen erabilera partekatua 88
Telefono-deiak 90
Deiei erantzutea 90
Deiak egitea 91
Dei bat martxan dagoenean 92
Bideo-deiak egitea 94
Telefono-konferentziak 94
Wifi bidez deitzea 95
Deiaren IDa erabiltzea 96
Zain dagoen deia aktibatu edo desaktibatzea 97
Deiak eta testu-mezuak blokeatzea 98
Deien historia ikusi eta ezabatzea 99
Blokeatutako telefono batetik larrialdi-deiak egitea 101
Ahots-mezuak 102
Ahots-postontzia erabiltzea 102
Argazkiak eta bideoak 104
Telefonoa biratuz kamera irekitzea 104
Argazkiak ateratzea 104
Pantaila-argazkiak egitea 106
Bideoak grabatzea 107
Pantaila grabatzea 108
Argazkiaren bereizmena doitzea 108
Kameraren beste doikuntza batzuk 110
Argazki eta bideoak ezabatzea 111
Argazkiak edo bideoak editatzea 112
Bilaketa, erabilera partekatua eta igoera 114
Argazki eta bideoak bilatzea 114
Argazkiak eta bideoak partekatzea 115
Haririk gabeko konexioak partekatzeari buruz 115
Argazkiak eta bideoak kargatzea 118
Musika 120
Irratia nola entzun 120
Musika erreproduzitzea 121
Musika-fitxategiak transferitzea 122

MIDI gailuak konektatzea 123
Ezarpenak 124
Sarea eta Internet 124
WiFi sareetara konektatzea 124
Wi-Fi Direct bidez konektatzea 125
Hegazkin modua erabiltzea 126
Datuen erabilera kontrolatzea 126
Interneteko konexioa partekatzea 127
Gailu konektatuak 131
Bluetootharekin konektatzea 131
Hurbil dauden Android telefonoekin fitxategiak eta estekak partekatzea 133
Telefono baten eta ordenagailu baten (USB) artean fitxategiak transferitzea 134
USB lehentasunak aldatzea 136
Pantaila edo multimedia-edukia telebistan proiektatzea 137
Telefonotik inprimatzea 139
Pantaila 140
Pantailaren distira doitzeko 140
Gai ilun bat erabiltzea 140
Gauez pantailaren koloreak doitzea 140
Kolore modua hautatzea 141
Kolorearen tonua aldatzea 142
Aplikazioak pantaila osoan erakustea 142
Pantailaren itxarote-denbora aldatzea 143
Biratze automatikoa geraraztea 143
Bideoa ikusteko kalitatea hobetzea 144
Testuaren eta irudiaren tamaina aldatzea: 144
Blokeo-pantailaren ezaugarriak aldatzea 145
Soinua eta bibrazioa 147
Bolumena doitzea 147
Dei-tonuak ezartzea 148
Bibrazio-doikuntzak aldatzea 150
Soinua hobetzea 152
Deiak eta jakinarazpenak isilaraztea 153
Telefonoaren ahots-erantzunak geldiaraztea 155
Piztean «Hola Moto» isilaraztea 156
Kargatze-soinuak desaktibatzea 156
Ukipen-soinuak aktibatzea edo desaktibatzea 156
Beste jakinarazpen-soinu batzuk entzutea 156
Jakinarazpenak 158
Jakinarazpenak aktibatzea edo desaktibatzea 158
Jakinarazpenen soinua kontrolatzea 160
Nola kontrolatu jakinarazpenak irakurtzen dituzten aplikazioak 162

Lehendik ikusitako jakinarazpenak kontsultatzea 163
Keinuak 164
Alboko barra konfiguratzea 164
Sistemaren nabigazioa aldatzea 164
Esku bakarreko modua erabiltzea 166
Pizteko botoiaren keinua pertsonalizatzea 167
Linterna aktibatzea eta desaktibatzea 167
Telefonoa biratuz kamera irekitzea 167
Bateria 169
Telefonoa kargatzea 169
Bateriaren iraupena luzatzea 169
Bateria aurrezteko modua erabiltzea 170
Bateriaren ehunekoa egoera-barran ikustea 171
Biltegiratzea 172
Biltegiratze-aukerei buruz 172
Telefonoaren biltegiratzea kudeatzea 172
SD txartela kudeatzea 173
Deskargatutako fitxategiak ikustea 174
Berriki ezabatutako fitxategiak ikustea 175
Musika hodeian kargatzea 175
Argazkiak eta bideoak kargatzea 176
Dokumentuak eskaneatzea eta kopiak sortzea 177
Kokapena 179
Kokapen-zerbitzuak erabiltzea 179
Irisgarritasuna 182
Ikusmen-laguntza 182
Entzumen-laguntza 185
Erabiltzeko laguntza 186
Irisgarritasuneko lasterbideak erabiltzea 187
Aplikazioak 189
Lehenetsitako aplikazioak konfiguratzea 189
Aplikazioen sarbide berezia konfiguratzea 189
Pasahitzak eta kontuak 190
Kontuak gehitzea edo kentzea 190
Aldatu Googleko kontuaren izena eta informazioa 191
Aplikazioak Googleko kontuarekin sinkronizatzea 191
Kontrolatzea zer informazio gordetzen duen Googlek 193
Segurtasuna eta pribatutasuna 194
Segurtasunari buruz 194
Aplikazio kaltegarrietatik babestea 195
Ziurtatu zure telefonoa aurki daitekeela 195

Telefonoa blokeatzea edo desblokeatzea **196**
Pantaila-blokeoa konfiguratzea 196
Pantaila-blokeoaren segurtasuna azkar areagotzea 197
Blokeo-pantailaren aukerak ezartzea: 197
Gailu fidagarriekin desblokeatzea 198
Aurpegiarekin desblokeatzea 199
Konfiantzazko tokietan desblokeatzea 201
Telefonoa desblokeatuta izatea soinean eramatean 202
Hatz-markaren bidezko segurtasun-erabilera 202
Segurtasuneko ezarpen gehiago **205**
Aplikazio-pantaila bat ainguratzea 205
SIM txartela blokeatzea 205
Pribatutasuna **207**
Aplikazioen baimenak konfiguratzea 207
Mikrofonorako eta kamerarako sarbidea kontrolatzea 207
Pasahitzak ezkutatzea 208
Segurtasuna eta larrialdia **209**
Larrialdietarako prestatzea 209
Sistema **212**
Hizkuntzak eta testua idaztea **212**
Teklatua pertsonalizatzea 212
Teklatua aldatzea 213
Hainbat hizkuntza erabiltzea 214
Telefonoaren babeskopia bat egitea 215
Erabiltzaileak eta gonbidatuak **217**
Telefonoaren erabilera partekatua 217
Erabiltzaileak gehitu, aldatu eta ezabatzea 218
Gonbidatuak gehitzea edo kentzea 219
Telefonoari buruz **220**
Apuntatu zure IMEI zenbakia 220
Lege-informazioa eta produktuari buruzkoa 220
Arazoak konpontzea **221**
Arazoak hardwarearekin **221**
Telefonoa mantso dabil edo ezegonkor dago 221
Telefonoa epel edo bero dago 221
Telefonoa ez da pizten 222
Telefonoa berrabiarazi edo itzali egiten da 222
Pantaila blokeatuta dago edo ez du erantzuten 223
Pantailako koloreak ez dira egokiak 224
SD txartelarekin lotutako arazoak 224

Arazoak deiekin eta SIMarekin **227**
Deiekin sortzen diren arazoak konpontzea 227
Ezin da deirik egin 227
Ezin zaie deiei erantzun edo telefonoak ez du jotzen 228
Deiak irauten duen bitartean sortzen diren arazoak 230
Bateria-arazoak **233**
Karga-arazoak 233
Bateria azkarregi agortzen da 233
Arazoak bluetootharekin, wifiarekin edo USBarekin **235**
Arazoak bluetootharekin 235
Arazoak wifiarekin 237
Ezin dira fitxategiak transferitu, ez eta telefonoa ordenagailura konektatu ere 238
Arazoak kontuarekin edo saio-hasierarekin **240**
Desblokeatzeko kodea ahaztu dut 240
Ezin dut Googlen saioa hasi 240
Kontua sinkronizatzeko arazoak 240
Arazoak aplikazioekin **242**
Arazoak aplikazioekin edo widgetekin 242
Arazoak kamerarekin 243
Arazoak mezuekin 245
Arazoak Gmail-ekin 246
Arazoak Play Store-rekin 246
Mantentze-lanetarako prozedurak **247**
Android softwarea eguneratzea 247
Konexioak, doikuntzak edo aplikazioak berrezartzea 248
Telefonoa berrabiaraztea 250
Laguntza gehiago jasotzea 251
Iruzkinak Motorolari bidaltzea 252

Zure hardwareari buruz

Hardwarearen diagrama



1. SIM eta SD txartelaren erretilua
2. Entzungailuen konexioa
3. Entzungailua
4. Aurreko kamera
5. Hurbiltasun-sentsorea
6. Bolumena igotzeko/jaisteko botoia
7. Pizteko botoia eta hatz-marken sentsorea

1. Makro kamera
2. Kamera nagusia
3. Flasha
4. Mikrofonoa
5. USB-C ataka, gailua kargatzeko eta fitxategiak transferitzeko, bai eta konexioa beste gailu batzuekin partekatzeko ere.
6. Bozgorailua

Telefonoa zaintzea

Pantaila garbitzeko:

- Nahiz eta horrela ez den telefonoa desinfektatzen, garbi edukitzeko onena da zapi leun eta lehor batekin igurztea. Ez erabili zapi urragarririk; ezta paper-zapirik edo gainazal latza duen beste materialik ere.
- Pantaila bustia badago, zapi garbi eta lehor batekin garbitu.

Telefonoa desinfektatzeko:

- Alkohol isopropilikoarekin (% 70) bustitako zapiak erabili pantaila kontuz garbitzeko.
- Telefonoa desinfektatzeko edo garbitzeko, itzali, eta kontuz ibili hezetasunik sar ez dadin irekiduretatik (kargatzeko ataka, entzungailuetarako konektorea, mikrofonoak eta bozgorailuak).
- Ez sartu gailua garbiketa-produkturen batean. Ez erabili lixiba edo gai urragarriren bat duen garbigarririk, eta saihestu zuzenean pantailara botatzea.

Nola saihestu urak eragindako kalteak

Telefonoa urarekiko eta zipriztinekiko erresistentea da, baina ez da guztiz iragazgaitza. Ez utzi telefonoa uretan edo bestelako likidoetan, eta ez utzi likido batean ere, nahita. Urarekiko erresistentzia eta zipriztinak ez dira iraunkorrak, eta babesaren errendimendua murriztu egin daiteke eguneroko erabilerarekin.

Urak eragindako kalteak ez daude bermearen barruan.

Telefonoa urez ez hondatzeko:

- Ez jarri ur presurizatuan, ur gazian edo ur gezaz bestelako likidoetan.
- Ondo lehortu telefonoa eta atakak zapi leun eta garbi batekin.
- Ez kargatu telefonoa bustita baldin badago.
- Ez utzi telefonoa erortzen, ez urratu eta ez zulatu, urarekiko erresistentziari eragin baitiezaiokete.

SIM eta SD txartela sartzea edo ateratzea

SD txartelari buruz

128 GB-rainoko microSD memoria-txartelak onartzen du telefonoak.

Nahikoa da 2, 4 edo 6 motako txartela.

Multimedia-fitxategiak (argazkiak, bideoak eta musika) gordetzeko erabiltzen du txartela telefonoak. Eramangarria denez, txartela eta haren edukia erraz alda ditzakezu gailu batetik bestera. Txartela sartu ondoren, ziurtatu multimedia-aplikazioetako doikuntzak eguneratu dituzula, hala nola kamera-, musika- eta podcast-aplikazioak, sortzen edo deskargatzen duzun edukia gorde dezaten.

Ezin duzu aplikaziorik gorde SD txartelean, biltegiratze eramangarria baita.

Txartelak sartzea edo aldatzea

1. SD txartela atera nahi baduzu, lehenbizi bota.
2. Sartu SIM txartelaren erretilua ateratzeko gailua, eta estutu pixka bat, ateratzeko.



3. Sartu edo atera txartelak, behar duzuna. SD txartela eta SIM txartela erabiltzea:



Bi SIM txartel erabiltzeko (bi txarteleko modeloentzat bakarrik):



Telefonoak SIM txartel dualik onartzen duen edo ez jakiteko, joan hona: **Ezarpenak** > **Telefonoari buruz** > **SIMaren egoera**. **SIM 1 txartelaren zirrikitua** eta **SIM 2 txartelaren zirrikitua** agertzen badira, mota horretako SIMak onartzen dituen seinale da.

4. Sartu berriz erretilua telefonoan.



Bi SIM sartu badituzu, jakinarazpen bat jasoko duzu, konfiguratzeko. Irristatu jakinarazpena beherantz, eta sakatu bi SIM txartelak kudeatzeko. Ikusten baduzu, arazoa konpondu behar duzu.

Oharra: SIM txartel bat aktibatu behar baduzu, jarri harremanetan zure operadorearekin.

Zer motatako arazoa duzu?

- SIM txartela edo deiak
- SD txartela

Telefono zaharraren datuak kopiatzea

iPhoneko datuak kopiatzea

Google Drive erabiliko du iPhone batetik eta iCloud kontu batetik fitxategiak zure telefono berrira eta Googleko zure kontura kopiatzeko:

- Argazkien babeskopia bat egingo da Fotos aplikazioan.
- Kontaktuen babeskopia bat egingo da Kontaktuak aplikazioan.
- Egutegiaren babeskopia bat egingo da Calendar aplikazioan.

1. Kargatu bi telefonoak, eta konektatu wifi-sare batera.
2. Mezurik eta deirik galdu ez dadin, zure iPhonean:
   a. Desaktibatu iMessage. (**Ezarpenak** > **Mezuak** desaktibatuta. Edo, SIM txartela kendu badiozu, baliogabetu telefonoaren erregistroa).
   b. Itzali FaceTime. (**Ezarpenak > FaceTime** > desaktibatuta).
3. Deskargatu Google Drive aplikazioa zure iPhonean.
4. iPhonean, ireki Drive, eta, ondoren:
   a. Hasi saioa Googleko kontuarekin Konturik ez baduzu, orain sor dezakezu.
   b. Sakatu > **Ezarpenak > Babeskopiak eta berrezartzeko aukera**k eta hasi babeskopiarekin.
5. Itxaron babeskopia osatu arte.
6. Bukatutakoan, hasi saioa telefonoan Googleko kontu berarekin (Ezarpenak > Pasahitzak eta kontuak > Gehitu kontu bat).

Android telefono baten datuak kopiatzea

Konfiguratzen ari zaren bitartean, zure aplikazioak, musika, kontaktuak mezuak eta abar kopia ditzakezu. Ikusi zer kopiatzen den eta zer ez.

Zure telefono zaharra zurekin ez badaukazu edo piztu ezin baduzu, kopiatu fitxategiak hodeiko babeskopia batetik zure Google kontuarekin.

Fitxategiak kopiatzeko:

1. Kargatu bi telefonoak eta piztu.
2. Telefono berrian:
   a. Lehen aldiz piztu baduzu, hautatu hizkuntza konfigurazio-pantailan.
   b. Konfigurazioa egitean fitxategiak kopiatzea ahaztu bazaizu, ireki **Ezarpenak** eta sakatu **Amaitu gailua konfig....**
3. Sakatu **Hasi**
4. Sartu SIM txartela sarera konektatzeko, edo sakatu **Saltatu**
5. Konektatu wifi-sare batera eta sakatu **Hurrengoa**.

6. Jarraitu pantailako jarraibideei telefono zaharra edo Googleko zure kontuari lotutako babeskopia hautatzeko, eta zein aplikazio eta datu kopiatu nahi dituzun hautatzeko.

> **Aholkua:** Ziurtatu **Google Drive-n Babeskopiak** aktibatuta daukazula.

Android telefonotik zer kopiatuko den

Konfigurazioa martxan dela beste Android gailu batetik datuak kopiatzen badituzu, hauxe kopiatuko duzu:

- Aplikazioak eta aplikazioen datuak
- Musika, argazkiak edo bideoak
- Googleko kontuak
- Telefonoan edo SIM txartelean gordetako kontaktuak
- SMSak eta MMSak
- Mezuetako multimendia-fitxategi erantsiak
- Telefonoaren ezarpen gehienak
- Pantaila-atzealdea
- Deien historia

Zure telefonotik Googleren kontura sartzean ikusiko dituzu horiek guztiak.

Zer ez den kopiatuko:

- Deskargak, hala nola PDF fitxategiak
- Play Storekoak ez diren aplikazioak
- Googlerenak ez diren kontuak
- Googleren zerbitzuetako kontaktuak eta egutegiak (hala noa WhatsAppekoak).
- Tonuak

SIM txarteletik kontaktuak inportatzea

Kontatuak SIM txartelean gordeta badaude, Googleko kontura inporta ditzakezu.

1. Sartu SIM txartela telefonoan.

Telefono zaharra Android bat bada eta wifi-sare batera konekta badaiteke, piztu.

2. Ireki Kontaktuak aplikazioa.
3. Sakatu > .
4. Bi SIM txartel badituzu, sakatu SIMa.
5. Hautatu kontaktuak non gorde nahi dituzun:
   - Googleren kontu bat baino gehiago badituzu, hautatu zein kontutan gorde nahi dituzun.
   - Telefonoan gordetzeko, sakatu **Gailua**.

6. Hautatu inportatu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu **Inportatu**.

Bi SIM txartel kudeatzea

BI SIM txartel erabiltzeari buruz

Bi SIM txartel sartzen direnean:

- agertuko da pantaila nagusiaren goialdean. Ikusten baduzu, arazoa konpondu behar duzu.
- Bi SIM txartelekin egin eta jaso ditzakezu deiak eta testu-mezuak.
- Telefonoaren jabeak bakarrik ezar ditzake SIM dualaren ezarpenak (ez gonbidatuek, ez beste erabiltzaileek).

SIMa konfiguratzea

Datu mugikorretarako, deietarako eta testu-mezuetarako zer SIM erabiltzen den zehaztu dezakezu:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Sareak eta Internet > Deiak eta SMSak**
2. Sakatu **Deiak** eta hautatu SIM bat edo **Galdetu beti**
3. Ukitu **SMS** eta hautatu SIM bat edo aukeratu **Galdetu beti**.

SIM txartelen izenak eta koloreak aldatzea

Bi SIM txartel baldin badituzu, biak azalduko zaizkizu Kontaktuak, Mezuak eta Telefonoa aplikazioetan, besteak beste. Errazago bereizteko, aldatu lehenetsitako izenak (SIM1/SIM2) izen esanguratsuagoetara. SIMaren ikonoaren kolorea ere alda dezakezu, errazago desberdintzeko.

1. Ireki **Ezarpenak > Sareak eta Internet > SIMak**
2. Sakatu aldatu nahi duzun SIM txartela.
3. Egin nahi dituzun doikuntzak.

Ahots-postontziaren konfigurazioa

Ahots-postontziaren pasahitza ezartzea

Ahots-postontzirako pasahitza edo PINa konfiguratzeko edo berreskuratzeko, jarri harremanetan zure operadorearekin.

Ahots-postontziaren agur-mezua konfiguratzea

Zure operadoreak hornitzen eta kudeatzen du zure ahots-postontzia. Agur-mezua konfiguratzeko:

1. Sakatu > .
2. Luze sakatu postontziaren zenbakia markatzeko.

3. Jarraitu operadorearen sistemaren jarraibideei. Ahots-postontzia konfiguratu ez baduzu, jarri harremanetan zure operadorearekin jarraibideak jasotzeko.

Ahots-postontziaren aukerak aldatzea

1. Sakatu > > Ezarpenak.

   (ikusi ezin baduzu, irristatu hatza pantailan behera).
2. Sakatu E**rantzungailua**
3. Bi SIM txartel baldin badauzkazu, sakatu aldatu nahi duzun kontuaren SIMa.
4. Nahi duzun aukera alda dezakezu:
   - Ahots-postontziaren zerbitzua zure hornitzailetik ahots-postontziaren beste aplikazio edo zerbitzu batera aldatzeko, sakatu **EZARPEN AURRERATUAK > Zerbitzua**
   - Ahots-postontzira sartzeko zenbakia aldatzeko, sakatu **EZARPEN AURRERATUAK > Konfigurazioa**
   - Baliteke zure operadoreak aukera gehiago izatea hemen, adibidez, ahots-postontziaren doikuntzak eta jakinarazpena. Jarri harremanetan sare-operadorearekin, informazio gehiago izateko.

Posta elektronikoa konfiguratzea

Posta elektroniko pertsonaleko kontuak konfiguratzea

Posta elektronikoko kontu bat baino gehiago gehi ditzakezu, mota hauetakoak:

- Gmail
- Beste hornitzaile batzuen (IMAP/POP) posta elektroniko pertsonala

Telefonoari Googleko kontu bat gehitu badiozu:

- Gmail aplikazioa lehen aldiz irekitzean, kontu horren posta elektronikoa ikusiko duzu. Konfiguratuta egongo da, erabiltzeko prest.
- Kontu erantsiak konfiguratzeko, ireki Gmail, sakatu zure profilaren ikonoa M eta, ondoren, hautatu **Gehitu kontu bat**.

Telefonoan Googleko konturik gehitu ez baduzu eta IMAP/POP hornitzaile baten kontu bat konfiguratu nahi baduzu (Gmail-ekoa ez dena):

1. Ireki **Gmail** aplikazioa.
2. Jarraitu pantailako jarraibideei posta elektronikoko helbidea, pasahitza eta kontuaren ezarpenak konfiguratzeko.

   Kontua konfiguratzean arazoren bat baduzu, irakurri Googlek Gmailerako emandako laguntza.

Laneko posta elektronikoa konfiguratzea

Laneko ordenagailuan Microsoft™ Office Outlook erabiltzen baduzu, telefonoak mezu elektronikoak, gertaerak eta kontaktuak sinkroniza ditzake, Microsoft Exchange zerbitzariarekin. Hasi aurretik, zure enpresako IT sailaren informazio hau beharko duzu:

- Helbide elektronikoa

- Posta elektronikoko zure pasahitza
- Domeinuaren izena
- Erabiltzaile-izena
- Zerbitzariaren izena.
- Segurtasun-mota/SSLren ezarpenak
- Bezero-ziurtagiriaren eskakizuna

Laneko posta elektronikoa konfiguratzeko:

1. Ireki **Gmail** aplikazioa.
2. Egin ekintza hauetako bat:
   - Gmail aplikazioa irekitzen duzun lehen aldia bada, sakatu **Gehitu beste helbide elektroniko bat**.
   - Gmail beste kontu batekin erabili baduzu, sakatu zure profilaren ikonoa eta, ondoren, hautatu **Gehitu kontu bat.**
3. Sakatu **Exchange y Office 365**.
4. Jarraitu pantailako jarraibideei posta elektronikoko helbidea, pasahitza eta zure enpresako IT saileko bestelako informazioa sartzeko.

Kontuaren bistaratzea aldatzea

Gmail aplikazioan, sakatu profilaren ikonoa eta hautatu kontu bat.

Pantaila nagusitik ukitu bakarrarekin sarrerako ontziak irekitzeko, gehitu lasterbide bat eginkizunei:

1. Luze sakatu .
2. Kontu bakoitzerako, eraman pantaila nagusiko toki huts batera.

Zeure erara jartzea

Gai honek jende gehienak telefono berriarekin egin nahi dituen gauzak zerrendatzen ditu, nola egin jakiteko jarraibideetarako estekekin.

Pertsonalizatu telefonoa

- Pantaila nagusiaren atzealdea konfiguratzea.
- Pantaila nagusiari aplikazioak eranstea
- Pantailaren konfigurazioa doitzea, hala nola letra-tamaina, biraketaren doikuntzak eta hondo iluna.
- Botoiak edo keinuak erabil ditzakezu aplikazio eta pantaila batetik bestera joateko. Aukeratu zer Sistema-nabigazio erabili nahi duzun.
- Deitzen ari zaren lagunentzako dei-tonuak edo argazkiak aukeratu ditzakezu.

- Programatu ez molestatzeko aukera inork etetea nahi ez duzunean telefonoa automatikoki isilarazteko.

Telefonoaren babesa

- Pantaila-blokeo bat konfiguratu.
- Konfiguratu segurtasuna hatz-markaren bidez pantaila azkar eta seguru desblokeatzeko, botoi bat sakatze hutsarekin.
- Konfiguratu Nire gailua bilatzea, eta gorde zure IMEI zenbakia, inoiz telefonoa galtzen baduzu ere.

Konfigurazioko beste eginkizun batzuk

- Bluetooth gailuekin eta wifi-sareekin konektatzea.
- Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen badituzu, konfiguratu teklatuan ager daitezen.

Pantaila nagusiari buruz

Pantaila nagusia telefonoa piztean eta desblokeatzean edo hatza pantailaren beheko aldetik gorantz mugitzean agertzen da.

Pantaila nagusiak ikusteko, irristatu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz.

Zer ikusten da pantailan?

1. Egoera-barra: telefonoaren bateriari eta sare-konexioei buruzko informazioa ematen duten ikonoak eta ordua erakusten ditu. Irristatu hatza beherantz, jakinarazpenak eta ezarpen bizkorrak ikusteko eta telefonoa itzaltzeko ⏻.
2. Widgetak: pantaila nagusiari widgetak gehitu diezazkiokezu, informaziora edo ohiko eginkizunetara azkarrago sartzeko.
3. Lasterbideak: lasterbideak gehitu ditzakezu maiz erabiltzen dituzun aplikazioak edo webguneak irekitzeko.
4. Gogokoen ontzia: pantaila nagusiko edozein orritatik gehien erabiltzen diren aplikazioetara ukitu batekin sartzeko. Hemen agertzen diren aplikazioak pertsonaliza ditzakezu.
5. Nabigazio-barra: erabili keinuak aplikazio eta pantaila batetik bestera mugitzeko. Keinuak erabil ditzakezu, eta barra ezkutatu. Barraren ordez, ■ nabigazio-ikonoak ◀ ● erabil ditzakezu.
6. Karpeta: gehitu karpetak aplikazioetarako lasterbideak antolatzeko.

Pantailak gehitzea/ezabatzea

Pantaila nagusi gehiago gehi ditzakezu eskuinaldean. Orrialde bat gehitzeko, irristatu aplikazioaren lasterbidea edo widgeta lehendik dagoen orrialde baten ertzera, eta kokatu orri berrian.

Pantaila nagusi bat kentzeko, irristatu aplikazio, lasterbide, widget eta karpeta guztiak pantailatik kanpo. Azken elementua kendu ondoren, pantaila nagusia ezabatu egingo da.

Mahaigaina pertsonalizatzea

Antolamendua:

- Luze sakatu mugitu nahi duzun elementua hura hautatu eta beste toki batera mugitzeko.
- Elementuak karpetatan multzokatzea
- Aplikazio guztien zerrenda non jarri nahi duzun aukeratu dezakezu: aplikazioen ontzian edo zuzenean pantaila nagusian.

Aukeratu nola nabigatu: nabigazio-barraren ordez, nabigazio-ikonoak erabil ditzakezu.

Itxura aldatzea:

- Pantaila-atzealdea, widgetak eta pantaila nagusiaren beste doikuntza batzuk pertsonalizatzeko aukerak ikusteko, luze sakatu hasierako pantailako eremu huts bat.
- Hasierako pantailan itxura guztiz berria edukitzeko, beste abiarazle bat instala dezakezu.

Blokeo-pantailari buruz

Blokeo-pantaila agertzen da pantaila blokeatzen duzunean, eta pantaila pizten edo aktibatzen duzunean.

Blokeo-pantailatik, hauek egin ditzakezu:

- Larrialdiko deiak egitea

- Jakinarazpenak ikusi eta haiei erantzutea. Sakatu bi aldiz, irekitzeko.
- Ezarpen bizkorrak irekitzea. Irristatu hatza beherantz pantailaren goialdetik lau ezarpen nagusiak eta jakinarazpenak ikusteko. Ondoren, irristatu hatza, gainerakoa ikusteko.
- Ahots-komando bat abiaraztea. Irristatu gorantz diagonalean, beheko edozein izkinatatik.
- Segurtasun-blokeora joatea. Desaktibatu aldi baterako jakinarazpenak eta desblokeoa hatz-marka bidez.

Blokeo-pantaila pertsonaliza dezakezu, mezu bat gehitzeko eta agertzen diren jakinarazpenak kontrolatzeko.

Hau zure lehen smartphonea bada

Ikasi oinarrizko kontzeptuak

Telefonoan nabigatzeko, funtsezko kontzeptu hauek beharko dituzu.

- Aplikazio eta pantaila batetik bestera mugitzeko, keinuak edo ikonoak .
- Elementuak hautatzeko pantailan sakatzeaz gain, beste keinu batzuk ere erabil ditzakezu, hala nola irristatzea zooma erabiltzeko.
- Pantaila nagusiaren goiko aldean dauden ikonoek informazio garrantzitsua ematen dute, begiratu batean. Hauei buruzkoa, besteak beste: telefonoaren bateria-maila eta sare-konexioa, edo erantzun ez duzun dei bat jaso duzun.
- Telefonoak eta aplikazioek jakinarazpenak bidaltzen dizkizute, besteak beste mezu berrien, egutegiko gertaeren eta hurrengo alarmen berri emanez. Jakinarazpenak leku batean baino gehiagotan aurkituko dituzu, eta hainbat ekintza egin ahal izango dituzu haiekin.

Eginkizun horiei buruzko informazio gehiago lortzeko, sakatu hauetako bat:

- Dei bati erantzutea
- Deitzea
- Alarma bat konfiguratzea
- Linterna piztea eta itzaltzea
- Musika erreproduzitzea

Aplikazioak eskuratzea

Aplikazio erabilgarri eta dibertigarri ugari ditu zure smartphoneak. Haren potentzial guztia desblokea dezakezu zure bizimoduarekin bat datozen aplikazioak instalatzen badituzu. Joan Play Storera, eta ikusi doako eta ordainpeko zein aplikazio dituzun eraginkorragoa eta antolatuagoa izaten laguntzeko, eta entretenitzeko, informatzeko eta nahi duzunarekin harremanetan egoteko.

Babestu telefonoa

Telefonoa soinean eramaten dugu beti, eta istripuak gerta daitezke, baita galtzea ere. Horregatik, komeni da segurtasun-ezarpenak konfiguratzea, telefonotik aldenduta ere lasai egon gaitezen.

Konfiguratu pantaila-blokeo bat Informazio seguru edukitzeko lehen defentsa-lerroa da. Zein dituzu nahiago: zenbakiak, formak edo hitzak? Konfiguratu PIN bat, eredu bat edo pasahitz bat telefonoa desblokeatzeko. Ikusi nola egiten den.

Pantaila blokeatzeak ez dizu galaraziko dei bati unean bertan erantzutea edo kamera erabiltzea.

Erakutsi jabearen informazioa. Blokeo-pantailan, mezu bat erakuts dezakezu, gailua galduz gero «itzultzeko» eskatuz. Mezuan, harremanetarako informazioa jar dezakezu, itzulketa errazteko. Ikusi nola egiten den.

Aktibatu galdutako telefonoaren funtzioak. Lasaiago egon nahi baduzu, kontsultatu Nire gailua bilatzea noizbait telefonoa urrutitik aurkitu, blokeatu edo ezabatu behar baduzu ere.

Pertsonalizatu telefonoa

Badakigu pantailaren atzealdea aldatzea pertsonalizatuko duzun lehen alderdia dela; baina gehiago ere egin dezakezu. Arakatu Ezarpenak, eta ezarri nahi dituzun dei-tonuak, letra-tamaina, datuak eta teklatua erabiltzeko hobespenak eta abar. Telefonoaren funtzio asko ezagutzeko modu bikaina da, eta, aldi berean, pertsonalizatu egingo duzu, zure beharretara egokitzeko.

Aplikazio askotan ☰ edo ⋮ sakatu dezakezu aplikazioen ezarpen espezifikoak ikusteko. Ez ahaztu hemen eskura dituzun aukerak ere aztertzea.

Datu mugikorrak kudeatzea

Ulertu nola erabiltzen diren datuak. Ez galdu begi-bistatik datuen erabilera, eta ikasi ahalik eta etekin handiena ateratzen. Ikusi zer aplikaziok erabiltzen duten datu-kopuru handiena, eta egokitu ezarpenak. Zure telefonoa datu gehiegi kontsumitzen ari bada, kontuen sinkronizazio automatikoa geldiaraz dezakezu.

Erabili wifi-sarea datu mugikorrak ez xahutzeko. Wifi-sare batera konektatzen zarenean, zure datuek sare-konexioa erabiliko dute operadorearen konexioaren ordez, eta, hala, datu mugikorrak aurreztuko dituzu behar dituzunerako. Ikasi wifi-sarera konektatzen.

Ezagutza erabilgarriak

Aurkitu telefonoari buruzko informazioa Zure telefono-zenbakia, gailuaren izena eta telefonoari buruzko beste datu batzuk ezagutzeko, joan hona: **Ezarpenak** > **Telefonoari buruz**.

Esan zure telefonoari zer egin behar duen. Erabili telefonoaren esku libreko modua ahots-komandoekin. Eskatu toki jakin batera eramateko, eta, gidatzen ari zarela, entzun emandako jarraibideei. Bidetik ateratzen bazara, telefonoak berriz bide egokia hartzen lagunduko dizu. Esaiozu alarmak konfiguratzeko, Interneten informazioa aurkitzeko edo deiak egiteko.

Ez galdu argazki bat egiteko aukera bakar bat ere. Ireki kamera automatikoki blokeo-pantailatik. Telefonoa bitan biratu besterik ez duzu egin behar. Zure argazki eta bideoen babeskopia automatikoa egin dezakezu Googleko zure kontuarekin edo Play Storen eskura dauden argazkien erabilera partekatuko beste aplikazio batzuekin.

Gorde edukia. Biltegiratze-aukera bat baino gehiago duzu. Gorde edukia eta aplikazioak telefonoan. Biltegiratzeko leku gehiago izateko, erabili SD txartela argazkietarako, bideoetarako eta musikarako Lotutako aplikazioetan gordetako elementuak ireki ditzakezu; adibidez, argazkiak, argazkiak eta bideoak ikusteko. Biltegiratze-eremu gehiago izateko, Internetera konektatutako edozein gailutatik (telefonoa, ordenagailua edo tableta) zure fitxategietara eta multimedia-edukietara sartzeko aukeraz gain, erabili hodeiko biltegiratzea. Zure Googleko kontuak Driveko doako hodeiko biltegiratzea barne hartzen du, bere aplikazio propioa du, eta ⋖ menuan ere eskuragarri dago, beste aplikazio batzuen bidez.

Wifi-gunea Telefonoa wifi-gune gisa erabil dezakezu Interneteko konexioa Interneterako sarbidea behar duten beste gailu batzuekin partekatzeko (adibidez, ordenagailu eramangarri batekin edo tableta batekin).

Berrabiarazi telefonoa. Telefonoak erantzuten ez badu, blokeatuta geratzen bada, pantaila zuria edo beltza agertzen bada edo pizteko botoiari erantzuten ez badio, berrabiarazi egin daiteke. Luze sakatu pizteko botoia, 7-10 segundoz. Telefonoa berrabiarazi egingo da.

Funtzio, zerbitzu eta aplikazio batzuk sarearen edo operadorearen mende daude, eta baliteke eremu guztietan erabilgarri ez egotea.

Lehen iPhone bat bazenuen

Ongi etorri Androidera. Hona hemen zure iPhone zaharraren eta telefono berriaren arteko desberdintasun batzuk.

Zure laguntzailea: Siriri erretiroa eman diozunez, informa zaitez eta egin eginkizunak Googleren laguntzailearekin. Nahikoa da «OK, Google» konfiguratzea; prest izango duzu informazioa edo eguneroko eginkizunetarako laguntza eskatzeko.

Aplikazioak:

- Agur, Appleren App Store; kaixo, Google Play Store. Play Store da orain aplikazio-denda lehenetsia. iPhonearen eta Androiden aplikazioak ez dira bateragarriak. Hala ere, garatzaile askok iPhonerako eta Androiderako aplikazioen bertsioak sortzen dituzte. Aplikazioak zure datuak linean biltegiratzen baditu, ahalegin handirik egin gabe alda ditzakezu. Androiden bertsioa deskargatu eta saioa hasi besterik ez duzu egin behar.
- Jarraitu podcastak entzuten. Podcasts aplikazioarekin entzun ditzakezu. Aplikazio ugari aurkituko dituzu Play Storen. Bilatu «podcast» Play Storen, eta deskargatu nahi duzuna.
- Instalatu aplikazioak urrunetik. Zure ordenagailutik, sartu play.google.com helbidean, bilatu aplikazioak pantaila handiago batean eta, ondoren, instalatu zure telefonoan.

Pantaila nagusia: zure telefono zaharrak pantaila nagusian bistaratzen zituen aplikazio guztiak. Zure telefono berrian, aplikazio garrantzitsuenetarako zuzeneko sarbideak jar ditzakezu hasierako pantailan, sarbide erraza izateko. Horrela, widgetetarako toki gehiago geratzen da pantaila nagusian, eta horrek itxura biziagoa ematen dio pantailari.

Pribatutasun-adierazlea: Androiden, adierazle berde batek esan nahi du aplikazio bat kamera edo mikrofonoa erabiltzen ari dela. iPhone-an, adierazle laranja batek esan nahi du mikrofonoa erabiltzen ari dela.

Hodeian: zure Googleko kontua da Googlerekin hodeian biltegiratzeko gakoa. Zure kontaktuak telefonora migratu badituzu, edozein gailu edo ordenagailutatik ikusi ahal izango dituzu; aski izango duzu Gmail-en saioa hastea. Zure Googleko kontuan besteak beste Calendar eta Drive aplikazioak daude; beste pertsona batzuekin eroso lan egiteko aukera ematen dute. Googleko kontuan saioa hastean edozein gailutatik jokatzea eta bideoak, musika eta argazkiak atzitzea ahalbidetzen duten aplikazioak ere baditu. Erabili YT Music iTunes-eko liburutegia igotzeko.

Fitxategien erabilera partekatua: iPhonean AirDrop erabili baduzu, orain Nearby daukazu, fitxategiak edo estekak lagunekin erraz partekatzeko.

Googleko kontuari buruz

Zure kontuaren abantailak

Telefonoa konfiguratzean, Googleko kontu bat gehitu behar duzu. Horrelako kontu bat duzun lehen aldia bada, jakin ezazu telefonoaren pasahitza baino askoz gehiago dela.

Googleko kontu batek aukera ematen dizu zure informazio pertsonala antolatzeko eta edozein ordenagailutatik edo gailu mugikorretik ikusteko:

- **Sinkronizatu dena.** Ez galdu inoiz kontaktuak. Lotu Googleko kontuarekin, zure telefonoan sortu badituzu, eta ikusi Gmailetik edozein ordenagailutan, edo Googleko zure kontuan sartuta, edozein telefonotan. Sortu mezu elektronikoak edo egutegiko gertaerak telefonoan, eta ikusi ordenagailuan. Sartu nabigatzailearen gogokoetara edozein gailutatik.
- **Gorde hodeian.** Kargatu zure argazkiak, bideoak eta musika hodeian; izan guztia eskura telefonoan lekurik hartu gabe.

- **Gorde zure informazioa.** Kontuaren pasahitzak babesten du, eta edozein lekutatik sar zaitezke hara.

Kontuaren mantentze-lanak

Pasahitza gogoratzeaz gain, ez da aparteko mantentze-lanik egin behar Googleko kontu batean. Horri esker, informazio seguru eta sinkronizatuak eskaintzen dizkizun abantailak balia ditzakezu. Hauek egin dezakezu, ordea:

- Telefonoak informazioa zenbatean behin sinkronizatzen duen kontrolatu.
- Googlek zuri buruz biltzen duen informazio pertsonala berrikusi eta administratu; hala nola bilaketa- eta nabigazio-historiak.

Googleko aplikazioei buruzko informazio gehigarria

Googleren aplikazio asko daude kargatuta telefonoan, hala nola Gmail, Chrome, Fotos eta Maps. Googleren beste aplikazio batzuei buruzko informazio gehiago lortzeko eta deskargatzeko, irakurri Googleren laguntza-informazioa.

Errorea Googleko zure kontuarekin saioa hastean

Zure kontuarekin saioa hasteko arazoak badituzu, irakurri Googleren laguntza-informazioa.

Egoera-barrako ikonoak

Egoera-ikonoei buruz

Pantaila nagusiaren goiko aldeko egoera-barrak telefonoa gainbegiratzen laguntzen duten ikonoak ditu.

- **Ezkerreko ikonoek** aplikazioei buruzko informazioa ematen dizute; adibidez, mezu berriei edo deskargei buruzkoa. Ez badakizu ikono batek zer esan nahi duen, irristatu barra behera, informazio gehiago eskuratzeko.
- **Eskuineko ikonoek** telefonoaren bateria-mailaren eta sare-konexioen berri ematen dute.

Puntu bat agertzen bada, ikono gehiago daudela esan nahi du. Irristatu pantailaren goiko aldetik behera, ikono guztiak bistaratzeko.

Zer esanahi duten egoera-ikonoek

Aplikazioen ikono hauek eta egoera-ikono hauek ditu zure telefonoak.

Ikonoa	Esanahia
	DEIAK
	Dei aktiboa.

Dei galdua.

Bozgorailua aktibatuta

Mikrofonoa isilik.

SAREA

Sare mugikorrera konektatuta (seinale osoa). Sare-konexioaren abiadura ere erakusten da. Abiadura hauek har daitezke, txikienetik handienera: 3G, H, H+, 4G, 5G. Abiadura erabilgarriak operadorearen eta kokapenaren araberakoak dira.

Beste sare-mugikor batera konektatuta (ibiltaritza).

Datu-aurrezpena aktibatuta dago; beraz, aplikazioek konexio automatikoak erabiltzea saihesten du.

Wifi-sarea irismenaren barruan.

Wifi-sarera konektatuta

SIM txartela falta da.

Kokapen-zerbitzuak erabiltzen ari dira.

Hegazkin modua aktibatuta.

KONEKTAGARRITASUNA

Gailu fidagarria konektatuta

Telefonoa wifi-gune bat da. Gailuak datu-konexioa partekatzeko konekta daitezke.

Haririk gabeko pantaila edo egokigailua konektatuta.

USB-kable baten bidez konektatuta.

USB bidez partekatu gaituta.

SINKRONIZAZIOA ETA EGUNERATZEAK

Play Storen deskargatzeko prest daude aplikazioen eguneratzeak.

Posta elektronikoa eta egutegia sinkronizatzen ari dira.

Kargatuta.

Erabat deskargatu da.

Googleren babeskopia martxan.

Googleren babeskopia osatuta.

SOINUA

Bibrazioa

EZ MOLESTATU

Ez molestatzeko modua aktibatuta dago.

BATERIA

Bateria erabat kargatuta

Bateria kargatzen

Bateria, baxu

Telefonoa bateria aurrezteko moduan dago.

ALARMA ETA EGUTEGIA

Alarmaren ezarpenak

Egutegiko hurrengo gertakariak

POSTA ELEKTRONIKOA ETA MEZUAK

Gmaileko mezu berria

Testu-mezu berria

Ahots-mezu berria

Alerta garrantzitsua.

BESTE IKONO BATZUK

 Pribatutasun-adierazlea. Aplikazio bat mikrofonoa edo kamera erabiltzen ari da.

Pantaila-grabazioa martxan.

Arreta ez galtzeko modua aktibatuta.

Baliteke deskargatzen dituzun aplikazioek beste ikono batzuk erakustea, haien egoeraren berri emateko.

Funtzio, zerbitzu eta aplikazio batzuk sarearen edo operadorearen mende daude, eta baliteke eremu guztietan erabilgarri ez egotea.

Telefonoari buruz jakin beharrekoak

Lasterbidea
Pantaila nagusian gehitu dezakezun ikonoa, aplikazio bat bizkor irekitzeko aukera ematen duena. Sortu lasterbideak maiz erabiltzen dituzun aplikazioetarako.

Softwarea eguneratzea
Telefonoaren sistema eragilea eguneratzea; normalean, funtzio berriak ezartzen ditu eta arazoak konpontzen ditu. Eguneratzea haririk gabe deskargatzen da telefonoan, kostu gehigarririk gabe.

Aplikazioa
Funtzio gehiago edukitzeko deskarga dezakezun softwarea: jokoak, posta elektronikoko aplikazioak, barra-kodeen eskanerrak eta askoz gehiago. Aplikazio batzuk lehenespenez daude telefonoan, eta gehiago deskarga ditzakezu telefonoaren aplikazio-dendan.

Egoera-barra
Barra mehe bat da, pantaila nagusiaren goiko aldean dagoena; ordua eta telefonoaren bateriari eta sare-konexioei buruzko informazioa ematen duten ikonoak erakusten ditu. Aplikazioek ikonoak erakusten dituzte egoera-barran, gertaeren —hala nola mezu berrien— berri emateko.

Bluetooth™
Irismen laburreko haririk gabeko teknologia, gailu bat hurbileko beste gailu eta osagarri batzuetara (entzungailuak, bozgorailuak, inprimagailuak, etab.) konektatzeko aukera ematen duena, bluetooth bidez. Erabili bluetooth funtzioa deiak esku libreko sistemarekin egiteko entzungailuen bidez edo autoan, musika entzuteko haririk gabeko bozgorailuetan, sagua edo haririk gabeko teklatua erabiltzeko edo dokumentu bat beste gela batean inprimatzeko. Bluetootha konfiguratzea.

Datuak
Telefonoan jasotzen duzun edo telefonotik bidaltzen duzun informazioa; hauek izan ezik: deiak, SMSak edo MMSak. Interneten sartzeko, posta elektronikoa kontsultatzeko, jokoetan aritzeko edo aplikazioak erabiltzeko erabiltzen dira datuak, besteak beste. Baliteke bigarren mailako atazek ere, hala nola sinkronizazioak edo kokapen-zerbitzuek, datuak erabiltzea.

GPSa
Lokalizazio-sistema globalaren ingelesezko siglak. Satelite globalean oinarritutako sistema bat da, eta kokaleku zehatzak zehazteko diseinatuta dago.GPSarekin, telefonoa nabigazio-sistema bihurtzen da gidatzen ari zarenean; eta gidari, inguruko jatetxe, zinema edo kafetegi baten bila zabiltzanean.

Hegazkin modua
Modu honen bidez, gailu bateko funtzio batzuk erabil ditzakezu (adibidez, musika edo jokoak), eta haririk gabeko irrati-funtzioak desaktibatuta eduki, debekatuta baitaude hegazkinetan.

NFC
Eremu hurbileko komunikazioa. Bi gailu bateragarriren artean informazioa transferitzen duen haririk gabeko teknologia da. Zure telefonoa ez da bateragarria NFCrekin.

Jakinarazpenak
Telefonoaren edo telefonoaren aplikazio baten alerta. Telefonoan, ikonoak agertzen dira egoera-barran mezu berriak, egutegiko gertaerak eta alarmak jakinarazteko. Ikonoek uneko egoera ere adieraz dezakete, hala nola wifi-sare baterako konexioa.

Play Store
Googleren denda bat, zeinean aplikazioak, liburuak, filmak eta musika deskarga baititzakezu. Doako liburu- edo aplikazio-bilduma bateko artikuluen artean aukera dezakezu, edo are aukera handiagoa eduki, artikuluak erosiz.

Sare mugikorra
Irrati-uhinak igortzen dituen dorre-sarea. Telefonoarekin egindako deiek telefonoaren eta sarea osatzen duten dorreen artean bidaltzen diren irrati-uhinak erabiltzen dituzte. Sare hori erabiltzen da datuak bidaltzeko eta Interneten sartzeko ere. Operadoreek hainbat teknologia erabiltzen dituzte irrati-uhinen transmisio horiek kudeatzeko (GSM, CDMA, Edge, 3G, 4G, LTE, HSPA eta iDEN).

Sinkronizazioa
Informazio bera hainbat gailu eta webgunerekin partekatzeko prozesua. Kontaktuak, egutegiak eta posta elektronikoa hodeiko zerbitzu bidez sinkronizatzen dira; beraz, aukera duzu informazioa gailu batean sartzeko eta beste gailu baten bidez eskuratzeko.

SD txartela
SD txartela (Secure Digital). Edukiera handiko memoria-txartel txiki aldagarria, tamaina txikiko gailu eramangarrietan erabiltzen dena, hala nola telefono mugikorretan, tabletetan eta kamera digitaletan.

SIM txartela
SIM txartela (Subscriber Identity Module). Operadoreak bere telefonoa sare mugikorrean autentifikatzeko erabiltzen duen informazioa modu seguruan gordetzen duen txartela.

Datuen erabilera
Telefonoak denbora-tarte jakin batean sare baten bidez kargatzen edo deskargatzen duen datu-kopurua. Telefonoak operadorearen sare mugikorra edo wifi-konexio bat erabiltzen du. Operadorearekin kontratatutako datu-planaren arabera, gerta liteke erabiltzaileari kargu gehigarriak kobratzea hil bakoitzerako zehaztutako datu-kopurua gainditzen duenean.

Widgeta
Pantaila nagusiari gehitu dakiokeen elementu bat, ohiko informaziora edo zereginetara bizkor sartzeko aukera ematen duena. Adibidez, widgeten bidez, eguraldiaren eguneratzeen eta egutegiko gertaeren berri jaso dezakezu. Asko daude aurrez instalatuta telefonoan. Deskargatzen dituzun aplikazioek ere widgetak izan ditzakete.

Wifia
Irismen laburreko haririk gabeko teknologia, haririk gabeko datu-gailuei abiadura handiko Interneteko konexioa ematen diena. Toki askotan eskaintzen dituzte wifi-konexioak, hala noa aireportuetan, hoteletan eta jatetxeetan. Sare mugikorraren ordez wifi-konexio bat erabiltzen baduzu, datu mugikorren erabilera murriztu dezakezu. Baliteke wifi-konexio publiko batzuk seguruak ez izatea. Konfiantzazko konexioetara bakarrik konektatu behar zenuke; gainera, komeni da gailuetan Interneteko segurtasun-sistemaren bat erabiltzea. Wifia konfiguratzea.

Wifi-gunea
Wifi-konexio baten bidez datu mugikorren konexioa gailu ugarirekin partekatzeko aukera ematen duen gailua edo aplikazioa. Gailu bat baino gehiago konekta ditzakezu zure wifi-gunera; besteak beste, eramangarriak, netbook-ak, MP3ren erreproduzitzaileak, kamerak, smartphoneak eta joko-sistema eramangarriak. Aldi berean konekta daitezkeen gailuen kopurua operadorearen eta konexio-abiaduraren araberakoa da.

Funtzio, zerbitzu eta aplikazio batzuk sarearen edo operadorearen mende daude, eta baliteke eremu guztietan erabilgarri ez egotea.

Keinuak ikastea

Ukipen-pantailan keinuak erabil ditzakezu aplikazio batetik bestera mugitzeko eta elementuak hautatu edo manipulatzeko.

Keinu batzuk aktiba edo desaktiba ditzakezu eguneroko eginkizunak egiteko, hala nola pantaila-argazkiak edo linterna aktibatzea.

Ukitzea, arrastatzea, irristatzea, zooma

Keinua	Deskribapena
Ukitzea	Hatz batez sakatu eta altxatzea. Emaitza: zerbait irekitzea (aplikazio bat edo mezu elektroniko bat) edo zerbait aukeratzea (lauki bat edo ikono bat).
Luze sakatzea	Sakatu eta pixka bat itxarotea atzamarra jaso aurretik. Emaitza: zerbait hautatzea (aplikazioaren ikonoa, orrialde bateko testua) eta zein ekintza egin daitezkeen ikustea. Proba: luze sakatu orrialde honetako testua, kopiatzeko aukerak nola funtzionatzen duen ikusteko.
Arrastatzea	Elementu bat sakatuta edukitzea, eta, ondoren, hatza jaso gabe, helmugako posizioraino irristatzea. Emaitza: elementuak pantailan mugitzea; adibidez, botoia ra aldatzea. Probatu ezazu hau: arrastatu aplikazio baten lasterbidea pantaila nagusian alde batetik bestera.
Irristatzea	Pantailan hatz bat azkar mugitzea, ukitu ondoren gelditu gabe (ez arrastatzeko). Emaitza: pantaila nagusi batetik bestera edo aplikazio bateko fitxa batetik bestera joatea. Edo zerrenda batean bizkor mugitzea. Irristatu hatza hainbat norabidetan (gorantz, beherantz, ezkerrerantz edo eskuinerantz), emaitza desberdinak lortzeko. Informazio gehiago. Probatu ezazu: ireki Telefonoa aplikazioa, eta irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera fitxa batetik bestera joateko. Bestela, irristatu hatza gorantz pantaila honen beheko aldetik, pantaila nagusira itzultzeko.
Hurbildu bi hatzak zooma desaktibatzeko.	Ipini bi hatz pantaila nagusian, eta bereizi itzazu. Emaitza: irudia handitu egingo da, argazkiak eta mapak handiago ikusteko. Zabaldu daitezkeen jakinarazpenak irekitzeko ere balio du.

Proba: ireki argazki bat, eta bereizi hatzak zooma erabiltzeko eta haren zati bat handitzeko.

Aholkua: Ikusmen-arazoak badituzu, handitzeko keinuak gaitu ditzakezu. .

Atximur egitea zooma erabiltzeko:	Jarri bi hatz pantailaren gainean, elkarrengandik oso urrun, eta, ondoren, elkartu eta arrastatu. Emaitza: irudia txikitu egingo da, argazkiak eta mapak txikiago ikusteko. Zabaldu daitezkeen jakinarazpenak ixteko ere balio du.

Pizteko botoiarekin keinuak erabiltzea

Sakatzea
Telefonoa blokeatzea edo desblokeatzea. PINa, eredua edo pasahitza sartu beharko duzu desblokeatzeko. Telefonoa itzaltzeko, sakatu pizteko botoiak eta igo bolumena batera.

Bi aldiz sakatzea
Ireki kamera. Funtzionatzen ez badu, egiaztatu ezarpena aktibatuta dagoela.

Luze sakatzea
Ahots-komando bat abiaraztea Googleren morroiarekin.

Ukitzea
Hatz-marka digitalarekin desblokeatu dezakezu, hatz-marka bidezko segurtasuna ezarri baduzu.

Aplikazio eta pantaila batetik bestera mugitzea

Aukeratu nola nabigatu zure telefonoan

Pantailaren behealdean nabigazio-barra ikusten baduzu edo ikonorik ikusten ez baduzu, hau erabiltzen ari zara: **Keinu bidezko nabigazioa.**

Pantailaren behealdean ◀ ● ■ ikusten baduzu, hiru botoiko nabigazioa erabiltzen ari zara.

Aplikazio eta pantaila batetik bestera mugitzeko modua alda dezakezu ukipen-pantailarekin: Ezarpenak > Keinuak > Sisteman nabigatzeko modua.

Keinuen bidezko nabigazioa erabiltzea

Erabili keinu hauek pantaila eta aplikazio batetik bestera joateko, keinu bidezko nabigazioa hautatzen baduzu eta ◀ ● ■ ikonoak pantaila nagusiaren beheko aldean ikusten ez badituzu.

Ekintzak:	Keinuak
Aplikazio batetik bestera aldatzea	Pantailaren behealdean, irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera.
Azkena erabilitako aplikazio guztiak ikustea	Irristatu hatza gorantz pantaila nagusiaren beheko aldetik, luze sakatu eta gero askatu.
Aplikazio guztiak ikustea	Lerratu hatza gorantz, **pantaila nagusia**ren beheko aldetik hasita.
Itzuli	Irristatu hatza pantailaren ezkerreko edo eskuineko aldetik erdirantz.
Hasierara joatea	Lerratu hatza gorantz, edozein pantailatako beheko aldetik hasita.
Googleren morroia irekitzea	Irristatu hatza diagonalean, pantailaren beheko ertz batetik hasita.

Aholkua: Keinu gehiago erabiltzeko, aktibatu esku bateko modua.

Hiru botoiko nabigazioa erabiltzea

Erabili ikono hauek pantaila eta aplikazio batetik bestera mugitzeko, hiru botoiko nabigazioa aukeratzen baduzu.

- orrialde bat atzera egiteko.
- edozein aplikaziotatik pantaila nagusira itzultzeko.
- azkena erabilitako aplikazioetan, batetik bestera joateko.

Aholkua: Ikusizko laguntza lortu nahi baduzu, gehi dezakezu Irisgarritasun-menua irekitzeko edo pantailan agertzen dena handiago ikusteko.

Ezarpen bizkorrak erabiltzea

Ezarpen bizkorrak irekitzea

Maiz konfiguratzen dituzun ezarpenak, hala nola bluetootha, «ezarpen bizkorrak» dira, edozein pantailatatik erraz atzitzeko modukoak.

Lehen ezarpen bizkorrak ikusteko, irristatu hatza beherantz behin pantailaren goiko aldetik.



Irristatu beherantz berriro hauek egiteko:

- Ezarpen bizkorrak ikusteko. Ezkerretara lerratu dezakezu gehiago ikusteko.
- Ireki Ezarpenak aplikazioan erabilgarri dauden doikuntzen zerrenda osoa, sakatuta.
- Telefonoa itzaltzeko .

Ezarpen bizkorrak konfiguratzea

Pantailaren distira doitzeko, irristatu .

Beste doikuntza batzuk konfiguratzeko:

- **Sakatu** ikono bat ezarpena aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- **Luze sakatu** ikono bat ezarpenak aldatzeko.

Ikonoa	Aukera
	Internet Wifia
	Internet: datu mugikorrak
	Bluetootha
	Ez molestatu
	Biratu automatikoki
	Linterna
	Wifi-deiak

Dolby Atmos (doikuntza azkarrei gehitu diezaiekezu).

Bateria aurrezteko

Hegazkin modua

Pantaila bidaltzeko (lehen aldiz transmititu ondoren agertzen da).

QR kodeak eskaneatzeko

Pantaila grabatzeko

Kamerara sartzeko

Mikrofonora sartzeko

Nearbyrekin partekatzeko

Datu-aurrezkia lehen aldiz aktibatu ondoren agertzen da.

Gaueko argia

Atseden modua (Atseden modua lehen aldiz aktibatu ondoren agertzen da).

Datu-aurrezkia lehen aldiz aktibatu ondoren agertzen da.

Moteltze gehigarria (Moteltze gehigarria lehen aldiz aktibatu ondoren agertzen da).

Ezarpen guztiak berrezartzea

Ezarpen guztien zerrenda irekitzeko:

- Ireki ezarpen bizkorrak, eta sakatu .
- Edo ireki **Ezarpenak** aplikazioa.

Aholkua: Ezarpenen aplikazioa bila dezakezu, behar duzuna azkar aurkitzeko. Sakatu aplikazioaren goiko aldean eta idatzi bilatu nahi duzun hitza.

Ezarpen bizkorrak pertsonalizatzea

Ezarpen bizkorrak berrantolatu eta erabilienak goiko aldean jar ditzakezu. Gehitu edo kendu ere egin ditzakezu.

1. Ireki **ezarpen bizkorrak**.
2. Sakatu .
3. Arrastatu berrantolatzeko. Edo lerratu gorantz ikono berriak gehitzeko.

Ezarpen bizkorrak leheneratzeko, sakatu > **Berrezarri**.

Multimedia-erreproduzitzailea ainguratzea/desainguratzea ezarpen bizkorretan

Multimedia-erreproduzitzailea ezarpen azkarretan ainguratuta dago, erreprodukzioari berehala ekin ahal izateko. Baina ainguratuta dagoenean, ezin duzu irristatu ixteko.

Multimedia-erreproduzitzailea lerratu nahi baduzu, ixteko eta ezarpen bizkorretatik kentzeko, berriz ere zerbait erreproduzitu arte:

1. Ireki ezarpen bizkorrak, luze sakatu multimedia-erreproduzitzailea eta sakatu .

   Edo ireki **Ezarpenak > Audioa eta dardara > Multimedia-edukia**.
2. Desaktibatu **Ainguratu multimedia-erreproduzigailua** .

Multimedia-erreproduzitzailea ezarpen bizkorretan ainguratu nahi baduzu:

1. Ireki ezarpen bizkorrak, luze sakatu multimedia-erreproduzitzailea eta sakatu .

   Edo ireki **Ezarpenak > Audioa eta dardara > Multimedia-edukia**.
2. Aktibatu **Ainguratu multimedia-erreproduzigailua** .

Pantaila piztea eta itzaltzea

Zergatik itzaltzen da pantaila automatikoki?

- **Bateria aurrezteko**, pantaila itzali egiten da denbora batez erabili ez baduzu. Pantaila automatikoki itzaltzeko denbora handitu edo murriztu dezakezu.

  Pantailaren arreta ere erabil dezakezu, pantailari begira zaudela ez itzaltzeko.

- **Dei batean hitz egiteko telefonoa aurpegira hurbiltzen denean**, pantaila itzali egiten da, nahi gabe ez ukitzeko. Telefonoa aurpegitik aldentzen denean, pantaila piztu egiten da erabili ahal izateko. (Pantailak itzalita jarraitzen badu, jarraitu urrats hauei).

Pantaila eskuz piztea eta itzaltzea

Pantaila pizteko:

- Sakatu pizteko botoia. Pantaila-blokeoa ezarri baduzu, desblokeatu egin beharko duzu.
- Sakatu pantaila (funtzionatzen ez badu, aktibatu keinuak).
- Telefonoari zure hatz-marka gehitu badiozu, sakatu sentsorea telefonoa aktibatzeko eta desblokeatzeko.
- Pantaila automatikoki pizten da sarrerako dei bat jasotzen duzunean.

Pantaila itzaltzeko:

- Sakatu pizteko botoia. Telefonoa zerbaiten gainean uzten duzunean, komeni da egitea. Ustekabean ukitzea saihestuko duzu, bateria pixka bat aurreztuko duzu eta pantaila-blokeoarekin babestuta edukiko duzu.
- Pantaila nagusia bi aldiz ukitu (funtzionatzen ez badu, aktibatu keinuak).
- Etenaldirik nahi ez duzunean pantaila itzalita eta telefonoa isilik edukitzeko, hala nola gauez, erabili ez molestatzeko moduaren ezarpenak.

Telefonoa itzaltzea

Lerratu hatza beherantz bi aldiz, pantailaren goiko aldetik hasita, eta sakatu > Itzali.

Edo, bestela, erabili telefonoaren alboko botoiak. Sakatu pizteko botoia eta bolumena igotzekoa batera, eta sakatu Itzali.

Aholkua: Ezarpenak konfigura ditzakezu **pizteko botoia** bakarrik sakatu nahi duzu (pizteko eta bolumena igotzeko botoien ordez).

Linterna aktibatzea eta desaktibatzea

Linterna pizteko edo itzaltzeko:

1. Ireki ezarpen bizkorrak.
2. Sakatu .

Bestela, egin astintzeko keinua bi aldiz linterna pizteko edo itzaltzeko.

Linterna piztu beharrean kamera aktibatzen bada, egiaztatu astintzeko keinua erabiltzen duzula biratzeko keinua beharrean.

Astintzeko keinua kontrolatzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Keinuak**.
2. Sakatu **Fast flashlight** eta aktibatu edo desaktibatu aukera hori.

QR kode1ak eskaneatzeko

1. Ireki ezarpen bizkorrak.
2. Sakatu .
3. Enkoadratu kodea. Automatikoki detektatzen ez bada, hurbildu edo urrundu kamera.
4. Kodea detektatzen denean, erabili aukerak webgune bat irekitzeko, informazioa kopiatzeko/itsasteko edo partekatzeko.

Ahotsa erabiltzea telefonoa kontrolatzeko

Esan komando bat

Hizkuntza guztiek ez dituzte ahots-komandoak onartzen.

Googleren morroari eskatu diezaiokezu pertsonei deitzeko, argibideak emateko, mezuak bidaltzeko edo alarmak ezartzeko. Galderak ere egin diezazkiokezu.

1. Morroiaren arreta erakartzeko, jarraitu prozedura hauetako bati:
   - Luze sakatu pizteko botoia. Funtzionatzen ez badu, aktibatu keinua.
   - Esku libreekin kontrolatzeko, esan «Hey, Google» edo «OK, Google», zure ahotsa ezagutzen irakatsi badiozu.
   - Irristatu hatza pantailaren behe-ezkerreko edo behe-eskuineko aldetik gorantz. Informazio gehiago.
   - Sakatu .

2. Egin galdera bat edo esan komando bat. Adibidez, «Zer eguraldi egiten du gaur?» edo «Jarri alarma bihar goizeko 7etarako».

   Aholkua: Komandoen zerrenda ikusteko, esan «Laguntza».

3. Hizketan ari zarenean Googleren morroia isilarazteko, sakatu .

   Googleren morroiak ez du gehiago entzungo segundo batzuk pasatu ondoren.

Googleren morroiaren ezarpenak nola aldatu jakiteko, ikus Googleren laguntza.

Erakutsi Googleren morroiari zure ahotsa ezagutzen

1. Ireki Google aplikazioa eta sakatu zure profil-ikonoa > **Ezarpenak > Asistente de Google > Hey Google & Voice Match**.
2. Aktibatu **Hey Google** eta jarraitu pantailako jarraibideei ahotsa grabatzeko.

Arazoak konpontzea

Telefonoak «OK, Google» komandoak ezagutzen ez baditu:

1. Aktibatuta dago Bateria aurreztea?

   Aktibatuta badago, zure morroiari deitzeko, ahotsa erabili beharrean, haren gainean sakatu behar duzu. Halaber, “Bateria aurreztea” desaktiba dezakezu.

   Desaktibatuta badago, jarraitu gainerako urratsei.

2. Ireki Google aplikazioa.
3. Sakatu zure profilaren ikonoa > **Ezarpenak > Google-ren Laguntzailea**.
4. Sakatu **Hey Google y Voice Match**.
5. Sakatu **Ahots eredua**.

Leku batera iristeko jarraibideak eskuratzea

Nabigazioa eta bateriaren iraupena

Navigation da bateria gehien kontsumitzen duen aplikazioetako bat, eta, beraz, komeni da telefonoa kalitate handiko autoko kargagailu batera konektatzea; are gehiago streaming bidez musika erreproduzitu behar baduzu edo Bluetootha erabili behar baduzu (bateria asko kontsumitzen dute biek) .

Ahots-komandoak erabiltzea jarraibideak eskuratzeko

1. Esan hasierako esaldia.
2. Esan «Ruta a [destino].»

“Cómo llegar” widgeta erabiltzea

1. Abiatu aurretik, gehitu Maps-eko Cómo llegar widget bat pantaila nagusian, eta nahi duzun lekura iristeko argibideak eskuratu ahal izango dituzu.
2. Azeleragailua zapaltzeko prest zaudenean, sakatu widgeta eta telefonoak jarraibideak adieraziko dizkizu.

Aholkua: Konbinatu zure Cómo llegar widget guztiak karpeta batean, pantaila nagusian.

Etxera edo lanera iristeko jarraibideak

Eskuratu edozein lekutatik zure etxeraino edo lantokiraino iristeko argibideak, ukitu bakarrarekin. Horretarako, konfiguratu atazetarako lasterbidea Maps aplikaziorako:

1. Luze sakatu .
2. Eraman pantaila nagusiko toki huts batera.
3. Oraindik Maps-en etxeko edo laneko helbidea ezarri ez baduzu, sakatu lasterbidea, eta egin kasu pantailako jarraibideei, gehitzeko.

Azeleragailua zapaltzeko prest zaudenean, sakatu lasterbidea, eta telefonoak jarraibideak adieraziko dizkizu.

Erlojuaren eta eguraldiaren widgeta erabiltzea

Pantaila nagusiari widgetak eranstea

Jarri erloju bat pantaila nagusian, eta eskuratu bizkor alarmak, egutegia eta eguraldia.

1. Luze sakatu pantaila nagusia.
2. Sakatu **Widgetak**
3. Moto Widget-en, luze sakatu **Adapt** eta arrastatu pantaila nagusira.

   Adapt ez den beste estilo bat aukeratu dezakezu. Jarraibide hauek Adapt-en berariazkoak dira, eta ez dira aplikatzen beste estilo batzuetan.

Alarmak ezartzea edo ezabatzea

1. Sakatu ordua.

2. Ezarri alarmak:
   - Alarma berri bat gehitzeko, sakatu eta ezarri ordua eta tonua.
   - Lehendik dagoen alarma bat erabiltzeko, aktiba ezazu . Sakatu dei-tonua ikusteko edo editatzeko.
   - Alarma bat ezabatzeko, ukitu y
3. Alarmaren ezarpenak kontrolatzeko, hala nola alarmaren bolumena eta errepikatze-tartea, sakatu > **Ezarpenak**.

Alarma bat aktibatuta dagoenean, egoera-barran ikonoa bistaratzen da.

Eguraldi-iragarpenak kudeatzea

Ikusi zein eguraldi dagoen zauden tokian edo munduko edozein hiritan.

Uneko kokalekuaren tenperatura eta kondizio atmosferikoak erakustea

1. Widgetean:
   - Sakatu edo .
   - Edo sakatu uneko tenperatura edo egoera-ikonoa eta, ondoren, sakatu .
2. Aktibatu **Kokapena actual**.

> **Aholkua:** Fahrenheit eta Celsius artean aldatzeko, sakatu **Unidad de temperatura**.

Kokapenak gehitzea

1. Widgetean:
   - Sakatu edo .
   - Edo sakatu uneko tenperatura edo egoera-ikonoa eta, ondoren, sakatu .
2. Sakatu .
3. Idatzi hiri baten izena edo posta-kodea, eta, ondoren, sakatu .
4. Sakatu hiria, gehitzeko.
5. Hiri bat gehitzean, widgetean agertuko da. Widgetean beste hiri bateko denbora agertzea nahi baduzu, hautatu botoia kokalekuen zerrendan.

Kokalekua ezabatzea

1. Sakatu uneko tenperatura edo egoera-ikonoa.
2. Sakatu .
3. Sakatu hiriaren izenaren ondoan.

Iragarpenak ikustea

1. Sakatu uneko tenperatura edo egoera-ikonoa, pronostikoa irekitzeko.

2. Ondoren:
   - Gehitu dituzun kokapenetako iragarpen batetik bestera joateko, irristatu eskuinera eta ezkerrera.
   - Informazio meteorologikoaren hornitzailearen webguneari buruzko xehetasun gehiago ikusteko, sakatu iragarpenaren elementu bat.
   - Iragarpenaren eguneratzeen maiztasuna aldatzeko, sakatu > **Periodo de actualización de la previsión** eta, ondoren, hautatu iraupen bat.

Alerta meteorologikoaren jakinarazpenak kontrolatzea

Widgetak arreta berezia behar duen denborari buruzko jakinarazpenak bidaltzen ditu.

Jakinarazpenak aktibatzeko edo desaktibatzeko:

1. Sakatu uneko tenperatura edo egoera-ikonoa.
2. Sakatu .
3. Aktibatu edo desaktibatu **Notificaciones de alerta meteorológica**.

Egutegia ikusteko

Sakatu uneko data zure egutegia irekitzeko. Egutegian, hurbil dauden gertaerak ikusi edo gehitu ditzakezu.

Denbora telefonoarekin nola pasatzen duzun kudeatzea

Ongizate digitala konfiguratzea

Ikusi nola erabiltzen duzun zure denbora telefonoan; adibidez, zenbateko maiztasunez desblokeatzen duzun edo aplikazio bakoitza zenbat denboran erabiltzen duzun. Ondoren, erabili informazio hori zure ohitura digitalak hobetzeko.

Funtzio hau erabiltzen duzun lehen aldian:

1. Joan hona: **Ezarpenak** > **Ongizate digitala eta guraso-murriztapenak**.
2. Ezarpenak ireki ordez aplikazio hau bilatu nahi baduzu, aktibatu **Erakutsi ikonoa aplikazioen zerrendan**.

Ezagutu zure ohiturak

1. Joan hona: **Ezarpenak** > **Ongizate digitala eta guraso-murriztapenak**.
2. Ikusi grafikoa, hauek egiaztatzeko:
   - Zenbat denbora eman duzun gaur telefonoarekin
   - Zer aplikazio erabili dituzun eta zenbat denboran
   - Zein maiztasunekin desblokeatu duzun gaur telefonoa
   - Zenbat jakinarazpen jaso dituzun
3. Informazio gehiago lortzeko, sakatu grafikoaren etiketa bat. Adibidez, aste osoan pantaila aktibatuta zenbat denboran eduki duzun ikusteko, sakatu gaurko erabilera-denbora.

Pantailaren eguneroko erabileran muga bat ezartzea

Banakako aplikazioetarako, tenporizadore bat ezar dezakezu aplikazio horretan egunean emandako denbora mugatzeko.

Aholkua: Zure seme-alabek pantaila zenbat erabiltzen duten kontrolatzeko, erabili guraso kontrola.

Aplikazio baterako tenporizadore bat ezartzeko:

1. Joan hona: **Ezarpenak** > **Ongizate digitala eta guraso-murriztapenak** > **Panela**.

   Edo hona: **Ezarpenak** > **Aplikazioak** > **Erabilera denbora**
2. Mugatu nahi duzun aplikazioarekin batera, sakatu .
3. Konfiguratu egunean zenbat denboran erabil daitekeen aplikazio hori.

   Aplikazio baten denbora-mugara iristen denean:

   - Aplikazioa itxi egingo da.
   - Ikonoa motelduta agertuko da, eta ezingo du aplikazio hori ireki.

Aplikazioaren tenporizadorea gauerdian leheneratzen da. Aplikazioa gauerdia baino lehen erabiltzeko, zoaz ezarpenetara, aukeratu tenporizadorea, eta luzatu denbora edo ezabatu muga.

Arreta galarazten dizuten aplikazioak geldiaraztea, kontzentratzeko

Erabili “Arreta ez galtzeko modua” hautatutako aplikazioak geldiarazteko eta arreta gutxiago galtzeko.

1. Joan hona: **Ezarpenak** > **Ongizate digitala eta guraso-murriztapenak** > **Kontzentratzeko modua**.
2. Hautatu eten nahi dituzun aplikazioak.
3. Egin ekintza hauetako bat:

   - Aktibatzeko, sakatu **AKTIBATU**.
   - Automatikoki aktibatzeko, sakatu **Ezarri programazio bat** eta, ondoren, hautatu asteko egunak eta hasiera- eta amaiera-orduak.

“Arreta ez galtzeko modua” aktibatuta dagoenean:

- bistaratuko da egoera-barran.
- Hautatutako aplikazioak ezin izango ditu erabili, ez eta haien jakinarazpenik jaso ere.

Aholkua: Ezarpen bizkorrei arreta ez galtzeko modua gehitzeko, ireki ezarpen bizkorrak, sakatu eta, ondoren, arrastatu izenburua nahi duzun tokiraino.

“Arreta ez galtzeko modua” desaktibatzeko:

- Ireki ezarpen bizkorrak, eta sakatu .
- Jakinarazpenean **DESAKTIBATU** ere sakatu dezakezu. (Denbora-tarte labur batez desaktibatzeko, sakatu **Hartu atseden**).

Programazioa ezabatzeko:

1. Egin ekintza hauetako bat:
   - Ireki ezarpen bizkorrak, eta luze sakatu .
   - Joan hona: **Ezarpenak > Ongizate digitala eta guraso-murriztapenak > Kontzentratzeko modua**.
2. Agendaren ondoan, sakatu .

Aholkua: Soinuak isilarazteko, bibrazioa geldiarazteko eta dei eta aplikazio guztien jakinarazpenak blokeatzeko, erabili Ez molestatzeko modua.

Lotarako unean telefonoa uzteko funtzio praktiko batzuk

Lotarako prestatzeko aldaketak programatu ditzakezu.

1. Joan hona: **Ezarpenak > Ongizate digitala eta guraso-murriztapenak > Lo egiteko garaiaren modua**.
2. Hautatu noiz aktibatu behar den Atseden modua.
3. Beharrezkoa bada, doitu hasteko eta amaitzeko ordua.
4. Sakatu **Pertsonalizatu**, programatutako denbora horretan telefonoak zer egin behar duen ezartzeko:
   - Telefonoa isilarazi (Ez molestatzeko modua aktibatu).
   - Koloreak eta argia apalduta edo grisen eskalan erabili (Sakatu **Pantailarako aukerak lo egiteko garaian**).

Gurasoen kontrola erabiltzea

Aukera hauek dituzu:

- Seme-alabek gailua eta aplikazioa nola erabiltzen dituzten kontrolatu dezakezu.
- Kokapen-doikuntzak kontrolatu ditzakezu, eta kontrolatutako gailuaren kokapena ezagutu.
- Erabilera-muga batzuk zehaztu ditzakezu, aplikazioen erabilera gainbegiratu, eta seme-alaben gailuak urrunetik blokeatu.
- Seme-alabek Chrome, Google, Play Store eta YouTube-rekin ikusi, erosi edo deskargatu dezaketena mugatu edo kontrolatu.

Horretarako, gurasoen kontrola konfiguratu behar duzu zure gailuan eta seme-alabenean.

Telefono honetan gurasoen kontrola konfiguratzeko:

1. Joan hona: **Ezarpenak > Ongizate digitala eta guraso-murriztapenak**.
2. Sakatu **Konfiguratu guraso-murriztapenak**
3. Jarraitu pantailako jarraibideei mugikorra haurrek edo helduek erabiltzeko konfiguratzeko.
4. Beste gailuan gurasoen kontrola konfiguratzeko, kontsultatu gailu horren laguntza-gida.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Googleren laguntza.

Pantailako teklatua erabiltzea

Teklatua irekitzea, ixtea eta tamaina aldatzea

Teklatua irekitzeko, sakatu testua edo zenbakiak sar ditzakezun eremu bat.

Teklatua pantailaren beste zati batzuk ikusteko moduan ixteko, sakatu .

Teklatua handitzeko, biratu telefonoa horizontalean. Pantaila biratzen ez bada, egiaztatu biraketa automatikoaren ezarpenak.

Aholkua: Beste teklatu batzuk instalatu badituzu, nabigazio-botoien ondoan ikusiko duzu idazten ari zaren bitartean. Beste teklatu batera aldatzeko, sakatu .

Karaktere bereziak idazteko:

Luze sakatu tekla bat lotutako karaktere bereziak ikusteko. Adibidez:

- Luze sakatu . beste puntuazio-zeinu batzuk ikusteko.
- Luze sakatu **e, é** eta **3** ikusteko.

Aholkua: Puntu bat eta tarte bat txertatzeko, sakatu zuriune-barra bi aldiz jarraian.

Letra maiuskulak:

Dena letra larriz idazteko, sakatu bi aldiz, azkar, ikusteko moduan. Sakatu berriro minuskuletara itzultzeko.

Idatzi duzun hitz baten maiuskulen erabilera aldatzeko:

1. Aukeratu hitza.
2. Sakatu nahi duzun maiuskulen konfigurazioa ikusi arte: lehenengo letra bakarrik, dena letra larriz edo dena xehez.

Idazkera irristatuz erabiltzea

Testua sartzeko bi aukera dituzu: aldi bakoitzean letra bat idaztea (idazketa multitaktila) edo hatza hitz bateko letra guztietatik irristatzea mugimendu jarraitu bat eginez (irristatuz idaztea). Hasi idazten modu batera edo bestera, eta aldatu nahi duzunean.

Irristatuz idazten ari bazara, hauek egin ditzakezu:

- **Hitz bat idatzi.** Letren gainean hatza irristatuz.
- **Hitz arruntetan apostrofeak sartu**. Arrastatu letren artean, eta apostrofea automatikoki txertatuko da.
- **Tarte bat gehitu**. Ez dago zuriune-barra erabili beharrik. Nahikoa da hatza altxatzea eta hurrengo hitzarekin hastea.

Irristatze bidezko idazketa desaktibatu dezakezu.

Gomendioak

Erabili iradokizunak azkarrago idazteko.

Idazten ari zarela, iradokitako hitzen zerrenda bat ikusiko duzu teklen gainean:

- Sakatu hitz bat zerrendan, testuan sartzeko.
- Iradokitako hitza gustatzen ez bazaizu, luze sakatu, eta, ondoren, arrastatu hona: .

Iradokizunak mugatu edo desaktibatu ditzakezu.

Zuzentzaile ortografikoa eta zuzenketa automatikoa

Gaizki idatzitako hitzak automatikoki zuzentzen dira idazten ari zaren bitartean.

Hitz hori automatikoki berriro ez zuzentzeko, gehitu hiztegira iradokizun-zerrendako hitza teklen gainean sakatuta.

Zuzenketa automatikoa desaktibatuta egon arren, ortografia egiazta dezakezu:

1. Idatzi ondoren, berrikusi testua; gaizki idatzitako hitzak (eta hiztegian ez daudenak) azpimarratuta agertuko dira.
2. Sakatu azpimarratutako hitz bat:
   - Hitza zuzen idatzita badago, sakatu iradokizun-barran.
   - Hitza gaizki idatzita badago, aukeratu hitz zuzena iradokizun-barran edo idatzi hitza zuzen.

Hainbat hizkuntzatan idaztea

Telefonoaren ezarpenetan sistemaren hizkuntza gisa hainbat hizkuntza gehitu badituzu, teklatuak eta testu-iradokizunak erabilgarri egongo dira hizkuntza horietarako ere:

- Sistemaren hizkuntza nagusia ez den beste hizkuntza bat erabiltzen baduzu teklatuan, teklatuan zein hizkuntza erabil daitezkeen ikus dezakezu zuriune-barran.
- Hizkuntza batetik bestera aldatzeko, sakatu .
- Erabilgarri dauden teklatuen zerrenda ikusteko, luze sakatu edo zuriune-barra.

Beste hizkuntza batzuetarako teklatuak gehitu ditzakezu.

Testua ebaki, kopiatu eta itsastea

Webguneen eta mezuen testua hautatu eta kopiatu dezakezu.

1. Testua hautatzeko, luze sakatu hitz bat.
2. Sakatu **Kopiatu**, **Moztu**, **Partekatu**, **Hautatu guztiak** edo:
   - Hautatu testu gehiago. Arrastatu kontrol irristagarriak .
   - Eskuratu aukeratutako testuari buruzko informazioa. Sakatu **Web-bilaketa**.
   - Hautatutako testua itzultzeko. Sakatu **Itzuli**... (Aukera hau ikusten ez baduzu, instalatu Googleren Translate aplikazioa).

3. Testua itsasteko, sakatu kurtsorearen posizioan txertatzeko edo aukeratu ordeztu nahi duzun testu-blokea, eta, ondoren, sakatu **Itsasi**.

Aholkuak:

- Aplikazio batzuetan, bi aldiz sakatu beharko duzu hitz bat hautatzeko (luze sakatu beharrean).
- **Kopiatu** erabiltzen duzunean, testua telefonoaren memoriako arbelean kopiatzen da, eta arbelean zegoen aurreko testua gainidazten du. Arbelean kopiatutako guztia gorde eta administratu nahi baduzu, bilatu «gestor de portapapeles» Play Storen, aplikazio bat hautatu eta deskargatzeko.

Ahots bidezko idazketa erabiltzea

1. Sakatu testu-eremu bat pantailako teklatua bistaratzeko.
2. Sakatu pantailako teklatuan.
3. Esan zer idatzi nahi duzun:
   - Natural hitz egin, baina argi. Ez egin oihu, eta ez jarri telefonoa aho ondoan.
   - Puntuazioa sartzeko, esan «koma», «puntua», «galdera-ikurra» edo «harridura-ikurra».
   - Eteteko edo berrabiarazteko, sakatu .
   - Hitz bat ezabatzeko, sakatu .

Telefonoa eskurik gabe ere erabil dezakezu, ahots-komandoen bidez.

Formularioak automatikoki betetzea

Utzi zure informazio pertsonala behin eta berriz sartzeari. Gorde ondo eta, ukitu bakarrarekin, bete pasahitzak, helbideak, kreditu-txartelak eta Googleko kontuan gordetako informazio gehiago.

Funtzio hori gaitzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna** > **Pribatasun-ezarpen gehiago** > **Google-ren betetze automatikoa**
2. Sakatu kategoriak informazio pertsonala, helbideak, kreditu-txartelak eta pasahitzak berrikusi eta editatzeko.

Pantaila-atzealdea aldatzea

Pantaila nagusiaren eta blokeo-pantailaren pantaila-atzealdeko irudia alda dezakezu.

Pantaila nagusiaren atzealdea konfiguratzea

1. Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat, eta, ondoren, sakatu **Horma-papera eta estiloa**
2. Egin ekintza hauetako bat:
   - Pantaila-atzealde bakarra ezartzeko, hautatu argazki bat edo atzealde bat.
   - Animazioa duen atzealde bat erabiltzeko, hautatu animaziozko pantaila-atzealde bat. Animatutako pantaila-atzealde askok doikuntzak dituzte. Bilatu edo aukerak konfiguratzeko.
   - Kategoria bateko pantaila-atzealdeak hautatzen badituzu (adibidez, paisaiak), irudi desberdina ikusiko duzu egunero. Ireki kategoria eta sakatu .
3. Sakatu edo **Ezarri horma-papera**.
4. Aukeratu pantaila nagusian, blokeatzeko pantailan edo bietan erabili nahi duzun pantaila-atzealdea.

Argazkia handiegia bada
Ireki argazkia eta egin pantaila-argazki bat. Ondoren, editatu pantaila-argazkia, behar adina, eta ezarri pantailaren atzealde gisa.

Atzealde interaktiboa edo zuzenekoa hautatu baduzu

Bateria gutxi geratzen bada, aldatu pantailaren atzealdea irudi estatiko batera, bateria aurrezteko.

Efektu bisualak dituen pantaila-atzealde bat sortzea

Ikusizko efektuak aplika diezazkiekezu zure argazkiei, adimen artifiziala erabiliz, eta pantaila-atzealde gisa erabil ditzakezu.

1. Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat, eta, ondoren, sakatu **Horma-papera** > **Efectos visuales**.
2. Hautatu irudi bat.
3. Hautatu irudiari aplikatzeko estilo bat.
4. Sakatu **Ezarri horma-papera**, eta, gero, segitu pantailan agertuko diren jarraibideei, aplikatzeko.

Gogokoen ontzia pertsonalizatzea

Gogokoen ontziak, zeina pantaila nagusiaren beheko aldean baitago, gehien erabiltzen dituzun aplikazioetara azkar sartzeko aukera ematen dizu. Aplikazioetarako lasterbide horiek pertsonaliza ditzakezu.

Aplikazioetarako lasterbideak aldatzeko:

1. Luze sakatu aplikazioetarako lasterbide bat, eta, ondoren, arrastatu eta askatu **Ezabatu** botoian.
2. Irristatu gora, pantaila nagusiaren beheko aldetik, aplikazioen zerrenda irekitzeko.
3. Luze sakatu nahi duzun aplikazioa. Lasterbide berria agertutakoan, arrastatu ontziaren eremu hutsera.

Aholkua: Gogokoen ontziko karpetak ere erabil ditzakezu.

Widgetak, zuzeneko sarbideak edo karpetak erabiltzea

Widgetak gehitzea

Widgetek streaming bidez transmititzen dute informazioa, eta, hala, aplikazio baten funtzio batzuk erabiltzeko aukera ematen dute, hura ireki beharrik gabe. Adibidez, Calendar widgetak eguneko agenda erakusten du, eta ukitu bakar batekin egutegi osora sartzeko aukera ematen du.

Widget bat gehitzea

1. Luze sakatu pantaila nagusia.
2. Sakatu **Widgetak**.

   Widgetak dagozkien aplikazioetan agertzen dira.
3. Luze sakatu widget bat, gehitzeko.

Widgetaren neurria doitzea

Widget batzuen tamaina handitu dezakezu, eduki gehiago ikusteko:

1. Luze sakatu widgeta, nabarmendu arte.
2. Sakatzeari uzten diozunean, ertza agertuko da.
3. Arrastatu ertz bat edo aldamen bat haren tamaina aldatzeko.

Aplikazioetarako lasterbideak gehitzea

1. Irristatu gora, pantaila nagusiaren beheko aldetik, aplikazioen ontzia irekitzeko.
2. Luze sakatu ezabatu nahi duzun aplikazioa.
3. Arrastatu aplikazioa pantaila nagusiaren toki huts batera edo pantailaren ertzera, eta askatu beste pantaila nagusi batean.

Eginkizunei lasterbideak gehitzea

Aplikazio askok ohiko eginkizunetarako lasterbideak dituzte, aplikaziora sartzeko hura ireki eta nabigatu beharrik izan ez dezazun.

1. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa, eginkizunetarako lasterbideak ikusteko.

2. Egin ekintza hauetako bat:
   - Eginkizun bat egiteko, sakatu.
   - Eginkizun horretarako lasterbidea sortzeko, arrastatu = pantaila nagusiko tarte huts batera.

Hona hemen aplikazio batzuetako eginkizunetarako lasterbideen adibide batzuk. Aplikazio guztiek ez dituzte eginkizunetarako lasterbideak.

Aplikazioa	Eginkizunetarako lasterbideak
Gmail	• Posta elektronikoko mezu berri bat idazteko. • Kontu jakin bat irekitzeko
Maps	• Lanera joateko • Etxera joateko
YouTube	• Bilaketak egiteko • Harpidetzak • Arakatzeko
Chrome	• Ezkutuko beste fitxa bat • Beste fitxa bat:
Egutegia	• Gogorarazle berri bat • Gertaera berri bat • Ataza berria
Mezuak	• Azkena izandako elkarrizketa irekitzeko • Beste elkarrizketa bat
Erlojua	• Pantaila-babeslea abiarazteko • Kronometroa abiarazteko • Beste tenporizadore bat sortzeko • Alarma bat sortzeko
Ezarpenak	• Bluetootha • Bateria

- Datuak erabiltzea
- Wifia

Webguneetarako lasterbideak gehitzea

1. Ireki **Chrome** aplikazioa.
2. Joan webgunera.
3. Sakatu > **Gehitu hasierako pantailan**.
4. Editatu izena, nahi izanez gero.
5. Sakatu **Añadir**.
6. Egin ekintza hauetako bat:
   - Luze sakatu ikonoa, pantaila nagusian nahi duzun tokira eramateko.
   - Sakatu **Gehitu hasierako pantailan**.

Karpetak gehitzea

Lasterbideak karpetatan antolatzen dira. Pantaila nagusian edo aplikazioen ontzian sor ditzakezu karpetak.

Pantaila nagusiko karpetak

Pantaila nagusian karpeta bat sortzeko:

1. Luze sakatu aplikazio baten lasterbidea pantaila nagusian.
2. Arrastatu beste batera, elkartzeko, eta askatu inguruan marko bat agertzen denean.

3. Karpetari izena jartzeko, sakatu irekitzeko, eta, ondoren, sakatu **Editatu izena** eta idatzi izen bat.

Karpeta batera aplikazioak gehitzeko:

1. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa.
2. Arrastatu karpetara.

Karpeta bateko aplikazioak ezabatzeko:

1. Ireki pantaila nagusiko karpeta.
2. Arrastatu aplikazioaren ikonoa pantaila nagusira edo arrastatu gorantz eta sakatu **Kendu**.

Aplikazioen ontziko karpetak

Aplikazioen ontzian karpeta bat sortzeko:

1. Ireki aplikazioen ontzia.
2. Sakatu > **Create folder**

3. Idatzi karpetaren izena.
4. Sakatu aplikazioen ikonoak karpetan zer jarri nahi duzun hautatzeko.
5. Ukitu **Done**

Karpeta bateko aplikazioak aldatzeko:

1. Luze sakatu karpeta.
2. Sakatu **Editatu**.
3. Sakatu aplikazioen ikonoak, gehitzeko edo ezabatzeko.

Karpeta batera aplikazioak gehitzeko:

1. Luze sakatu aplikazio baten ikonoa.
2. Sakatu ⊕.
3. Hautatu karpeta.

Karpeta bateko aplikazio bat ezabatzeko:

1. Ireki karpeta.
2. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa.
3. Sakatu ✕.

Widgetak, zuzeneko sarbideak edo karpetak ezabatzea

Pantaila nagusiko elementuak ezabatzeko:

1. Luze sakatu bibratu arte.
2. Arrastatu **Ezabatu** aukerara.

   Aplikazioen ontziko karpeten kasuan, sakatu ✕ Ezabatu.

Pantaila nagusiko aplikazioen ikonoak aplikazioen ontzian instalatutako aplikazioetarako lasterbideak dira. Pantaila nagusiko lasterbidea ezabatzeak ez du esan nahi aplikazioa desinstalatu duzunik. Hemen duzu aplikazioak desinstalatzeko informazio gehiago.

Pantaila nagusirako erabat desberdina den erabiltzaile-interfaze bat hautatzeko, deskargatu beste abiarazle bat.

Aplikazioak antolatzea eta ikonoaren itxura kontrolatzea

Aplikazioak non jarri nahi dituzun aukeratu dezakezu: aplikazioen ontzian edo zuzenean pantaila nagusian.

Aplikazio-ontzian, aplikazio guztiak jasotzen dira. Irristatu gora, pantaila nagusiaren beheko aldetik, ontzia irekitzeko. Horrek pantaila nagusia sinplifikatzen du, hautatzen diren aplikazioak bakarrik erakusten baititu.

Aplikazio **guztiak** pantaila nagusian ikusteko, aplikazioen ontzia ken dezakezu.

Konfigurazio hori noiznahi alda daiteke.

1. Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat.

2. Sakatu **Hasierako pantailaren ezarpenak** > **Home screen style** eta, ondoren:
   - Pantaila nagusiko aplikazio guztiak ikusteko, sakatu **SWITCH**.
   - Aplikazio-ontziko aplikazio guztiak ikusteko, sakatu **App tray.**
3. Pertsonalizazio gehiago ere badaude; haiek ikusteko, sakatu :

Aplikazio-ontzia erabili behar baduzu

Pertsonalizazio hauek egin ditzakezu Hasierako pantailaren ezarpenak aukeran:

- Aktibatu edo desaktibatu pantaila nagusiaren goiko eta beheko aldean iradokitako aplikazioak.
- Aplikazio berri bat instalatzean aplikazioaren ikonoa pantaila nagusian eranstea nahi ez baduzu, desaktibatu **Gehitu aplikazioen ikonoak hasierako pantailan** . Ikonoa aplikazioen ontzian bakarrik gehituko da.

Open erabiltzen baduzu pantaila nagusian aplikazio guztiak bistaratzeko

Aplikazioen ikonoen antolamendua pertsonalizatu dezakezu:

- Ikonoak pantaila nagusiaren edozein lekutan jarri ahal izateko, sakatu **Free arrangements.**
- Ikonoak automatikoki espazio hutsetara mugi daitezen, sakatu **Auto fill**.

Ikonoen diseinua aldatzea

Hasierako pantailan ikono gehiago edo gutxiago (errenkadak eta zutabeak) erakusten dituen diseinua hauta dezakezu.

1. Luze sakatu pantaila nagusiko zati huts bat.
2. Sakatu **Hasierako pantailaren ezarpenak > Home screen style**.
3. Hautatu nahi dituzun neurriak eta sakatu **Gorde**.

Pantaila nagusiko ikonoak pantaila-atzealdearekin konbinatzea

Eman itxura bat pantaila nagusiari, pantaila-atzealdearekin konbinatzen diren ikono pertsonalizatuekin.

Aplikazioen erretilua irekitzen duzunean, jatorrizko aplikazio-ikonoak ikusten segituko duzu.

1. Luze sakatu pantaila nagusiko zati huts bat.
2. Sakatu **Hasierako pantailaren ezarpenak**.
3. Aktibatu edo desaktibatu **Themed icons**.

Jakinarazpen-burbuilak erakustea eta ezkutatzea

Aplikazioen ikonoek irakurri gabeko jakinarazpenen berri emateko burbuilak erakustea nahi duzun edo ez aukeratu dezakezu.

1. Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat.
2. Sakatu **Hasierako pantailaren ezarpenak**.
3. Aktibatu edo desaktibatu Jakinarazpen-biribiltxoak.

Pantaila nagusia bira dadin baimentzea edo ez baimentzea

Ezarpen bizkorretan, Biratu automatikoki aktibatzean, aplikazioak biratu egiten dira telefonoa biratzean. Nahi izanez gero, pantaila nagusia biratzea eragotz dezakezu aplikazioak automatikoki biratzen badira:

1. Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat.
2. Sakatu **Hasierako pantailaren ezarpenak**.
3. Aktibatu **Eman hasierako pantaila biratzeko baimena** edo desaktibatu aukera hori.

Googleren feed-a ezabatzea

Hatza ezkerrerantz irristatzen baduzu, Googleko albisteen zerrenda agertzen da. Kentzeko:

1. Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat.
2. Sakatu **Hasierako pantailaren ezarpenak**.
3. Desaktibatu **Erakutsi Google aplikazioa**.

Pantaila nagusia abiarazleekin pertsonalizatzea

Abiarazleei buruz

Abiarazte-aplikazio batek pantaila nagusiaren itxura definitzen du, bai eta aplikazioak nola antolatzen diren eta haiekin elkarreraginean nola jarduten den ere. Telefonoaren abiarazleak Googleren bilaketa-widgeta eta erlojua jartzen ditu pantaila nagusian. Begiratu zer itxura duen pantaila nagusiak, eta nola pertsonaliza dezakezun.

Pantaila nagusiaren itxura erabat aldatu nahi baduzu, abiarazle berri bat deskargatu eta hura erabiltzeko ezarpenak eguneratu beharko dituzu. Normalean, abiarazleek beste pantaila-atzealde batzuk, telefonoarekin elkarreraginean jarduteko beste keinu batzuk eta pantaila nagusirako elementu pertsonalizagarriak izaten dituzte.

Edozein unetan itzul zaitezke jatorrizko abiarazlera eta pantaila nagusira.

Beste abiarazle bat erabiltzea

1. Bilatu «iniciador» Play Storen.
2. Aztertu emaitzak eta deskargatu bat (edo bat baino gehiago).
3. Erabiltzen hasteko, luze sakatu hasierako tekla, eta jarraitu pantailan agertzen diren argibideei.

Abiarazlea aldatzea

1. Ireki **Ezarpenak** > **Aplikazioak**.
2. Sakatu **Aplikazio lehenetsiak** > **Hasierako aplikazioa**

3. Hautatu erabili nahi duzun abiarazlea.

   Pantaila nagusira itzultzeko, hautatu **Quickstep**.

4. Ezarpenak konfiguratzeko, sakatu .

Abiarazleak ezabatzea

Instalatu dituzun abiarazleak bakarrik ezaba ditzakezu.

Luze sakatu abiarazte-aplikazioaren ikonoa, eta, ondoren, sakatu > **Desgaitu.**

Pantaila-babeslea erabiltzea

Pantaila-babeslea konfiguratzea

Telefonoa oinarri edo kargagailu batean inaktibo dagoen bitartean, mahai gaineko erloju gisa, argazkiak erakusteko marko gisa edo beste gauza askotarako erabil dezakezu.

1. Ireki **Ezarpenak** > **Bistaratzea**
2. Sakatu **Pantaila-babeslea**
3. Egin eragiketa hauetako bat:
   - Pantaila-babesa aldatzeko, hautatu. Pantaila-babesle horretarako aukerak konfiguratzeko, sakatu **Pertsonalizatu**
   - Zure aukeraren aurrebista bat ikusteko, sakatu **Aurreikusi**. Sakatu pantaila edozein tokitan (desblokeatu, beharrezkoa bada), ezarpenetara itzultzeko.
   - Pantaila-babeslea noiz hasten den doitzeko (oinarrira konektatuta dagoenean, kargatzen ari denean edo bietan), sakatu **Noiz abiarazi.**

Pantaila-babeslea abiarazteko

Pantaila-babeslea automatikoki abiaraziko da telefonoa oinarri edo kargagailu batera konektatzean eta pantaila itzaltzean.

Pantaila-babesletik atera eta pantaila nagusira edo blokeo-pantailara itzultzeko:

- Sakatu pizteko botoia.
- Edo, hatz-marken bidezko segurtasuna erabiltzen ari bazara, sakatu sentsorea.

Pantaila-babeslea edozein unetan eskuz abiarazteko, ireki **Ezarpenak > Bistaratzea > Pantaila-babeslea** aukerara, eta aktibatu **Erabili pantaila-babeslea** .

Pantaila-babeslea desaktibatzea

Pantaila-babeslea automatikoki abiarazi dadin saihesteko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Bistaratzea**
2. Sakatu **Pantaila-babeslea** eta desaktibatu **Erabili pantaila-babeslea** .

Pantaila-babesleak gehitzea

Bilatu « Pantaila-babeslea » Play Storen pantaila-babesle gehiago eskaintzen dituzten aplikazioak aurkitzeko.

Aplikazio bat instalatu ondoren, hautatu hemen pantaila-babesle berriak: **Ezarpenak > Bistaratzea > Pantaila-babeslea.**

Aplikazioak ireki, itxi eta aldatzea

Aplikazioak ireki eta ixtea

Aplikazio bat irekitzeko, ukitu ikonoa hasierako pantailan, edo lerratu gorantz pantaila nagusiaren beheko aldetik, aplikazioen erretilua irekitzeko eta sakatu aplikazioa.

Aplikazio batetik irteteko, pantailaren beheko aldetik gora lerratu besterik ez duzu, eta hasierako pantailara itzuliko zara.

Ez da beharrezkoa aplikazioak ixtea. Aplikazioek erabiltzen dituzten memoria eta bateria kudeatzen ditu Androidek, eta, beraz, ez duzu kezkatu behar aplikazioak irekita uzten badituzu.

Aplikazio bat ixteko, irristatu hatza gorantz pantailaren beheko aldetik hasita eta itxaron pixka bat. Aplikazio berrietan, irristatu gorantz aplikazioa.

Aplikazio guztiak ixteko, arrastatu gorantz pantailaren beheko aldetik, eta itxaron pixka bat. Azkena erabilitako aplikazioetan, irristatu eskuinerantz zerrendaren hasiera ikusi arte, eta sakatu Ezabatu guztia.

Aplikazio bat leihoan modu librean irekitzea

Lerratu barrurantz telefonoaren ertzetik, gogokoen dituzun aplikazioen menua irekitzeko (alboko barra ikusten ez baduzu, aktibatu).

Aplikazio bat irekitzeko, lerratu barrurantz telefonoaren ertzetik, eta, han, barra zeharrargi bat ikusiko duzu, aplikazioen menu batekin. Ukitu bat leiho mugikor batean aske irekitzeko.

Mugitzeko, luze sakatu goiko aldean eta arrastatu.

Tamaina doitzeko, arrastatu beheko izkina diagonalean:

- Arrastatu beheraino pantaila osoan irekitzeko.
- Arrastatu goraino, ikono mugikor bihurtu eta nahi duzunean aplikazioa berriz irekitzeko.

Aplikazioa ixteko, sakatu goiko izkinan.

Alboko barra pertsonalizatzeko, ukitu . Aplikazioak gehitu edo ezaba ditzakezu eta berrantolatu.

Aplikazio batetik bestera aldatzea

1. Aplikazio batetik bestera aldatzeko, irristatu pantailaren beheko aldean ezkerrera edo eskuinera.

   Azkena erabilitako aplikazioen zerrenda ikusteko, arrastatu gorantz pantailaren beheko aldetik, eta itxaron pixka bat.

2. Azkena erabilitako aplikazio-zerrendan:

   - Joan ezkerrera edo eskuinera aplikazio gehiago ikusteko.
   - Aplikazio batera aldatzeko, sakatu zerrendan.
   - Aplikazioa leihoan modu librean edo pantaila osoan irekitzeko, luze sakatu ikonoa.

Aholkua:

Erabili bi aplikazio aldi berean, pantaila zatituz.

Pantailan bi aplikazio ikustea

Beste aplikazio bat ireki dezakezu leiho txiki batean, modu librean. Edo, bestela, pantaila erditik zatitu eta aldi berean bi aplikazio erabil ditzakezu.

Pantaila zatituaren ikuspegia erabiltzea

1. Ireki lehen aplikazioa.
2. Arrastatu gorantz pantaila nagusiaren beheko aldetik, luze sakatu eta gero askatu.
3. Berriki erabilitako aplikazioen zerrendan, sakatu aplikazioaren ikonoa aurrebistaren goiko aldean, eta bistaratzeko.

   Ziurtatu aplikazioaren ikonoa sakatzen duzula aurrebistarena sakatu beharrean, horrek aplikazioa irekitzen baitu.

4. Sakatu **Zatitu goialdean**.
5. Aukeratu erabil nahi duzun bigarren aplikazioa.

Pantaila zatituaren ikuspegitik irtetea

Arrastatu zatitzailea goraino edo beheraino.

Irudia irudian erabiltzea

Aplikazio batzuetan, bideoak ikus ditzakezu leiho mugikor txiki batean, beste gauza batzuk egiten dituzun bitartean. Erabili aukera hau Google Maps-ekin nabigatzen ari zaren bitartean ere.

1. Bideo bat erreproduzitzen edo Maps-ekin nabigatzen ari bazara, joan pantaila nagusira edo erabili nahi duzun aplikaziora.

   Bideoa (edo nabigazioa) murriztu egingo da.

2. Bideoa (edo nabigazioa) pantailako edozein tokitara arrasta dezakezu.
   - Tamaina handitzeko, sakatu bi aldiz.
   - Tamaina osora itzultzeko, ukitu behin eta, ondoren, ukitu .
   - Ixteko, arrastatu pantailaren beheko aldera. Bestela, sakatu, eta, jarraian, sakatu .
   - Desaktibatu Irudia irudian erabiltzen ari zaren aplikaziorako, sakatu eta, ondoren, sakatu eta desaktibatu **Pantaila txiki gainjarria**

Irudia irudian aukerarekin bateragarriak diren aplikazio guztiak ikusteko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Aplikazioak**.
2. Sakatu **Aplikazio-baimen bereziak** > **Pantaila txiki gainjarria**
3. Desaktibatu Pantaila txiki gainjarria aukeran, sakatu eta desaktibatu **Eman pantaila txiki gainjarria erabiltzeko baimena** .

Jakinarazpenak

Jakinarazpenetara sartzeko

Aplikazioek jakinarazpenak bidaltzen dituzte mezu berriei, egutegiko gertaerei eta alarmei buruz abisatzeko.

Jakinarazpenak hainbat tokitatik kontsulta ditzakezu:

- Blokeo-pantailan agertzen dira.
- Edozein pantailatan egoera-barra beherantz irristatzean ikus daitezke.



Aplikazio baten hainbat jakinarazpen jasotzen badituzu, multzokatuta agertuko dira. Irristatu hatza beherantz xehetasun gehiago ikusteko. Elkarrizketa-jakinarazpenak gainerako jakinarazpenen gainean multzokatzen dira, edozein unetan haietara erraz itzultzeko.

Jakinarazpen garrantzitsu batzuk agertzen dira laburki zure uneko aplikazioaren gainean, behar diren ekintzak egin ahal izateko. Adibidez, sarrerako dei baten jakinarazpena bideo bat ikusten duzun bitartean ager daiteke, deiari erantzun edo baztertu dezazun.

Aplikazio baten ikonoak jakinarazpen-puntu bat badu, luze sakatu jakinarazpen berriena ikusteko:

Zer egin dezakezun blokeo-pantailako eta egoera-barrako jakinarazpenekin

Jakinarazpen batetik erantzun

Jakinarazpen askok ekintzak izaten dituzte behealdean, eta, horien bidez, ataza arruntak egin daitezke, aplikazioa erabat ireki beharrik gabe. Hainbat jakinarazpen badituzu, ekintza horiek ezkutatu egiten dira. ikusten duzunean, sakatu, **Erantzun, Artxibatu** eta antzeko ekintzak ikus ditzazun.

Ireki jakinarazpena bidali zuen aplikazioa

Irristatu beherantz pantailaren goiko aldetik, eta sakatu jakinarazpena, aplikazioa irekitzeko.

Jakinarazpenetatik abiatuta pantaila osoan aplikazioak ireki beharrean, modu librean ireki daitezen konfigura ditzakezu, aldi berean hainbat ataza egin ahal izateko. Informazio gehiago.

Blokeo-pantailan, sakatu bi aldiz jakinarazpena eta sartu zure PINa, eredua edo pasahitza pantaila desblokeatzeko eta aplikazioa irekitzeko.

Jakinarazpena atzeratzea

Irristatu astiro ezkerrera edo eskuinera. Ondoren, sakatu eta hautatu zenbat denboran atzeratu nahi dituzun jakinarazpenak. Jakinarazpenak atzeratu nahi badituzu, lehenbizi aktibatu atzeratzeko aukera.

Jakinarazpena baztertzea

Irristatu albo batera. Jakinarazpen batzuetarako, hala nola ahots-postontzikoetarako, ekintza bat egin behar **da, eta ezin dira baztertu.**

Jakinarazpen guztiak baztertzea

Joan jakinarazpenen amaierara eta sakatu **Ezabatu guztiak**.

Aplikazioek jakinarazpenak nola eta noiz bidaltzen dituzten kontrolatzea

Erabili Ez molestatu jakinarazpen guztiak isilarazteko, etetea nahi ez duzunean.

Aplikazio baten jakinarazpenak pertsonalizatzeko, luze sakatu jakinarazpen bat. Ondoren, hau egin dezakezu:

- Geldiarazi aplikazio horren jakinarazpen guztiak.
- Aldatu aplikazioaren jakinarazpenak **Isila**-tik **Lehenetsia**-ra.

Aurrez instalatutako aplikazioei buruz

Batzuetan, erlazionatutako aplikazioak (adibidez, Googleren edo zure operadorearen aplikazioak) karpeta batean biltzen dira.

Telefonoko aplikazioak

Baliteke aplikazio hauek aurrez instalatuta egotea telefonoan.

Bat edo beste ezabatu nahi duzu? Ezabatu edo ezgaitu. Beste aplikaziorik behar duzu? Ordainpeko eta doako aplikazioak deskarga ditzakezu.

Ikonoa	Aplikazioa	Deskribapena
	Ezarpenak	Telefonoaren ezarpenak pertsonalizatzea.
	Fitxategiak	Arakatu eta kudeatu gailuan edo SD txartelean gordetako fitxategiak eta karpetak.
	Laguntzailea	Erabili ahotsa telefonoa kontrolatzeko.
	Bilatu gailua	Galdutako telefonoa aurkitu eta babesten du.
	Kalkulagailua	Kalkuluak azkar egitea.
	Egutegia	Egin zure hurrengo gertaeren jarraipena, jaso gogorarazle automatikoak telefonoan eta koordinatu beste pertsona batzuekin egutegiak partekatuz.
	Chrome	Arakatu Internet. Sartu zure nabigatzaileko gogokoetara edozein gailutatik, eta sinkronizatu fitxak ordenagailuarekin edo Android gailuekin.
	Kontaktuak	Antolatu zure kontaktuak eta konektatu haiekin. Esleitu dei-tonuak pertsona batzuei.

Kamera	Egin argazkiak edo bideoak.
Dolby Atmos	Optimizatu eta doitu telefonoaren bozgorailuaren audioa, bai eta konektatuta dagoen edozein entzungailuren audioa ere.
Drive	Gorde eta sinkronizatu zure fitxategiak Googleko hodeian, eta, gero, sartu haietara Interneteko konexioa duen edozein lekutatik. Sortu eta partekatu kalkulu-orriak, dokumentuak eta aurkezpenak. Eskaneatu dokumentuak eta partekatu edo inprimatu.
Larrialdiak	Presta zaitez larrialdietarako, eta garaiz erreakzionatu, behar duzun laguntza eta informazioarekin azkar konektatuz.
Facebook	Konektatu lagunekin, familiakoekin eta komunitateekin. Partekatu eguneratzeak eta multimedia-edukia. Bilatu gertaerei, entretenimenduari eta negozioei buruzko informazioa.
	Egin zure osasunaren eta jarduera fisikoaren jarraipena.
Funts interaktiboak	Motorolaren pantaila interaktiboetara sartzeko aukera ematen du; hodeian daude, deskargatu arte telefonoan lekurik har ez dezaten.
Argazkiak	Kudeatu argazkiak eta kargatu automatikoki zure album pribatuan.
Gmail	Idatzi, bidali, irakurri eta bilatu posta elektronikoko mezuak telefonotik edo ordenagailutik.

Google	Bilatu web-orrian, kontsultatu eguneratzeak eta ezarri Googleren ezarpenak, pribatutasuna barne.
Google TV	Eskuratu filmak eta telebista-programak Play Store-n bidez berehala ikusteko. (Aukera hori ez dago erabilgarri herrialde guztietan.)
Grabagailua	Ahots-oharrak grabatzen ditu eta deien grabazioak berrikusten ditu.
Soinu-grabagailua	Musika eta beste audio-fitxategi batzuk partekatzeko.
Keep (oharrak)	Oharrak, zerrendak eta oroigarriak sortu eta partekatzeko.
Maps	Zure helmuga aurkitzeko eta tokiak ikusteko.
Meet	Egin bideo-deiak zure lagunekin iOS eta Android gailuen bidez.
Mezuak	Bidali eta jaso SMS/MMSak.
Motorolaren jakinarazpenak	Harpidetu edo utzi bertan behera Motorolaren komunikazioetarako harpidetza.

Play Store	Eskuratu telefonorako aplikazioak, liburuak, aldizkariak, musika eta filmak, eta sartu haietara ordenagailutik edo edozein Android gailutatik.
FM irratia	Entzun FM irratiak (lortu aplikazioa Play Storen, aurrez kargatuta ez badago). Informazio gehiago ikusteko, ireki aplikazioa eta sakatu ☰ > Laguntza.
Erlojua	Tenporizadoreez edo kronometroez gain, alarmak ezartzeko aukera ematen du.
Telefonoa	**Deiak egin.**
Voice Access	Ukipen-pantaila bat erabiltzeko arazoak badituzu, erabili ahots-komandoak aplikazioak irekitzeko, idazteko eta askoz gehiagorako.
YouTube	Sarean bideoak bilatu, ikusi eta kargatzeko.
YT Music	Erreproduzitu streaming bidez zure album, abesti eta zuzeneko emanaldi gogokoenak, eta jaso abesti berriei buruzko iradokizunak.

Aplikazioak erabiltzeko laguntza

1. Ireki aplikazioa.
2. Sakatu ☰ > ⋮.
3. Bilatu **Ayuda** edo **Ezarpenak** >**Ayuda**.

Aplikazioak instalatzea edo eguneratzea

Google Play Store-tik aplikazioak eskuratzea

Telefonoan aurrez instalatuta dauden aplikazioez gain, beste aplikazio batzuk ere deskarga ditzakezu.

Aplikazioak deskargatzeko:

1. Ireki **Play Store** aplikazioa.
2. Arakatu kategoriak edo bilatu.
3. Sakatu elementu bat deskribapena ikusteko, iritziak irakurtzeko eta deskargatzeko.

Aholkuak:

- Aplikazioa instalatzean haren ikonoa pantaila nagusian gehitu nahi ez baduzu, sakatu luze tarte huts bat pantaila nagusian, sakatu **Hasierako pantailaren ezarpenak > Home screen style > App tray** eta desaktibatu **Gehitu aplikazioen ikonoak hasierako pantailan**.
- Telefonoan instalatu dituzun Play Storeko aplikazioak ikusteko, sakatu zure profil-ikonoa eta > **Kudeatu aplikazioak eta gailua > Kudeatu** eta **Instalatutakoak** beharrean jarri **Instalatu gabekoak**, Googleko kontu berarekin beste gailuetan instalatu dituzun aplikazioak ikusteko.
- Nahi gabe egindako edo nahi ez dituzun erosketak egitea saihesteko, sakatu zure profil-ikonoa > **Ezarpenak> Autentifikazioa > Eskatu autentifikazioa erosketetarako**.

Aplikazioak beste iturri batzuetatik deskargatzea

Deskargatu aurretik, ikertu pixka bat: begiratu aplikazioaren puntuazioa eta irakurri iruzkin batzuk.

Aplikazioak deskargatzeko:

1. Ireki **Chrome** aplikazioa eta sartu dagokion gunera aplikazioa deskargatzeko.

   Ohartarazpen bat ikusten baduzu, sakatu **Bai, ados** jarraitzeko.

   Deskargatu ondoren, egoera-barran ikusiko duzu.
2. Sakatu deskarga-jakinarazpena aplikazioa instalatzeko, edo ireki **Fitxategiak** aplikazioa geroago instalatzeko.
3. Aplikazioa instalatzean, egiazta ezazu zer informazio eskuratu ahal izango duen. Ez baduzu nahi aplikazioak informazio hori eskuratzea, utzi bertan behera instalazioa. Adibidez, erosketaren zerrenda egiten duen aplikazio bat instalatu behar baduzu, aplikazioak ez luke zure kontaktuetara sartu behar.

Play Store-ko aplikazioen eguneratze automatikoa

Aplikazioak eguneratuz azken funtzioak eskuratuko dituzu, eta haien segurtasuna eta egonkortasuna hobetuko dira. Errendimendu hobea lortzeko, aplikazioak automatikoki eguneratzen dira.

Aplikazio batek telefonoan eskuratu nahi duen informazioa aldatzen badu, jakinarazpena jasoko duzu aplikazioa eskuz eguneratzeko. Baimen berriak berrikusi eta onartu beharko dituzu.

Aplikazioak automatikoki eguneratzen diren kontrolatzeko:

1. Ireki **Play Store** aplikazioa.
2. Sakatu zure profilaren ikonoa > **Ezarpenak**.
3. Sakatu **Sarearen hobespenak** > **Eguneratu aplikazioak automatikoki**
4. Hautatu aplikazioek hau egin behar duten:
   - Edozein saretan automatikoki eguneratu
   - Wifi-konexioarekin automatikoki eguneratu; zure telefonia mugikorreko datu-tarifan kargu gehigarriak izatea saihestuko duzu.

Play Store-ko aplikazioak eskuz eguneratzea

1. Ireki **Play Store** aplikazioa.
2. Sakatu zure profil-ikonoa > **Kudeatu aplikazioak eta gailua**
3. **Deskargatzeko zain daudenak** aukeran:
   - Sakatu **Eguneratu guztiak**
   - Aplikazio jakin bat eguneratzeko, sakatu **Berritasunak** eta, ondoren, sakatu **Eguneratu** haren izenaren ondoan.

> **Aholkua:** Egindako aldaketen laburpena irakurtzeko, sakatu aplikazioaren izena eguneratu aurretik.

Aplikazioak ezin badituzu eguneratu

«Zain» egoeran dauden aplikazioak badaude, eguneratu lehenik Chrome aplikazioa.

1. «Desgargatzeko zain daudenak pantailan, utzi bertan behera deskarga guztiak.
2. Irristatu **Chrome**rantz eta sakatu **Eguneratu**
3. Chrome eguneratu ondoren, ukitu.

   Aplikazioa normal eguneratuko da.

Play Store-ko eguneratze automatikoak desaktibatzea

Aplikazio jakin baten eguneratze automatikoak geldiarazteko:

1. Ireki **Play Store** aplikazioa.
2. Sakatu zure profil-ikonoa > **Kudeatu aplikazioak eta gailua**
3. Sakatu **Kudeatu**, eta, ondoren, sakatu aplikazioaren izena.
4. Sakatu eta desaktibatu Gaitu eguneratze automatikoa aukera.

Aplikazio guztien eguneratze automatikoak geldiarazteko:

1. Ireki **Play Store** aplikazioa.

2. Sakatu zure profilaren ikonoa > **Ezarpenak**.
3. Sakatu **Sarearen hobespenak > Eguneratu aplikazioak automatikoki > Ez eguneratu automatikoki aplikazioak**

Play Store-ko aplikazioak leheneratzea

Play Store-tik deskargatu duzun aplikazio bat desinstalatzen baduzu, edozein unetan instala dezakezu berriro. Ia erabiltzen ez duzun aplikazioak dauzkazu instalatuta, hala nola hegaldi-aplikazio bat? Ezabatu eta instalatu berriro erraz behar dituzunean

1. Ireki **Play Store** aplikazioa.
2. Sakatu zure profil-ikonoa > **Kudeatu aplikazioak eta gailua > Kudeatu**
3. Sakatu **Instalatutakoak** eta aldatu **Instalatu gabekoak** aukerara.
4. Aktibatu berriz instalatu behar duzun aplikazio bakoitzaren laukia, eta, ondoren, sakatu .
5. Googleko kontu bat baino gehiago badituzu, sakatu zure profil-ikonoa eta sakatu zure kontuaren ondoan dagoen ikurra. Hautatu beste kontua eta errepikatu prozesua kontu horretan deskargatutako aplikazioak leheneratzeko.

Aplikazioak kudeatzea edo ezabatzea

Aplikazioak antolatzea

Aplikazioak pantaila nagusian taldeka antolatzeko, erabili karpetak.

Aplikazioen baimenak kontrolatzea

Aplikazio bat erabiltzen duzun lehen aldian eta, batzuetan, instalatzen, eguneratzen edo aspaldian gutxi erabili duzunean, telefonoko datu eta funtzio jakin batzuetara sartzeko baimena emateko eskatuko zaizu.

Edozein unetan alda ditzakezu baimen horiek.

Aplikazio bakoitzaren baimenak konfiguratzeko:

1. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa, eta, gero, sakatu .
2. Sakatu **Baimenak**.
3. Aktibatu edo desaktibatu baimenak, beharraren arabera.

> **Aholkua:** aplikazioak baimenak nola erabiltzen dituen ikusteko, sakatu > **Baimen guztiak.**

Funtzio bakoitza berrikusi eta baimena duten aplikazioak doitu ditzakezu.

Arazoak modu seguruarekin konpontzea

Arazoak badituzu (aplikazioen hutsegiteak, ezusteko berrabiarazteak edo bateria bizkor bukatzea), baliteke aplikazio bat izatea horien sorburua. Erabili modu segurua telefonoa softwarearekin eta jatorrizko aplikazioekin bakarrik abiarazteko. Modu seguruan arazoak konpontzen badira, baliteke deskargatutako aplikazio batek eragindakoak izatea.

Modu seguruan berrabiarazteko:

1. Egin ekintza hauetako bat:
   - Luze sakatu pizteko eta bolumena igotzeko botoiak aldi berean.
   - Irristatu behera pantailaren goiko aldean, eta ukitu .
2. Luze sakatu **Itzali**. Ondoren, sakatu **Onartu** modu seguruan berrabiarazteko.

Berrabiarazten denean, **Modu segurua** ikusiko duzu pantaila nagusiaren behealdean, eta widgetak eta hirugarrenen aplikazioak desgaitu egingo dira.

3. Erabili telefonoa eta egiaztatu arazoa konpondu dela. Gogoratu ezingo duzula deskargatutako aplikaziorik erabili.

Arazoa konpontzen bada:

1. Modu segurutik irteteko, berrabiarazi telefonoa.
2. Desinstalatu berriki deskargatutako aplikazioak banan-banan. Aplikazio bakoitza ezabatu ondoren, berrabiarazi telefonoa. Begiratu aplikazio hori ezabatzeak arazoa konpondu duen.
3. Arazoa ematen zuen aplikazioa kendutakoan, egiaztatze-prozesuan ezabatutako gainerako aplikazioak **berrezar** ditzakezu.

Arazoa konpontzen ez bada, egin urrats hauek errendimendu-arazoak konpontzeko.

Modu segurutik irtetea

Luze sakatu pizteko botoiak eta bolumena igotzekoa, aldi berean, eta sakatu Berrezarri .

Bestela, eduki sakatuta pizteko botoia 30 segundoz edo telefonoa berrabiarazi arte.

Aplikazio baten datuak edo cachea ezabatzea

Ezabatu cachea eta datuak telefonoaren memorian lekua egiteko, errendimendua hobetzeko eta aplikazioekin eta web-orriekin dauden arazoak konpontzeko.

1. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa, eta, gero, sakatu .
2. Egin ekintza hauetako bat:
   - Aldi baterako fitxategiak ezabatuz tokia egiteko, sakatu **Memoria eta cachea** > **GARBITU CACHEA**. Denborarekin, cachea metatu egiten da, eta, beraz, komeni da berriz ere prozesu hau egitea arazoa berriro sortzen bada.
   - Arazoak izaten jarraitzen baduzu, ezabatu aplikazioan gordetako datu guztiak **Memoria eta cachea** > **KUDEATU TOKIA** sakatuta. Kontuz ibili, ekintza hau ezin da desegin.

Arazoak jarraitzen badu, berrezarri aplikazio guztien lehentasunak.

Aplikazioak geraraztea

Arazo baten arrazoia dela uste baduzu bakarrik behartu aplikazio bat gelditzera. Aplikazio bat erabat ixteko, atzeko planoko zerbitzuak barne:

1. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa, eta, gero, sakatu .
2. Sakatu **BEHARTU GELDITZERA**

Instalatu dituzun aplikazioak ezabatzea

Deskargatu dituzun aplikazioak soilik ezaba (desinstala) ditzakezu. Aurrez instalatutako aplikazio asko desgaitu egin daitezke, baina ezin dira ezabatu.

1. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa.
2. Egin ekintza hauetako bat:
   - Arrastatu ikonoa eta askatu hemen: . Ekintza horrek aplikazioa ezabatzen du eta lekua libratzen du biltegian.
   - Ezabatzeko aukerarik aurkitzen ez baduzu, luze sakatu aplikazioaren ikonoa, eta, ondoren, sakatu > **DESGAITU**

Inork instalatutako aplikazioak ezabatzea

Telefonoaren jabea bazara eta erabiltzaile edo gonbidatuekin partekatzen baduzu, instalatu dituzten aplikazioak desinstala ditzakezu. Haien aplikazioak aplikazio-ontzian edo pantaila nagusian agertzen ez diren arren, biltegiratze-leku erabilgarria murrizten dute.

1. Ireki **Ezarpenak** > **Aplikazioak > Aplikazio guztiak**

   Inork instalatutako aplikazioek **Ez dago instalatuta erabiltzaile honentzat** mezua erakusten dute.
2. Hautatu aplikazioaren izena.
3. Sakatu > **Desinstalatu erabiltzaile guztientzat**.

Googleren babeskopia egitea

Elementu hauen babeskopiak egin ditzakezu automatikoki zure Googleko kontuan:

- Aplikazioak eta aplikazioen datuak
- Deien historia
- Kontaktuak
- Telefonoaren ezarpenak (pasahitzak eta wifi- baimenak barne)
- Argazkiak eta bideoak (Googleko zure Argazkiak liburutegiarekin sinkronizatuak, ez Google Driverekin)
- SMS testu-mezuak (Mezuak erabiltzen badituzu)

Aholkua: Egin babeskopiak wifi-konexio baten bidez, datu mugikorrak erabiltzeagatik kargurik ez izateko.

Aplikazio guztiek ez dituzte babeskopiak automatikoki egiten. Aplikazioaren garatzailearekin kontsultatu beharko duzu.

Google Drive-n datuen babeskopia automatikoki egiteko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Sistema**
2. Sakatu **Babeskopiak**
3. Egiaztatu **Google One-ren Babeskopiak** aktibatuta dagoela . Beharrezkoa balitz, aktibatu aukera hori.
4. Googleko kontu bat baino gehiago badituzu, sakatu **Aukeratu kontu bat** kontu bat hautatzeko.

5. Jarraitu pantailako argibideei.

Babeskopia automatikorik egiten ez zaien beste fitxategi batzuen (fitxategi erantsiak edo deskargatuak) babeskopia egiteko:

1. Ireki **Drive** aplikazioa.
2. Sakatu .
3. Sakatu **Kargatu** eta, ondoren, hautatu kargatu behar dituzun fitxategiak edo karpeta.

Aplikazio kaltegarrietatik babestea

Telefonoan aplikazio kaltegarriak bilatzea

Play Protect zerbitzuak telefonoa babesten laguntzen du: aplikazioak automatikoki aztertzen ditu, transferitutako aplikazioak barne, kaltegarriak izan daitezkeenak bilatzeko (malwarea).

Play Protect zerbitzuak kaltegarria izan litekeen aplikazioren bat aurkitzen badu, aplikazioa eten egingo du eta desinstala dezazun abisatuko dizu.

Emaitzak ikusteko edo analisia errepikatzeko:

1. Ireki **Play Store** aplikazioa.
2. Sakatu zure profilaren ikonoa > **Play Protect**.
3. Egiaztatu azken analisiaren emaitzak edo sakatu **Bilatu**.

Play Protect lehenespenez aktibatuta dago.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Googleren laguntza.

Telefonoa motel badabil

Kaltegarriak izan daitekeen aplikaziorik ez dagoela ziurtatzeko telefonoa analizatu baduzu, baina, hala ere, oso mantso funtzionatzen badu, konpondu arazoa.

Interneten bilatzea

Edozein tokitatik bilaketak egitea

Ez duzu uneko aplikaziotik atera behar behar behar duzun informazioa bilatzeko. Erabili Googleren morroia edozein pantailatatik, bilaketa-emaitzak eta hurrengo ekintzarako aukerak ikusteko.

Bilatzeko:

1. Esan «OK, Google» edo «Hey, Google». (Ziurtatu hasierako esaldia konfiguratu duzula.) Irristatu hatza diagonalean, pantailaren beheko ertz batetik hasita.
2. Esan morroiari zer bilatu nahi duzun. Adibidez, bilatu jatetxe bat «Aurkitu [jatetxearen izena]» esanez.
3. Bilaketaren emaitzaren azpian, sakatu lotutako ekintzak egiteko aukerak, hala nola dei bat egitea, helbideak bilatzea, iritziak irakurtzea eta askoz gehiago.

Laguntza behar baduzu Googleren morroiarekin, kontsultatu Googleren laguntza-informazioa.

Widgetarekin bilatzea

Bilatzeko hitzak idaztea

1. Sakatu zuriunea Bilaketa widgetean.

2. Hasi bilatu beharreko terminoa idazten.

Idazten ari zaren heinean, terminoen iradokizunak agertuko dira.

3. Iradokizun bat bilatzeko, saka ezazu.

Ahots bidezko bilaketa erabiltzea

Sakatu Morroiari deitzeko. Informazio gehiago.

Kamera erabiltzea informazioa bilatzeko

Ukitu eta jarraitu telefonoan agertuko diren jarraibideei.

Kamera erabiltzea informazioa bilatzeko

Zure kamerarekin Google Lens erabil dezakezu:

- **Objektuei eta inguruneari buruzko informazioa bilatzea**: produktuak, erreferentzia-puntuak eta eraikinak, landareak eta animaliak, liburuak edo artelanak.
- **Barra-kodeak eta QR kodeak eskaneatzea**: lotutako informazioa bilatzea edo produktu bat erosteko webgune batera sartzea.
- **Testu erreala digitalizatzea**: kopiatu testua beste aplikazio batean itsasteko, itzuli testua, gorde bisita-txartel bateko informazioa kontaktuetan edo sortu egutegiko gertaerak poster eta karteletako datetatik abiatuta.

Google Lens erabiltzeko:

1. Pantaila nagusian, ukitu bilaketa-widgetean.

   Edo, bestela, ireki Kamera aplikazioa eta ukitu .
2. Enkoadratu hari buruzko informazioa lortu nahi duzun elementua eta sakatu .
3. Hautatu zer elementuri buruz lortu nahi duzun informazioa.

   Testua bada, sakatu ezazu hautatzeko, eta erabili gehiago hautatzeko.
4. Emaitzen zerrendan:

   - Egiaztatu emaitza eta, ondoren, sakatu hautapen bat, ikusteko edo iradokitako ekintza egiteko.
   - Bilaketa-eremua mugatzeko eta emaitza zehatzagoak lortzeko, doitu markoaren ertzak.

Egiten dituzun argazkietan eta pantaila-argazkietan ere erabil dezakezu Google Lens. Argazkiak aplikazioan, ireki argazkia edo pantaila-argazkia, eta, ondoren, sakatu .

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Googleren laguntza.

Gertuko establezimenduen telefono-zenbakiak bilatzea

Hurbileko establezimendu bat bilatzeko eta haren telefono-zenbakira deitzeko:

1. Ireki **Telefonoa** aplikazioa.
2. Sakatu edo .
3. Esan edo idatzi deitu nahi duzun lekuaren izena edo hari loturiko bilaketa-termino bat (adibidez, «jatetxea»).

   Inguruko bilaketa-emaitzen zerrenda bat ikusiko duzu.
4. Sakatu lekua, haren zenbakia markatzeko.

Ez badabil:

- Egiaztatu Kokapena aktibatuta dagoela.
- Sakatu > > **Ezarpenak**, sakatu Inguruko tokiak eta aktibatu aukera hau .

Googleren bilaketa-historia ezabatzea

Nola egin jakiteko, kontsultatu Googleren laguntza.

Google ez den beste bilaketa-motor bat erabiltzea

Google ez den beste bilaketa-motor bat erabiltzeko:

1. Bilatu «motor de búsqueda» Play Store-n, eta instalatu aplikazioetako bat.
2. Ireki aplikazio hori bilatzeko.

3. Hau ere egin dezakezu:
   - Kendu Googleren bilaketako widgeta pantaila nagusitik. Ezin baduzu ezabatu, erabili widgeta ez duen beste abiarazle bat pantaila nagusirako.
   - Instalatu nabigatzaile bat Chrome ordezkatzeko eta ezarri lehenetsitako nabigatzaile gisa.
   - Desaktibatu Googlek zuri buruzko informazioa biltzeko aukera.

Zure telefonoan bilatzea

Aplikazio bat aurkitzea

1. Irristatu hatza gorantz, pantaila nagusiaren beheko aldetik hasita.
2. Sakatu **Bilatu aplikazioetan**.
3. Idatzi aplikazioaren izena.
4. Aplikazioa telefonoan badago, sakatu ikonoa, irekitzeko.

   Aplikazioa telefonoan ez badago, sakatu **BILATU APLIKAZIO GEHIAGO** Play Store-ra joatera eta instalatu ukitu bakar batekin.

Ezarpen bat bilatzea

1. Joan **Ezarpenak** aukerara.
2. Ezarpenak ataleko goiko aldean, sakatu .
3. Idatzi bilatu beharreko terminoa eta sakatu teklatuan.
4. Bilaketa-emaitzen zerrendan, sakatu ezarpen bat, irekitzeko.

Zure telefono-zenbakia aurkitzea

1. Joan **Ezarpenak** aukerara.
2. Sakatu **Telefonoari buruz > Telefono-zenbakia**.

Argazkiak, bideoak eta fitxategiak aurkitzea

Telefonoan argazkiak edo bideoak aurkitzeko, erabili Fotos aplikazioa.

Deskargatutako fitxategiak aurkitzeko, erabili Files aplikazioa.

Interneten nabigatzea

Webguneak bisitatu eta markatzaileetan gehitzea

Telefonoa operadorearen sare mugikorrera konektatzen da edo wifi-konexio bat erabiltzen du Interneten sartzeko. Telefono mugikorraren datu-tarifan kargu gehigarririk ez izateko, erabili wifi-konexio bat.

1. Ireki **Chrome** aplikazioa.
2. Sartu webgune batera goiko aldeko barra sakatuz eta helbidea idatziz.
3. Web-orri batean:
   - Markatzaileetan gehitzeko, sakatu > .

     Edo sakatu > **Gehitu hasierako pantailan** pantaila nagusian lasterbidea gehitzeko.
   - Orri horretan testua bilatzeko, sakatu > **Bilatu orrian**.
   - Esteka bat irekitzeko, sakatu.
   - Esteka bat beste fitxa batean irekitzeko eta esteka bat kopiatu edo partekatzeko aukerak ikusteko, luze sakatu esteka.
   - Orria inprimatzeko, sakatu > **Compartir > Imprimatu.** Zure inprimagailua zerrendan ez badago, konfiguratu inprimatze-zerbitzua.
4. Aurreko orrira itzultzeko, sakatu .

Nabigazioari edo markatzaileen kudeaketari buruzko informazio gehiago lortzeko, ireki Chrome eta sakatu > **Laguntza eta iritziak**.

Nabigatzaileko fitxak ireki eta aldatzea

Chrome aplikazioan:

- Fitxaz aldatzeko, sakatu hautagailuaren ikonoa .
- Beste fitxa bat irekitzeko, sakatu hautagailuaren ikonoa eta, ondoren, sakatu .

Nabigazioaren historia ezabatzea

1. Ireki **Chrome** aplikazioa.
2. Sakatu > **Bilaketa-historia**
3. Sakatu **Garbitu arakatze-datuak**

   Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Googleren laguntza.

Zure bilaketa-historia ere berrikusi eta ezabatu dezakezu.

Nabigatzaile lehenetsia aldatzea

Beste nabigatzaile batzuk deskarga ditzakezu Play Store-tik. Horietako bat instalatu ondoren, zure nabigatzaile lehenetsi bihur dezakezu.

1. Ireki **Ezarpenak** > **Aplikazioak**
2. Sakatu **Aplikazio lehenetsiak** > **Arakatzaile-aplikazioa**
3. Hautatu erabili nahi duzun aplikazioa.

Testu-mezuei eta multimedia-mezuei buruz

Testu-mezuak (SMS)

SMS mezuek (mezu laburren zerbitzua) testua bakarrik dute. Testu-mezu batek 160 karaktere izan ditzake. Mugara iristen denean, kontagailu bat agertzen da. Karaktere gehiago idazten badituzu, mezua SMS mezu batean baino gehiagotan bidaltzen da.

SMS mezu bat pertsona bati baino gehiagori bidal diezaiekezu, eta erantzunak elkarrizketa bereizi gisa jasoko dituzte, ez taldeko elkarrizketa gisa (baldin eta zuk eta hartzaileek taldeko mezuak aktibatu ez badituzue).

SMS mezuak operadore gehienen testu-mezuen planetan sartuta daude, eta ez dute datu mugikorrik erabiltzen.

Multimedia-mezuak (MMS)

MMS mezuek (multimedia-mezularitzaren sistema) nahi adina testu izan dezakete, bai eta argazki bat, argazkien aurkezpen bat, bideo bat edo soinu-fitxategi bat ere.

MMS mezu bat bidal diezaiekezu testu hutsarekin edo testu eta multimedia-fitxategiekin hainbat pertsonari, taldeko mezuak erabiliz. Erantzunak taldeko elkarrizketa gisa bidaltzen zaizkio taldeko pertsona bakoitzari.

MMS mezuek datu mugikorrak erabiltzen dituzte, eta datu mugikorren plan bat edo erabileraren araberako ordainketa-sistema bat eskatzen dute.

Taldeko mezuak

Taldeko mezuei esker, hainbat pertsonak elkarrizketa bat izan dezakete elkarrekin. Hartzaileen erantzun guztiak guztiei bidaltzen zaizkie, taldeko elkarrizketa gisa.

Hainbat hartzaileri mezu bat bidali arren, jasotako mezu bakoitzeko kobratuko zaio. Taldeko mezuak:

- Hainbat hartzaileri bidalitako SMS mezuak MMS mezu bihurtzen dituzte jaso ditzaketen erabiltzaile guztientzat.
- MMS mezuetarako bakarrik daude eskuragarri.

Oharra: MMS mezurik jaso ezin duten hartzaileek SMS bat jasoko dute, eta multimedia-edukia erantsi bazaio, WiFi konexioaren bidez deskargatzeko esteka bat jasoko dute (operadoreak aukera hori eskaintzen duenean). Erantzunak bidaltzaileari bakarrik bidaltzen zaizkio, banakako elkarrizketa gisa.

Taldeko elkarrizketen erantzunik jaso nahi ez baduzu, taldeko mezuak desaktiba ditzakezu Mezuak aplikazioan.

Mezuak ikustea eta bidaltzea

Mezuak irakurri eta haiei erantzutea

Mezuak aplikazioaren bidez SMS/MMS bat jasotzen duzunean, agertuko da egoera-barran.

1. Irristatu egoera-barra beherantz, eta sakatu .
2. Mezuari erantzuteko, sartu erantzuna testu-koadroan eta sakatu .
3. Hau ere egin dezakezu:
   - Argazki edo fitxategi erantsi bat irekitzeko, sakatu.
   - Fitxategi erantsi bat gordetzeko, luze sakatu eta sakatu > Gorde.
   - Mezua garrantzitsua bada, nabarmendu geroago aurki dezazun.
   - Esleitu gabeko zenbaki baten mezua jasotzen baduzu, sortu kontaktu bat zenbaki horri izen bat esleitzeko.

Aholkuak:

- Mezuen jakinarazpenak kontrola ditzakezu, hala nola soinua aldatu edo aktibatu eta desaktibatu.
- Hartzaile bat baino gehiago dituzten SMS mezuak MMS bihurtzea nahi ez baduzu eta nahiago baduzu erantzunak zuk bakarrik jaso elkarrizketa beregainetan (harietan), taldeko mezuak desaktiba ditzakezu.
- Pribatutasuna babesteko, blokeo-pantailako jakinarazpenen eduki konfidentziala ezkuta dezakezu.

Mezuak bidaltzea

1. Ireki **Mezuak** aplikazioa.
2. Sakatu .
3. Idatzi hartzaileak eta, gero, idatzi mezua.
4. Hau ere egin dezakezu:
   - Fitxategi bat eransteko, sakatu edo .
   - Emotikono bat edo beste ikono batzuk gehitzeko, sakatu pantailako teklatuan.
   - Bi SIM txartel erabiltzen ari bazara eta SMS/MMSa bidaltzeko beste txartelera aldatu nahi baduzu, sakatu eta hautatu SIM txartela.
5. Sakatu .

Mezuak bidaltzeko aholkuak:

- Pantaila nagusitik ukitu bakarrarekin zure lagun minari testu-mezu bat bidaltzeko, gehitu eginkizunetarako lasterbide bat: Luze sakatu eta arrastatu aplikazio bat pantaila nagusira.
- Sarrerako deietarako SMS/MMS bidezko erantzuna aldatzeko, ireki Telefonoa aplikazioa eta sakatu > **Ezarpenak > Erantzun bizkorrak.**

Fitxategiak eranstea edo erantsitakoak gordetzea

Fitxategi bat eranstea

1. Mezuak aplikazioan, idatzi erantzun bat edo mezu berri bat.

2. Egin ekintza hauetako bat:
   - Luze sakatu ahots-mezu bat grabatzen hasteko. Amaitutakoan, altxa hatza.
   - Sakatu argazkia edo bideoa eransteko, edo berria egiteko. Sakatu bisorea pantaila osora zabaltzeko; selfie kamerara alda zaitezke, edo bideo bat grabatu.
   - Sakatu beste eranskin-mota batzuk gehitzeko (emojia, GIFa zure kokalekua edo kontaktuak).
3. Sakatu .

Fitxategiak eransteko arazoak badituzu, egiaztatu:

- Datu mugikorrak aktibatuta daudela.
- Zure datu-plana bateragarria dela MMSekin (multimedia-mezuak).

Jasotako fitxategi erantsiak gordetzea

Mezuan, luze sakatu fitxategi erantsia eta sakatu > **Gorde**. Fitxategi erantsia sakatuta ireki eta gordetzeko aukerak kontsulta ditzakezu.

Mezu baten argazkiak edo bideoak gordetzen ez badituzu, mezuan bakarrik gordeko dira. Beraz, mezua ezabatzen baduzu, harekin batera fitxategi erantsiak ezabatuko dira (ezabatu berri dituzun mezuak berreskuratzen saia zaitezke).

Gordetako fitxategi erantsiak bistaratzea

Argazki edo bideoetarako, ireki Fotos aplikazioa eta sakatu **Biblioteca**.

Beste fitxategi erantsi batzuetarako, ireki Archivo aplikazioa.

Zirriborroen kudeaketa

Testu-mezu baten erantzuna edo hartzaileak dituen mezu berri bat idazten hasten denean, mezua zirriborro gisa gordetzen da mezuen zerrendan, bidali edo ezabatu arte.

1. Ireki mezuen zerrenda eta sakatu **Zirriborroa** gisa markatutako elkarrizketa.
2. Egin ekintza hauetako bat:
   - Amaitu mezua idazten eta sakatu .
   - Ezabatu karaktereak testu-eremutik, zirriborroa ezabatzeko.

Mezu bat birbidaltzea

1. Ireki **Mezuak** aplikazioa.
2. Ireki elkarrizketa.
3. Luze sakatu mezua.
4. Sakatu > Birbidali.

Mezu baten testua kopiatzea

1. Ireki **Mezuak** aplikazioa.

2. Ireki elkarrizketa.
3. Luze sakatu mezua.
4. Sakatu .

Orain edozein tokitan itsats dezakezu; adibidez, idazten ari zaren mezu elektroniko batean.

Mezuak kudeatzea eta ezabatzea

Mezu garrantzitsuen jarraipena egitea

Mezuak aplikazioan mezu eta elkarrizketa garrantzitsuetara sartzeko:

Nabarmendu geroago bilatu nahi izango dituzun mezuak.

Ainguratu 3 elkarrizketa (gehienez), mezu-talde horiek goiko aldean edukitzeko aplikazioa irekitzean.

Elkarrizketak ainguratzea/ainguraketa kentzea

Elkarrizketa bat ainguratzeko:

1. Ireki Mezuak aplikazioa.
2. Elkarrizketa-zerrendan, sakatu elkarrizketa bat.
3. Sakatu .

Elkarrizketa bat desainguratzeko, luze sakatu eta ukitu .

Mezuak nabarmentzea

1. Ireki nabarmendu nahi duzun mezua duen elkarrizketa.
2. Luze sakatu mezua.
3. Sakatu .

Desegiteko, mezuan, sakatu .

Mezu nabarmenduak bilatzea

Elkarrizketa guztietako mezu nabarmenak aurkitzeko, joan elkarrizketen zerrendaren goiko aldera eta sakatu > **Izardunak**.

Elkarrizketa jakin batean nabarmendutako mezuak bilatzeko, ireki elkarrizketa eta sakatu > **Izardunak**.

Mezuak ezabatzea edo artxibatzea

Mezu bat ezabatzen duzunean, erantsitako argazkiak edo bideoak ere ezabatzen ditu. Fitxategi erantsiak gorde nahi badituzu, **gorde** itzazu mezua ezabatu aurretik.

- Mezu bakar bat ezabatzeko, ireki elkarrizketa eta luze sakatu mezua, eta, ondoren, sakatu .

- Elkarrizketa bateko mezu guztiak ezabatzeko edo artxibatzeko, luze sakatu elkarrizketa, eta, ondoren, sakatu ezabatzeko edo artxibatzeko.
- Elkarrizketa bat baino gehiago ezabatzeko edo gordetzeko, luze sakatu lehen elkarrizketa eta sakatu hautatu nahi dituzun gainerakoak. Ondoren, sakatu edo .
- Gordetako mezuak ikusteko, sakatu > **Artxibatutakoak**.

Testu-mezuen jakinarazpenak kontrolatzea

Mezuak aplikazioa erabiltzen baduzu:

1. Ireki **Mezuak** aplikazioa.
2. Sakatu > **Mezuak aplikazioaren ezarpenak**.
3. Bi SIM txartel badituzu, sakatu **Ezarpen orokorrak**.
4. Sakatu **Jakinarazpenak** eta:
   - Jakinarazpenak aktibatzea edo desaktibatzea.
   - Aldatu soinua
   - Gehitu edo kendu bibrazioa

Mezuetarako beste aplikazio bat erabiltzen baduzu:

1. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa.
2. Sakatu **Aplikazioaren informazioa > Jakinarazpenak**
3. Egin aldaketak.

Aholkua: Telefonoaren doikuntzetan, etenak saihestu ditzakezu SMS/MMS jakinarazpenak murriztuz, zehaztutako orduetan edo pertsona jakin batzuenak bakarrik.

Mezuen entrega-txostenak eskatzea

Ikusi hartzaileek entrega-txostenen eskaeraren bidez jasotzen ote dituzten mezuak.

1. Ireki **Mezuak** aplikazioa.
2. Sakatu > **Mezuak aplikazioaren ezarpenak**.
3. Bi SIM txartel badituzu, sakatu SIMa.

   SIM txartel bakarra baduzu, sakatu **Ezarpen aurreratuak**
4. Aktibatu **Jaso SMSen entrega-txostenak** .

Taldeko mezuak aktibatzea edo desaktibatzea

Taldeko mezuetan, elkarrizketako parte-hartzaileek hari bakarrean erantzun diezaiekete hartzaile guztiei. Hartzaile bat baino gehiago dituzten SMS mezuak MMS bihurtzea nahi ez baduzu eta nahiago baduzu erantzunak zuk bakarrik jaso harietan, desaktibatu taldeko mezuak.

Funtzio hori ez dago erabilgarri herrialde guztietan.

Taldeko mezuen konfigurazioa ezartzeko:

1. **Mezuak** aplikazioan, sakatu zure profilaren ikonoa > **Mezuak aplikazioaren ezarpenak**.
2. Bi SIM txartel badituzu, sakatu SIMa.

   SIM txartel bakarra baduzu, sakatu **Aurreratuak**.
3. Sakatu **Taldeko mezua**, eta hautatu aukera bat.

Mezularitza-aplikazio lehenetsia aldatzea

Mezularitzako beste aplikazio batzuk deskarga ditzakezu Play Store-tik. Horietako bat instalatu ondoren, zure mezularitzako aplikazio lehenetsi bihur dezakezu.

Testu-mezuak (SMS) eta multimedia-mezuak (MMS) bidaltzeko eta jasotzeko beste aplikazio bat aukeratzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Aplikazioak**.
2. Sakatu **Aplikazio lehenetsiak** > **SMSetarako aplikazioa**
3. Hautatu erabili nahi duzun aplikazioa.

Sarrerako deiei erantzuteko mezua aldatzea

Telefonoak jotzen duenean, arrasta dezakezu ikonorantz, deiari erantzun beharrean SMS/MMS bidez bidal ditzakezun erantzun azkarren zerrenda ikusteko.

Erantzun azkarrak editatzeko.:

1. Sakatu .
2. Sakatu > **Ezarpenak**.
3. Sakatu **Erantzun bizkorrak**
4. Sakatu erantzunetako bat, editatzeko.

SMSak edo MMSak ordenagailuan jasotzea

Gailuak lotzea

Telefonoan Mezuak aplikazioa erabiltzen baduzu, ordenagailutik ikusi eta bidal ditzakezu SMS/MMS mezuak.

Lotu ordenagailua eta Mezuak aplikazioa telefonotik QR kode bat eskaneatuta:

- QR kodea esklusiboa da ordenagailu horrentzat.
- Hainbat ekipo konfigura ditzakezu; beraz, banakako QR kodeak lortuko dituzu, baina bat bakarrik egongo da aktibo aldi berean.

Ordenagailu bat konfiguratzeko:

1. Egiaztatu telefonoa eta ordenagailua Internetera konektatuta daudela.
2. Telefonoan, ireki Mezuak aplikazioa eta sakatu > **Gailuak parekatzea**
3. Ordenagailuan, ikusi https://messages.google.com/web.
4. Jarraitu pantailako jarraibideei web-orriko QR kodea telefonoarekin eskaneatzeko.

   Lotu ondoren, azken elkarrizketak ordenagailuko nabigatzailean ikusi ahal izango dituzu.

Mezuak ikustea eta bidaltzea

Irakurri gabeko mezuak dituzunean, jakinarazpen gorri bat eta irakurri gabeko mezu-kopurua ikusiko dituzu ordenagailuaren nabigatzailearen fitxan.

Ordenagailutik mezuak bidaltzeko, telefonoak piztuta eta Internetera konektatuta egon behar du.

Telefonotik SMS/MMSak bidaltzeko operadorearen ohiko tarifak ordenagailutik bidalitako mezuei ere aplikatzen zaizkie.

Gailuak lotzeko saioa ixtea

Segurtasuna dela eta, lotutako ordenagailu batean 14 egunez mezuen aplikazioa erabiltzen ez baduzu, ekipo horretako saioa automatikoki itxiko da.

Ordenagailu partekatu edo publiko bat erabiltzen baduzu, itxi saioa amaitzen duzunean. Telefonotik saioa ixteko:

Ireki Mezuak aplikazioa.

2. Sakatu > Gailuak parekatzea
3. Egin ekintza hauetako bat:

   - Sakatu ordenagailu bakar baten ondoko ikonoa, ekipo horretako saioa ixteko.
   - Sakatu **Desvincular todos los dispositivos**.

Ordenagailutik saioa ixteko, mezuen zerrendaren goiko aldean, hautatu >**Desvincular**.

Mezu elektronikoak irakurri, bidali eta kudeatzea

Mezu elektronikoa irakurtzea

Posta elektronikoa konfiguratu baduzu, zure kontua telefonoarekin sinkronizatu ondoren posta elektronikoko mezuak jasotzen has zaitezke. Mezu elektroniko baten jakinarazpena jasotzen duzunean, agertuko da egoera-barran.

1. Jakinarazpen batetik mezu elektroniko bat irekitzeko, irristatu egoera-barra beherantz eta sakatu jakinarazpena:
   - Posta elektronikoko jakinarazpen bakar batek zuzenean irekitzen du mezua.
   - Posta elektronikoko jakinarazpen anizkoitz batek posta-zerrenda irekitzen du; sakatu mezu elektroniko bat irekitzeko.

   Jakinarazpena baztertu eta posta elektronikoa geroago ikusi nahi baduzu, ireki **Gmail** aplikazioa.
2. Egin ekintza hauetako edozein:
   - Beste karpeta batzuk ikusteko, sakatu posta elektronikoko zerrendan.
   - Erantsitako fitxategiak mezu elektronikoaren amaieran agertzen dira. Ikusi edo gorde egin ditzakezu.
   - Mezu elektronikoak telefonotik inprima ditzakezu.

Mezu elektroniko bati erantzutea edo birbidaltzea

1. Sakatu bidaltzaileari erantzuteko, joan mezu elektronikoaren amaierara eta sakatu hartzaile guztiei erantzuteko edo sakatu aurrera egiteko.
2. Idatzi mezua.
3. Mezu elektronikoan norbait kopiatzeko, **Hartzailea** eremuan, sakatu .
4. Sakatu .

Mezu elektroniko bat bidaltzea

1. Ireki **Gmail** aplikazioa eta sakatu **Idatzi**

   Bestela, luze sakatu eta, ondoren, sakatu Idatzi (mezu elektroniko asko bidaltzen badituzu, gehitu eginkizunetarako lasterbidea); arrastatu Idatzi Hasierako pantailara).
2. Idatzi hartzailea eta mezua.
3. Mezu elektronikoan norbait kopiatzeko, **Hartzailea** eremuan, sakatu .
4. Sakatu .

Mezu elektroniko bati fitxategiak eranstea

1. Idazten ari zaren mezu elektronikoan, sakatu > **Erantsi fitxategia** telefonoan edo Drive-n gordetako fitxategi bat eransteko.

2. Nabigatu fitxategiraino eta sakatu, mezu elektronikoari eransteko. Erantsitako fitxategia mezu elektronikoaren amaieran agertuko da.

Nola aurkitu mezu elektronikoak

Gmail aplikazioa irekitzean, **Sarrera** ontzia ikusiko duzu.

Bidalitako mezu elektronikoak, zirriborroak, berriki ezabatutako mezu elektronikoak eta beste kategoria batzuk ikusteko, sakatu ☰.

Mezu elektroniko bat bilatzeko, sartu terminoak, hala nola gaia edo bidaltzailearen izena, posta elektronikoko zerrendaren goiko aldean.

Mezu elektroniko bat ezabatzea

Irekitako mezu elektroniko bat ezabatzeko, sakatu 🗑.

Mezu bat baino gehiago ezabatzeko, ikusi zure posta-zerrenda, luze sakatu lehen mezua, eta, gero, beste batzuk, hautatzeko. Azkenik, sakatu 🗑.

Mezu elektroniko kopuru handia ezabatzeko, hasi saioa zure ordenagailuan posta elektronikoko kontuan, eta kontsultatu hornitzailearen laguntza informazio gehiago lortzeko.

Aholkuak:

- Gorde dituzun mezu elektronikoetako fitxategi erantsiak ezabatzeko, erabili Files aplikazioa.
- Posta elektronikoko kontuak ere ezaba ditzakezu telefonotik.

Informazio gehiago

Gmail-ekin laguntza behar baduzu, kontsultatu Googleren laguntza-informazioa.

Beste hornitzaile batzuen posta elektronikoa kudeatzen laguntzeko, hasi saioa zure ordenagailutik posta elektronikoko kontuan eta bilatu hornitzailearen jarraibideak.

Mezu elektronikoei erantsitako fitxategiak ikustea

Fitxategi erantsiak ikustea

Erantsitako fitxategiak mezu elektronikoaren amaieran agertzen dira.

Fitxategi erantsia irekitzeko edo erreproduzitzeko, sakatu.

Erantsitako fitxategi-mota ezin duzula ireki dioen mezu bat agertzen bada, fitxategi-mota gehienek erabil dezakezun doako bisorea dute. Play Storen, bilatu fitxategi-mota eta, ondoren, hautatu deskargatu aplikazio bat.

Mezu elektronikoei erantsitako fitxategiak gordetzea

Mezu elektronikoan, sakatu ⬇ fitxategi erantsia deskargatzeko eta telefonoan gordetzeko, edo sakatu △ Drive-n gordetzeko.

Fitxategi erantsiak geroago ikusteko, ireki **Files** aplikazioa (joan Download-era) edo **Drive** aplikazioa.

Mezu elektronikoetako gordetako fitxategi erantsiak ezabatzea

1. Ireki **Files** aplikazioa.
2. Sakatu **Arakatu > Deskargak**
3. Egin ekintza hauetako bat:
   - Elementu bat hautatzeko, luze sakatu.
   - Elementu bat baino gehiago hautatzeko, luze sakatu bat, eta, ondoren, sakatu beste elementuak hautatzeko.
4. Sakatu .

Fitxategi erantsien aurrebista eragoztea

Erantsitako argazki eta bideoak miniatura gisa agertuko dira eta aurrebista bat izango dute. Fitxategia ireki arte aurrebista baten ordez miniatura generiko bat ikusteko:

1. Ireki **Gmail** aplikazioa.
2. Sakatu > **Ezarpenak** eta, ondoren, sakatu kontuaren izena.
3. Sakatu **Irudiak** > **Galdetu kanpoko irudiak bistaratu aurretik.**

Pantaila nagusian sarrera-ontzien aurrebista ikustea

Sarrera-ontzien aurrebista ikusteko, mezu elektronikoak irekitzeko edo mezu elektroniko bat bizkor idazten hasteko, gehitu Gmail-eko widgeta pantaila nagusiari.

Widgetarekin, hau egin dezakezu:

- **Mezu bat ireki**. Sakatu mezua.
- **Mezu bat idatzi.** Sakatu .
- **Mezu gehiago ikusi.** Joan behera zerrendan.
- **Ireki aplikazioa.** Sakatu karpetaren izena widgetaren goiko aldean.

Posta elektronikoko sinadura gehitzea

Bidaltzen dituzun mezu elektronikoen amaieran sinadura automatikoki gehitzeko:

1. Ireki **Gmail** aplikazioa.
2. Sakatu > **Ezarpenak**.
3. Hautatu kontua.

4. Sakatu **Mugikorreko sinadura**, eta editatu mezuaren amaieran agertzea nahi duzun testua.

Posta elektronikoko jakinarazpenak kontrolatzea

Mezu elektroniko bat jasotzean jakinarazpenak bistaratzen diren kontrola dezakezu.

1. Luze sakatu .
2. Sakatu > **Jakinarazpenak**
3. Konfiguratu **jakinarazpenen ezarpenak**.

Aholkua: Zehaztutako orduetan jakinarazpenak automatikoki isilarazteko, erabili Ez molestatzeko modua.

Egutegiari buruz

Egin zure hurrengo gertaeren jarraipena eta jaso gogorarazle automatikoak telefonoan egutegiarekin. Googleren egutegien funtzioari esker, gertaera guztiak leku babestu eta sinkronizatu bakar batean gorde ditzakezu. Toki horretara Interneteko sarbidea duen edozein gailu edo ordenagailutatik sartu ahal izango zara kontuan saioa hasten duzunean.

Aukera hauek dituzu:

- Dauden gertaerak berrikusi.
- Gertaera berriak sortu.
- Gertaeren jakinarazpenak kontrolatu.

Egutegiak automatikoki sor ditzake gertaera berriak, sartzen diren Gmail-eko mezuen arabera. Adibidez, jatetxe batean erreserba egiten baduzu edo hegaldi bat erosten baduzu, gertaera horiek automatikoki erakutsiko dira egutegian, zuk gehitu behar izan gabe.

Googleko kontuan hainbat egutegi sortu badituzu edo telefonoan kontu bat baino gehiago badituzu, telefonoarekin zer gertaera sinkronizatzen diren kontrola dezakezu.

Egutegiko gertaerak bilatzea

Egutegiko gertaerak irekitzea

31 agertuko da egoera-barran, hurrengo gertaeren berri emateko. Nahikoa da egoera-barra beherantz irristatzea eta jakinarazpena sakatzea, egutegian gertaeraren xehetasunak ikusteko.

Hurrengo gertaeren zerrenda ikusteko, ireki Egutegia aplikazioa.

Aholkua: Pantaila nagusitik hurrengo gertaeren deskribapen orokorra ikusteko, gehitu egutegiaren widget bat.

Egutegia kontsultatzea

Egutegia hilabetearen formatuan kontsultatzeko:

1. Sakatu hilabetearen izena.
2. Sakatu data bat edo jo data horretara gertaerak kontsultatzeko.

Ikuspegia aldatzeko:

1. Egutegian, sakatu ☰.
2. Sakatu **Agenda**, **Eguna**, **3 egun**, **Astea** edo **Hilabetea**. Ikuspegi hori lehenetsia izango da aldatzen duzun arte.

Ikuspegi horietatik, hau egin dezakezu:

- **Gertaera baten xehetasunak kontsultatu edo editatu.** Gertaera sakatu irekitzeko, eta ✎ sakatu editatzeko.
- **Gertaera berriak gehitu**. Sakatu +.

- **Egutegian bilatu.** Sakatu .

Gertaerak sortu eta kudeatzea

Egutegiko gertaerak sortzea

Gertaera bat sortuko duzunez, besteak beste, gertaeretako izenburu, kokapen eta pertsonetarako iradokizunak ikusi ahal izango dituzu. Kasu batzuetan, iradokizun horiek pertsonalizatu egiten dira Googleko kontuari eta aurretik sortutako gertaerei lotutako informazioaren arabera.

1. Ireki **Calendar** aplikazioa, eta sakatu > **Zeregina**
2. Kontu bat baino gehiago badituzu, hautatu zein kontutan gorde nahi dituzun.
3. Sartu hasiera-ordua eta beste xehetasun batzuk.
4. Zure egoera-barrara gogorarazle bat bidaltzea nahi baduzu, sakatu **Gehitu jakinarazpena** eta hautatu zenbat denbora lehenago jaso nahi duzun gertaeraren abisua.
5. Sakatu **Guardar**.

Egutegiko gertaerak editatzea edo ezabatzea

1. Sakatu gertaera bat irekitzeko.
2. Egin ekintza hauetako bat:
   - Editatzeko, sakatu .
   - Ezabatzeko, sakatu > **Ezabatu**.

Zer gertaera bistaratzen diren kontrolatzea

Beti ikusgai egoterik behar ez duzun Googleko kontu bateko egutegiko gertaerak aldi baterako ezkutatzeko:

1. Ireki Calendar aplikazioa eta sakatu .
2. Kontuaren izenaren azpian, sakatu **Zeregina**. Kontu horretarako hainbat egutegi badituzu, sakatu egutegi bakoitzaren izena gertaerak ezkutatzeko.

Aholkua: Gertaerak ezkutatzean, egutegiak Googleko kontuarekin sinkronizatzen jarraitzen du. Kontuko egutegia automatikoki sinkroniza ez dadin, pantaila nagusitik, ireki **Ezarpenak** > **Pasahitzak eta kontuak**

Gmail-en automatikoki sortutako eginkizunak kanpoan uzteko (hegaldiak edo jatetxeetako erreserbak, adibidez):

1. Ireki Calendar aplikazioa.
2. Sakatu > **Ezarpenak** > **Gmail-eko gertaerak**.
3. Kontuaren izenaren azpian, desaktibatu **Erakutsi Gamil-eko gertaerak** .

Informazio gehiago ikusteko, ireki Calendar eta sakatu > **Laguntza eta iritziak**.

Egutegiko gertaeren jakinarazpenak kontrolatzea

1. Luze sakatu aplikazioaren ikonoa .
2. Sakatu > Jakinarazpenak
3. Konfiguratu **jakinarazpenen ezarpenak**.

Jakinarazpenerako tonu bat esleitu baduzu baina telefonoa isilarazi baduzu, telefonoak ez du tonua joko.

Aholkua: Zehaztutako orduetan jakinarazpenak automatikoki isilarazteko, erabili No molestar.

Alarmak ezartzea

Alarma ukipenez ezartzea

1. Ireki **Erlojua** aplikazioa.
2. Ezarri alarmak:
   - Beste alarma bat sortzeko, sakatu .
   - Lehendik dagoen alarma bat erabiltzeko, aktiba ezazu.
   - Alarmaren soinua, programazioa edo etiketa aldatzeko, sakatu .
3. Alarmaren ezarpenak kontrolatzeko, hala nola alarmaren bolumena eta errepikatze-tartea, sakatu > **Ezarpenak**.

Aholkua: Telefonoak piztuta egon behar du alarma aktibatzeko.

Alarma ahotsez ezartzea

1. Voice Match konfiguratu baduzu, esan «Hey Google» edo sakatu Googleren bilaketa-widgetean.

2. Hitz egiteko eskatzen zaizunean, esan agindua. Adibidez: «jarri alarma 19:45ean, etiketa, garbigailua jarri» edo «esnatu bihar 7:00etan».

   Telefonoak alarma ezartzen du eta berresteko eskatzen du.

Alarma bat konfiguratu denean

bistaratuko da egoera-barran.

Doitzeko, ireki ezarpen bizkorrak bi aldiz beherantz irristatuz, irristatu eskuinera eta sakatu .

Alarma bat ezabatzea

1. Ireki **Erlojua** aplikazioa.
2. Sakatu .
3. Sakatu > .

Tenporizadorea eta kronometroa erabiltzea

Tenporizadoreak erabiltzea

Atzerantz kontatzeko zenbait denbora ezar ditzakezu, etiketekin, segimendua egiteko:

1. Erlojua aplikazioan, sakatu Temporizadorea fitxan.
2. Idatzi atzerako kontaketaren denbora.
3. Sakatu .
4. Egin ekintza hauetako edozein:
   - Atzerako kontaketa pausarazteko, sakatu .
   - Tenporizadoreari etiketa bat gehitzeko, sakatu egungo izena eta aldatu (erabilgarria da tenporizadore bat baino gehiago erabiltzen direnean).
   - Tenporizadoreari minutu bat gehitzeko, sakatu **+ 1:00**.
   - Kontagailua jatorrizko orduan berrezartzeko, sakatu .
   - Tenporizadore bat gehitzeko, sakatu .
   - Tenporizadorea ezabatzeko, sakatu .
   - Tenporizadorearen soinua aldatzeko, sakatu > E**zarpenak > Temporizadorearen soinua**
   - Aplikazio hau ixten baduzu, bizkor itzul zaitezke bertara egoera-barra hatz batekin beherantz mugituz, kronometroaren jakinarazpena eta geratzen den denbora ikusteko. Kronometroa irekitzeko, sakatu jakinarazpena.

Aholkua: Tenporizadoreak maiz erabiltzen badituzu, gehitu eginkizunetarako lasterbide bat. Luze sakatu , eta, ondoren, arrastatu **Sortu tenpori...** pantaila nagusira.

Kronometroa erabiltzea

Erregistratu zure denbora.

1. Erlojuaren aplikazioan, sakatu Kronometroa fitxan.
2. Sakatu .
3. Egin ekintza hauetako edozein:
   - Kronometroa pausararazteko, sakatu .
   - Kronometroa martxan dagoela birak (edo zenbait denbora) erregistratzeko, sakatu .
   - Kontagailua jatorrizko orduan berrezartzeko, sakatu .
   - Aplikazio hau ixten baduzu, bizkor itzul zaitezke bertara egoera-barra hatz batekin beherantz mugituz eta kontrola sakatuz. Kronometroa irekitzeko, sakatu jakinarazpena.

Aholkua: Kronometroak maiz erabiltzen badituzu, sortu eginkizunetarako lasterbide bat. Luze sakatu , eta, ondoren, arrastatu **Abiarazi** pantaila nagusira.

Data eta ordua ezartzea

Orduaren formatua aldatzea

1. Sakatu **Ezarpenak** > **Sistema** > **Data eta ordua**
2. Ordua nola erakusten den aldatzeko:
   - 24 orduko formatua erabiltzeko, desaktibatu **Erabili lurraldeko ezarpen lehenetsiak** eta aktibatu **Erabili 24 orduko formatua**
   - Uneko kokalekuko orduaren formatua erabiltzeko, aktibatu **Erabili lurraldeko ezarpen lehenetsiak**.
   - 12 orduko formatua erabiltzeko, desaktibatu **Erabili lurraldeko ezarpen lehenetsiak**. eta **Erabili 24 orduko formatua** .

Data eta ordua automatikoki ezartzea

1. Sakatu **Ezarpenak** > **Sistema** > **Data eta ordua**
2. Aktibatu **Ezarri-ordu-zona automatikoki** eta **Erabili kokapen ordu-zona ezartzeko (** **)**

Telefonoa automatikoki sinkronizatzen da tokiko orduarekin sare mugikorraren bidez. Tokiko ordua alarmetarako erabiltzen da, eta blokeatze-pantailan eta beste pantaila batzuetan bistaratzen da.

Data eta ordua eskuz ezartzea

1. Sakatu **Ezarpenak** > **Sistema** > **Data eta ordua**
2. Desaktibatu **Ezarri-ordu-zona (** **)**
3. Zuzenketak egiteko, sakatu **Data eta ordua**

Ordu-eremua aldatzea

1. Sakatu **Ezarpenak** > **Sistema** > **Data eta ordua**
2. Desaktibatu **Ezarri-ordu-zona automatikoki**
3. Sakatu **Ordu-zona** Ondoren, aukeratu ordu-eremu bat (uneko orduari dagokiona).

Ordu-eremu bat baino gehiago erakutsi

Erlojuaren aplikazioan hainbat ordu-eremu ikus ditzakezu beste hiri batzuetako lagunekin eta lankideekin planak koordinatzeko, edo bidaiatzen ari zarenean familiarekin harremanetan egoteko.

1. Ireki **Erlojua** aplikazioa eta sakatu .
2. Ordu-eremuak gehitzeko, sakatu eta hautatu aztertu nahi duzun ordu-eremuko hiriak.

Etxeko ordu-eremua erakustea

Bidaiatzean, etxeko ordu-eremua ikus dezakezu Erlojua aplikazioan.

1. Ireki **Erlojua** eta sakatu .
2. Sakatu > **Ezarpenak**.
3. Aktibatu **Etxeko erloju automatikoa**

Kontaktuak eranstea

Kontaktuak automatikoki gehitzea

Telefonoari kontu bat eransten zaionean, kontu horretako kontaktuak automatikoki egongo dira erabilgarri telefonoan.

Kontaktuak aplikazioarekin kontaktu bat eranstea

1. Ireki Kontaktuak aplikazioa.
2. Sakatu .
3. Kontu bat baino gehiago erabiltzen baduzu, kontaktu berriarekin sinkronizatuko den kontua goiko aldean agertuko da. Kontuz aldatzeko, sakatu .
4. Sakatu testu-koadro bat, izena eta xehetasunak sartzeko. Bete nahi adina informazio.

Aholkuak:

- Argazki bat eransteko, sakatu . Aukeratu gordetako argazki bat edo atera argazkia eta moztu.
- Dei-tonu pertsonalizatu bat eslei diezaiekezu kontaktu horren deiei.
- Telefonoan kontu bat baino gehiago badituzu eta kontaktu berrientzako aurrez zehaztutako kontua aldatu nahi baduzu, ireki Kontaktuak eta sakatu zure profilaren ikonoa > > **Kontaktu berriak gordetzeko kontu lehenetsia.**

5. Sakatu **Gorde** .

SMS/MMS batetik kontaktuak gehitzea

Esleitu gabeko zenbaki batetik SMS/MMS bat jasotzen duzunean, kontaktu berria sor dezakezu, edo lehendik dagoen kontaktu bati beste zenbaki bat gehitu.

1. Ireki Mezuak aplikazioa.
2. Mezuen zerrendan, luze sakatu zenbakia, eta, ondoren, sakatu > **Gehitu kontaktua**.
3. Sakatu .
4. Egin ekintza hauetako bat:
   - Zenbaki hori lehendik dagoen kontaktu bati gehitzeko, idatzi kontaktuaren izena bilaketa-eremuan, eta hautatu.
   - Kontaktu berria sortzeko, sakatu **Sortu kontaktu bat** eta erantsi kontaktuaren xehetasunak.
5. Sakatu edo **Gorde**.

Kontaktuak eransteko modu gehiago

- Duela gutxi egindako dei bat kontaktu gisa gordetzea.

- Norbaitek bisita-txartel bat bidaltzea.

Kontaktuak editatzea edo ezabatzea

Kontaktuak editatzea

Kontaktu bat sortu ondoren, izena, argazkia eta harremanetarako bestelako informazioa alda ditzakezu.

1. Ireki **Kontaktuak** aplikazioa.
2. Sakatu pertsonaren izena.
3. Egin beharrezko doikuntzak:
   - Dei-tonu pertsonalizatu bat esleitzeko, sakatu > **Ezarri tonua**.
   - Kontaktuaren informazioa editatzeko, sakatu eta, ondoren, sakatu eremu bat aldaketak egiteko, sakatu argazkia aldatzeko, edo sakatu > **Baztertu** aldaketak desegiteko.

Kontaktuak bateratzea

Pertsona berarentzat bi kontaktu badituzu, informazioa (mezu elektroniko eta telefono-zenbaki guztiak barne) zerrenda bakarrean bateratu dezakezu.

Kontaktuak automatikoki fusionatzea

1. Ireki **Kontaktuak** aplikazioa.
2. Sakatu .
3. Sakatu .
4. Sakatu **Bateratu eta garbitu**.

   Aukera hau ikusten ez baduzu, kontaktuak ezin dira automatikoki fusionatu.
5. Hautatu bikoiztutako bat edo guztiak konbinatzeko aukerak.

Kontaktuak eskuz fusionatzea

1. Ireki **Kontaktuak** aplikazioa.
2. Luze sakatu bateratu nahi duzun kontaktu nagusia.

   Lehenespenez, kontaktuaren izena erabiltzen da zerrenda berrirako.
3. Sakatu bigarren kontaktua.
4. Sakatu > **Bateratu**.

Aholkua: Bateratzeko kontaktu nagusiaren izena edita dezakezu, edo kontaktuaren beste informazio bat ezabatu edo alda dezakezu, behar izanez gero.

Kontaktuak ezabatzea

Behin musika igotakoan, entzun ahal izango duzu:

- Ordenagailuan, music.youtube.com-en sartuta
- Telefonoan, YT Music aplikazioarekin

Argazkiak eta bideoak kargatzea

Babeskopia automatikoak

1. Ireki **Fotos**.
2. Sakatu zure profileko ikonoa > **Aktibatu copia de seguridad**.

   Edozein unetan alda ditzakezu segurtasun-kopiaren doikuntzak.

Babeskopien ezarpenak konfiguratzea

Babeskopia automatikoen ezarpenak konfiguratzeko:

1. Ireki **Fotos**.
2. Sakatu profilaren ikonoa > **Ajustes de Fotos > Copia de seguridad**.
3. Egin beharrezko doikuntzak:
   - Kargatzeetan jatorrizko tamaina edo kalitate handikoa hautatzeko, sakatu **Calidad de copia de seguridad**.
   - Zure Download-en, Screenshots-en eta hirugarrenen aplikazioetako karpetetan dauden elementuen babeskopiak egiteko, sakatu **Haz copias de seguridad de las carpetas del dispositivo**.
   - Mugikor-sarearen bidez elementuen segurtasun kopia-bat egiteko, sakatu **Uso de datos móviles**, eta, gero, doitu argazkien, bideoen eta ibiltaritzaren ezarpenak.

Eskuzko babeskopiak

1. Ireki **Fotos**.
2. Ireki argazkia edo bideoa.
3. Argazkiak edo bideoan, sakatu . (Mugitu gorantz, ikusten ez baduzu).

Argazki eta bideoen babeskopiak bistaratzea

Telefonoan, ireki aplikazio **Fotos** aplikazioa.

Ordenagailutik, hasi saioa hemen: photos.google.com.

Kudeatu zure biltegia

1. Ireki **Fotos** aplikazioa.

2. Sakatu zure profilaren ikonoa > **Ajustes de Fotos > Copia de seguridad**.
3. Sakatu **Gestionar almacenamiento**.
4. Kontsultatu erabili dituzun GBak, eta zenbat denboran agortuko duzun geratzen dena. Gehiago behar baduzu, jarraitu pantailako jarraibideei biltegia handitzeko.
5. Gomendatutako argazkiak ikusteko eta ezabatzeko:
   a. **Revisar y eliminar** aukeran, sakatu kategoria bat (adibidez, argazki eta bideo handiak, argazki lausoak edo pantaila-argazkiak).
   b. Sakatu luze elementu bat ezabatzeko, eta sakatu beste batzuk horiek sartzeko.
   c. Sakatu .

Laguntza gehiago

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Googleren laguntza.

Dokumentuak eskaneatzea eta kopiak sortzea

Dokumentuak Driven eskaneatzea

Dokumentu garrantzitsuak telefonoarekin eskaneatu, eta Google Driven gorde ditzakezu PDF gisa.

1. Ireki **Drive** aplikazioa.
2. Sakatu > .
3. Lerrokatu telefonoa eskaneatu nahi duzun dokumentuarekin, eta sakatu .
4. Sakatu .
5. Hau ere egin dezakezu:
   - Sakatu ebakitzeko.
   - Sakatu irudia hobetzeko aukerak hautatzeko.
   - Sakatu irudia biratzeko.
   - Sakatu eskanerra leheneratzeko (eskaneatu eta gorde gabeko dokumentuak ezabatu egingo dira).
   - Sakatu PDFaren izena aldatzeko eta irudia eta konfigurazioa doitzeko.
6. Eskaneatzen amaitutakoan, sakatu **Hurrengoa**.
7. Nahi baduzu, aldatu Driveko dokumentuaren eta karpetaren izena, eta, gero, sakatu **Gorde**.

Driven, ireki fitxategia eta sakatu eskaneatutakoa partekatzeko edo inprimatzeko.

Nola eskaneatu eta gorde karpetetan pantaila nagusitik

Gehitu Drive Scan-eko widgetak zure pantaila nagusian, eskaneatzeko eta karpeta berrietan edo hautatuetan gordetzeko. Widget bakoitzak karpeta bakarrean gordetzen ditu Driven. Hori dela eta, gehitu hainbat widget, behar duzun karpeta bakoitzeko bat (ordainagiriak, fakturak, errezetak, etab.).

Kokapen-zerbitzuak erabiltzea

Kokapenari buruzko informazioari buruz

Zure kokapena zehazteko telefonoak GPSa, wifi-sareak eta sentsoreak erabiltzeko baimena eman dezakezu. Zure baimena duten aplikazioek informazio hori erabil dezakete kokapenean oinarritutako zerbitzuak eskaintzeko; adibidez, hotel batean erregistratzeko, trafikoaren egoera ikusteko, inguruan dauden jatetxeak bilatzeko edo argazkiak atera diren kokapenarekin etiketatzeko.

Kokapena aktibatzea edo desaktibatzea

Telefonoaren kokapenari buruzko zer informazio erabil daitekeen kontrolatzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Kokapena**.
2. Aktibatu edo desaktibatu **Kokapena erabili** aukera, kokapenari buruzko informazioa erabiltzeko baimena emateko edo ukatzeko.

   Desaktibatuta dagoenean, telefonoak ezingo du kokapen zehatza zehaztu, ezta aplikazioekin partekatu ere. Hala ere, hainbat funtzio eta aplikazio erabilgarri ere desaktibatu egingo dira.

Aholkua: Ezarpen bizkorretan kokapen-ikono bat gehitzeko, ireki ezarpen bizkorrak. Sakatu . Ondoren, irristatu kokapenaren mosaikoa nahi duzun tokira.

Kokapena erabiltzen duten aplikazioak berrikustea

Azkenaldian zure kokapena zein aplikaziok erabili duten ikusteko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Kokapena** > **Aplikazioen kokapen-baimenak**.

   Denbora guztian edo denbora pixka batean onartzen diren aplikazioak edo baimenik ez dutenak multzoka ikus ditzakezu.
2. Baimenak aldatzeko, sakatu aplikazioaren izena eta, ondoren, hautatu nahi duzun kokalekurako sarbidea.

Kokapena erabiltzen duten zerbitzuak berrikustea

1. Ireki **Ezarpenak** > **Kokapena** > **Kokapen-zerbitzuak**.

2. Sakatu zerbitzu bat haren ezarpenak irekitzeko:
   - **Lurrikara-alertak**: 4,5 magnitudeko edo hortik gorako lurrikarei buruzko alerta bidaltzen dizu. (Aukera hori ez dago erabilgarri herrialde guztietan.)
   - **Larrialdietarako kokapen-zerbitzuak**. zure kokapena larrialdi-zerbitzuei bidaltzen die larrialdi-zenbaki batera deitzen baduzu edo SMS/MMS bat bidaltzen baduzu.
   - **Googleren kokapenaren zehaztasuna**: Maps-erako eta Bilatu nire gailua aukerarako kokapenaren zehaztasuna hobetzen du.
   - **Googleren kokapenen historia**: gordetako kokapenaren eta aktibo dagoen kokapenaren xehetasunak ezabatzen ditu, edo kokapenen historia desaktibatzen du.
   - **Kokapena Googlen partekatzea**: zure kokapena nork partekatzen duen ikusteko, erabilera partekatuaren iraupena aldatzeko eta partekatzeari uzteko aukera ematen du.
   - **Operadoreak kokapena atzitzea**: operadoreen zerbitzuak eta analisiak hobetzeko.
   - **Wifi-sareen bilaketa**: aplikazioek eta zerbitzuek edozein unetan wifi-sareak bilatzeko aukera ematea, baita wifia desaktibatuta dagoenean ere.
   - **Bluetooth gailuak bilatzea**: aplikazioek eta zerbitzuek gertuko Bluetooth gailuak bilatzen uztea edo saihestea, baita bluetootha desaktibatuta dagoenean ere.

Arazoak konpontzea

Arazoa: kokapena ez dabil

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den.

1. Desaktibatu kokapena eta aktibatu berriro.
2. Aktibatu Hegazkin modua, itxaron 15-20 segundo, eta, ondoren, desaktibatu berriro.
3. Estalki bat erabiltzen ari bazara, kendu eta egiaztatu GPSak funtzionatzen duen. Litekeena da estalkia sentsorea oztopatzen egotea.
4. Egiaztatu “Bateria aurrezteko funtzioa” aktibatuta dagoen. Energia aurrezteko, “Bateria aurrezteko funtzioa” aktibatuta dagoenean, telefonoak kokapen-zerbitzuak desaktibatzen ditu.
5. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.
6. Egiaztatu Maps aplikaziorako eguneratzerik dagoen. Aplikazioa eguneratu ondoren, berrabiarazi telefonoa.
7. Ezabatu Maps aplikazioaren cachea eta datuak.
8. Erabili modu segurua arazoaren eragileak aplikazioak diren egiaztatzeko, eta desinstalatu itzazu beharrezkoa balitz.

   Kokapenak modu seguruan behar bezala funtzionatzen badu, litekeena da hirugarrenen aplikazio bat izatea arazoaren eragilea. Aplikazio askok erabiltzen dute telefonoaren kokapena. Aplikazio horietakoren batek fitxategiak kaltetuta baditu, telefonoaren kokapenari eragin diezaiokete.

Arazoa: kokapena ez da zuzena

Aktibatu zehaztasuna:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Kokapena**.
2. Sakatu **Kokapen-zerbitzuak** > **Google-ren kokapen-zehaztasuna**.

3. Aktibatu **Hobetu kokapenaren zehaztasuna** ( ).

   Aukera hori aktibatuta dagoenean, telefonoak GPSa, wifia, mugikor-sareak eta sentsoreak erabiltzen ditu kokapen zehatzagoa eskuratzeko.

   Desaktibatuta dagoenean, telefonoak GPSa soilik erabiltzen du kokapena bilatzeko, eta hori mantsoagoa eta zehaztasun txikiagokoa izan daiteke.

Utzi telefonoari hurbil dauden wifi-sareak edo bluetooth gailuak bilatzen:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Kokapena**.
2. Sakatu **Kokapen-zerbitzuak**.
3. Aktibatu **Wifi-sareen bilaketa** eta **Bluetooth bidezko gailuen bilaketa** ( ).

Ikusmen-laguntza

Koloreen konfigurazioa daltonikoentzat

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna aukerara**.
2. Sakatu **Koloreak eta mugimendua**.
3. Sakatu **Koloreen zuzenketa** eta aktibatu **Erabili koloreen zuzenketa** ( ).
4. Pantailako kolore guztiak tonu grisekin ordezkatzeko, aukeratu **Grisen eskala**. Edo zuzendu koloreak ikusmenaren arabera:

Koloreak ikusteko modua	Aukerak
Kolore morea eta urdina bereizteko zailtasunak ditut. Horia eta berdea gorriago agertzen dira.	Gorri-berdea (berdearen pertzepzio ahula, deuteranomalia)
Koloreak ez dira biziak. Gorria, laranja eta horia berdeago agertzen dira.	Gorri-berdea (gorriaren pertzepzio ahula, protanomalia)
Horia,gorria eta arrosa bereizteko zailtasunak ditut. Urdina berdeago agertzen da.	Tritanomalia (urdina-horia).

Kolorea zuzentzea funtzio esperimentala da, eta gerta daiteke telefonoaren aukera guztietan behar bezala ez funtzionatzea.

Koloreak zuk nahi duzun bezala agertzen ez badira, konpondu arazoa.

Pantailaren distira are gehiago moteltzea

Doikuntza azkarretako distira-kontrol irristagarriak behar adina egiten ez badu, are gehiago moteldu daiteke pantailaren distira.

Konfigurazioa

1. Ireki **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** > **Are ilunago**.
2. Aktibatu **Ilundu pantaila are gehiago** .

   Aktibatzen duzun lehen aldian, distira gehiago arinduko zaie doikuntza azkarrei.
3. Erabili **intentsitatearen** kontrol irristagarria pantailaren distira arintzeko.
4. Hau ere egin dezakezu:

   - Telefonoa berrabiarazi ondoren,Are ilunago desaktibatu egingo da. Hori gerta ez dadin, aktibatu **Utzi aktibatuta gailua berrabiarazi ondoren** .
   - Irisgarritasuneko zuzeneko sarbideekin aktibatu/desaktibatu nahi baduzu, doikuntza azkarrekin beharrean, sakatu **Are ilunago eginbidearen lasterbidea**, eta hautatu erabili beharreko zuzeneko sarbideak.

Erabilera.

Ireki ezarpen bizkorrak, eta sakatu aktibatzeko/desaktibatzeko. Luze sakatu intentsitatea eta beste ezaugarri batzuk doitzeko.

Bestela, irisgarritasunekok zuzeneko sarbideak konfiguratzen badituzu, ukitu edo luze sakatu aldi berean bolumen-botoiak.

Testu osoa beltzez jartzea

Pantailako testu osoa letra lodiz jartzeko eta hobeto irakurtzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** > **Bistaratzeko tamaina eta testua**.
2. Aktibatu **Testu lodia** .

Pantaila handitzea

Pantaila handitzeko nahikoa da hiru aldiz sakatzea edo pantailaren beheko aldetik gorantz bi hatz irristatzea. Hiru botoiko nabigazioa erabiltzen ari bazara, gehi dezakezu handitzeko.

Konfigurazioa

Handitzea abiarazteko (hurbiltzea) eta geldiarazteko (urruntzea) modua konfiguratzeko:

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** > **Lupa** aukerara.
2. Aktibatu **Luparen lasterbidea** ( ).

Handitzearen erabilera

Handitzeko eta txikitzeko, hurrenez hurren:

1. Handitzen hasteko, ukitu .

   Pantailaren inguruan ertz laranja bat ikusiko duzu.
2. Sakatu handitu nahi duzun pantailako zatia, eta ondoren:
   - Irristatu bi hatz edo gehiago mugitzeko.
   - Bi hatz edo gehiagorekin atximur egin, handitzea doitzeko.
   - Ukitu pantaila osoaren ordez markatuta dagoen eremu bat handitzeko. Ondoren, erabili bi hatz edo markoa pantailaren inguruan arrastatzeko.
   - Ukitu pantaila osoko handitzera aldatzeko.
3. Handitzea desaktibatzeko, ukitu . Ertz laranja desagertu egingo da.

Aldi baterako handitzeko:

1. Handitzen hasteko: irristatu gorantz pantailaren beheko aldetik bi hatzekin edo sakatu .
2. Luze sakatu pantailako edozein toki, eta ondoren:
   - Arrastatu pantailan zehar mugitzeko.
   - Jaso hatza txikitzeko.

Ezin da handitu teklatua, ezta botoiak ere .

Aholkua: Letraren tamaina eta ikusteko tamaina ere doi daitezke.

TalkBack erabiltzea pantailak irakurtzeko

Entzun ukitzen duzun guztiaren deskribapena.

Gaitu Talkback

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** aukerara.
2. Sakatu **TalkBack** eta aktibatu **Erabili TalkBack** ( ).
3. Sakatu **Ezarpenak** eta ezarri nahi dituzun aukerak.

TalkBack aktibatuta dagoenean

- Sakatu elementu bat telefonoak izena esan dezan.
- Hasi idazten telefonoak zenbaki edo letra bakoitza ozen irakur dezan.
- Irristatu beherantz egoera-barra telefonoak jakinarazpen guztiak ozen irakur ditzan.
- Ireki mezu, fitxategi edo liburu bat telefonoak testua ozen irakur dezan.

Irakurketa-bolumena aldatzea

- Sakatu bolumenaren botoia bolumenaren konfigurazioa irekitzeko, eta, ondoren, erabili kontrol irristagarria maila doitzeko.
- Bestela, ozen irakurtzen ari den bitartean, sakatu behin eta berriro bolumenaren botoi bat.

Irakurketa geldiaraztea

Irakurketa pausatzeko edo berrabiarazteko, luze sakatu bolumena igotzeko eta jaisteko botoiak aldi berean hiru segundoz, TalkBack aktibatuta edo desaktibatuta dagoela entzun arte. Lasterbide horrekin lotutako irisgarritasun-funtzioa aldatzeko aukera duzu.

Edo desaktibatu TalkBack:

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** aukerara.
2. Sakatu **TalkBack** eta desaktibatu > **Erabili TalkBack** ( ).
3. Irakurlea aktibatzeko edo desaktibatzeko lasterbide gisa bolumen-teklak edo irristatze-keinu bat erabiltzeko, sakatu **TalkBack aplikazioaren lasterbidea** eta, ondoren, hautatu teklak edo keinua.

Filmen eta programen audio-deskribapenak entzutea

Film eta telesail bateragarrietan pantailan gertatzen denaren deskribapena entzun dezakezu.

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** aukerara.
2. Aktibatu edo desaktibatu **Audio-azalpena**.

Laguntza gehigarria

Hau ere egin dezakezu:

- Ahots-postontzia erabili

- Testua diktatu idatzi beharrean
- Telefonoa konfiguratu pantaila ukitu edo desblokeatu ondoren berrespen-soinuak egin ditzan
- Aplikazio jakin batzuen jakinarazpenetarako txirrin bat esleitu

---

Entzumen-laguntza

Ahots-eduki osorako azpitituluak

Telefonoak automatikoki gehi ditzake azpitituluak bideoetan, podcastetan, audio-mezuetan eta grabazioetan.

Azpitituluak aktibatzea edo desaktibatzea

Sakatu bolumen-botoi bat eta, ondoren, aktibatu edo desaktibatu (ikono hori ikusten ez baduzu, aldatu azpitituluen doikuntzak, gehitzeko).

Bestela, joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** > **Instanteko azpitituluak** aukerara, eta aktibatu edo desaktibatu aukera.

Azpitituluen koadroa erabiltzea

- Azpitituluak mugitzeko, arrastatu koadroa.
- Azpitituluak hedatzeko edo txikitzeko, sakatu koadroa bi aldiz.

Bateriaren erabilera

Berehalako azpitituluek bateria gehiago kontsumitzen dute. Bateria agortzen ari bada eta Bateria aurrezteko funtzioa aktibatuta badago, berehalako azpitituluak automatikoki desaktibatuko dira.

Azpitituluen ezarpenak aldatzea

Honako hauek ezkutatu edo bistaratzeko aukera duzu:

- Hitz itsusiak
- Soinu-etiketak (barreak, txaloak edo musika)
- Azpitituluen ikonoa bolumen-kontroletan.

1. Ireki **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** > **Instanteko azpitituluak**.
2. **Ezarpenak** aktibatu edo desaktibatu .

Bideo-azpitituluak aktibatzea

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** aukerara.
2. Sakatu **Azpituluen hobespenak** eta aktibatu **Erakutsi azpitituluak** .
3. Zehaztu azpituluen aukerak (hizkuntza, testuaren tamaina eta estiloa).

Erabiltzeko laguntza

Denbora-kontrolak aldatzea

Aldi baterako bakarrik ikus daitezkeen jakinarazpen bati edo mezu bati erantzuteko denbora gehiago behar baduzu, desagertu aurretik ikusgai egongo diren denbora doitu ahal izango duzu, urrats hauei jarraituz:

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** aukerara.
2. Sakatu **Denbora kontrolatzeko aukerak**.
3. Doitu konfigurazioa:
   - Oinarrizko bi keinu daude telefonoa kontrolatzeko: *sakatu* eta *luze sakatu*. Denbora doitu dezakezu pantailako ukitua luze sakatzeko ekintza bihurtu baino lehen. Ukitu besterik egin nahi ez zenuenean nahi gabe luze sakatu duzula uste baduzu, jar ezazu atzerapen luzeagoa. Erabili **Sakatuta edukitzearen atzerapena** atzerapen laburra, ertaina edo luzea hautatzeko.
   - Ekintzaren bat egiteko eskatzen dizuten mezuak azkarregi desagertzen badira, sakatu **Zerbait egiteko denbora** eta aukeratu denbora luzeagoa. Doikuntza hori ezin da erabili aplikazio guztietan.
   - Sagua konektatuta erabiltzen ari bazara, kurtsorea doi dezakezu denbora batez mugitzeari uzten diozunean automatikoki klik egin dezan. Sakatu Automatikoki **klik egiteko eginbidea (itxarote-denbora)** eta hautatu denbora.

Kanpoko kommutadorea edo teklatua erabiltzea

Ukipen-pantaila erabili ezin baduzu, Erabilerraztasun-osagarria-ek aukera ematen dizu telefonoa kommutadoreekin eta kanpoko teklatu-teklekin kontrolatzeko, elementuak hautatzeko, mugitzeko, testua idazteko eta askoz gehiagorako.

IErabilerraztasun-osagarria erabiltzeko, gailu hauetako bat izan behar duzu:

- **Kanpoko kommutadore bat.** USB edo Bluetooth kommutazio-gailuek seinaleak bidaltzen dituzte telefonora teklak sakatzean.
- **Kanpoko teklatua**. USB edo Bluetooth teklatu estandarrek kommutazio-gailu gisa funtziona dezakete, zenbait ekintzari tekla bat edo gehiago esleitzen bazaizkie.

Etengailu bidezko konfigurazioa/irisgarritasuna

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** aukerara.
2. Sakatu **Erabilerraztasun-osagarria**.
3. Aktibatu **Erabili Erabilerraztasun-osagarria** .
4. Segi pantailako jarraibideei, hauek hautatzeko.

- Kommutadore-kopurua
- Aurpegiko keinuen doikuntzak
- Bilaketa-aukerak
- Kommutazio-esleipenak

Geroago etengailuen bidez irisgarritasunerako aukerak doitzeko, ireki **Ezarpenak > Erabilerraztasuna > Erabilerraztasun-osagarria > Ezarpenak**.

Etengailu bidezko erabilera/irisgarritasuna

1. Konektatu kanpoko gailua telefonora. Horretarako, jarri Bluetootha edo erabili USB bat. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu fabrikatzailearen jarraibideak.
2. Sakatu esleitutakoen tekla edo kommutadorea pantailan elementuak eskaneatu eta nabarmentzeko, edo nabarmendutako elementuak hautatzeko.

Irisgarritasuneko lasterbideak erabiltzea

Irisgarritasun-menua erabiltzea

Eskuratu telefonoa hobeto kontrolatzen lagunduko dizun irisgarritasun-menurako zuzeneko sarbide bat. Aktibatzeko:

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** aukerara.
2. Sakatu **Erabilerraztasun aukerak**.
3. Aktibatu **Erabilerraztasun-osagarria aplikazioaren lasterbidea** ( ).

> **Aholkua:** Menu honetako botoien tamaina handitzeko, sakatu **Aukera gehiago** eta, ondoren, aktibatu **Botoi handiak** ( ).

Keinu bidezko nabigazioa erabiltzen baduzu:

1. Erabili bi hatz pantailaren beheko aldetik gorantz irristatzeko.

   Keinu hori erabiltzen duten beste irisgarritasun-tresna batzuk ezarri badituzu, irristatu bi hatz gorantz eta luze sakatu tresna batetik bestera aldatzeko.
2. Hautatu menuko aukera bat.

Hiru botoiko nabigazioa erabiltzen ari bazara:

1. Pantailaren beheko zatian, sakatu .

   Ikono hori erabiltzeko beste irisgarritasun-tresna batzuk erabili badituzu, luze sakatu tresna batetik bestera aldatzeko.
2. Hautatu menuko aukera bat.

Sakatu bolumen-botoiak TalkBack abiarazteko/geldiarazteko

TalkBack pantaila-irakurlea aktibatzeko edo desaktibatzeko, bolumen-botoiak erabil ditzakezu.

Lasterbidea gaitzeko:

1. Joan **Ezarpenak** > **Erabilerraztasuna** > **TalkBack** aukerara.
2. Aktibatu **TalkBack lasterbidea** ( ).

Lasterbidea erabiltzeko:

Luze sakatu bolumena igotzeko eta jaisteko botoiak aldi berean hiru segundoz.

Funtzioa aktibatu edo desaktibatu dela berresten duen mezua entzungo duzu.

Lehenetsitako aplikazioak konfiguratzea

Funtzio bera duten aplikazio bat baino gehiago badituzu, lehenespenez zein aplikazio erabili nahi duzun hauta dezakezu.

Eskatzean aukeratzea

Batzuetan, zer aplikazio erabili nahi duzun galdetuko dizu telefonoak. Adibidez, telefonoak galde diezazuke zer aplikazio erabili nahi duzun PDF fitxategi bat irekitzeko.

Eskatzean aplikazio bat lehenestea konfiguratzeko:

1. Hautatu erabili nahi duzun aplikazioa.
2. Aukeratu aplikazio hori zein maiztasunekin erabili nahi duzun ekintza honetarako: **Beti** edo **Behin bakarrik**.

Beti hautatzen baduzu, ez zaizu berriz eskatuko aplikazio bat aukeratzeko. Telefonoak berriro galdetzeko, aurrez zehaztutako balioa ezaba dezakezu:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Aplikazioak**
2. Sakatu **Aplikazio lehenetsiak** > **Irekiko diren estekak**.
3. Sakatu lehenetsi gisa hautatu duzun aplikazioa.
4. Sakatu **Ireki esteka bateragarriak**, eta hautatu **Galdetu beti**.

Edonoiz aukeratzea

Aurrez zehaztutako aplikazio batzuk (adibidez, nabigatzailea edo mezularitza-aplikazioa) noiznahi alda ditzakezu:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Aplikazioak**
2. Sakatu **Aplikazio lehenetsiak.**
3. Sakatu aldatu nahi duzun aplikazio lehenetsia.
4. Hautatu erabili nahi duzun aplikazioa.

Aplikazioen sarbide berezia konfiguratzea

Ezarpenak > Aplikazioak > Aplikazio-baimen bereziak aukeran, doikuntza hauek egin ditzakezu:

- **Erabilera-datuetarako sarbidea**: kontrolatu zer aplikaziok duten aplikazioen erabilerari buruzko datuetarako irispidea (zer beste aplikazio erabiltzen dituzun eta zer maiztasunekin, zure operadorea zein den, hizkuntzaren konfigurazioa eta beste xehetasun batzuk).
- **Datu-erabilera mugagabea**: aplikazio batzuek konexio automatikoak erabiltzeko aukera eman dezakezu, baita datu-aurrezkia aktibatuta dagoenean ere. Informazio gehiago.

Halaber, aukeratu dezakezu zer aplikaziok duten sarbidea funtzio hauetara: Pantaila txiki gainjarria, Energia aurrezteko optimizazioa eta Ez molestatzeko modua. Oro har, ez zenuke aukera horiek konfiguratu beharrik izan behar.

Kontuak gehitzea edo kentzea

Googleko kontu bat gehitzea

Telefonoa konfiguratzean, Googleko kontu bat gehitzea eskatu zizun. Urrats hori egin ez baduzu, ziurtatu kontu bat konfiguratzen duzula orain Play Storetik aplikazioak deskargatu ahal izateko, informazio pertsonalizatua jasotzeko eta Googleko kontuko Calendar, Gmail eta beste aplikazioei etekinik handiena atzeratzeko.

Googleko kontu bat gehitzeko:

1. Joan **Ezarpenak** aukerara.
2. Sakatu **Pasahitzak eta kontuak > Gehitu kontu bat**.
3. Sakatu **Google** eta egin kasu pantailan agertzen diren argibideei, lehendik badagoen kontu bat gehitzeko edo beste bat sortzeko.
4. Kontua gehitu ondoren, kontuko Calendar, Kontaktuak eta beste funtzio eta aplikazio batzuk dagozkien informazioarekin eguneratuko dira. Kontu horretarako telefonoan zer sinkronizatzen den kontsultatzeko eta aldatzeko aukera duzu.

Aholkua: Eguneratuta izan aplikazioak. Googleko kontuarekin lotutako aplikazio berriagoak dauden ikusteko, ireki Play Store aplikazioa eta Sakatu zure profilaren ikonoa M > **Kudeatu aplikazioak eta gailua**.

Posta elektronikoko kontu bat edo aplikazioko kontu bat gehitzea

Kontuak automatikoki gehituko dira kasu hauetan:

- Laneko posta elektronikoa konfiguratzean.
- Gmail-ekoa ez den helbide bat duen posta elektroniko pertsonala konfiguratzean.
- Saioa hasteko erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat behar duten aplikazioak instalatzean, esaterako, mezularitza-aplikazioak, erosketa-aplikazioak edo streaming-edukia dutenak.

Kontu horiek kontsultatzeko edo beste batzuk gehitzeko:

1. Joan **Ezarpenak** aukerara.
2. Sakatu **Pasahitzak eta kontuak > Gehitu kontu bat**.
3. Sakatu gehitu nahi duzun kontu-mota, eta egin kasu pantailan agertzen diren argibideei.

   Gehitu nahi duzun kontu-mota agertzen ez bada, harekin erlazionatutako aplikazioa instalatu Play Store-tik, eta, ondoren, hasi saioa zure kontuan aplikazioa erabiliz.
4. Kontua gehitu ondoren, kontuarekin lotutako funtzioak eta aplikazioak dagokien informazioarekin eguneratuko dira. Telefonoarekin sinkronizatzen dena kontsultatzeko eta aldatzeko, hautatu kontu-mota eta, ondoren, idatzi kontuaren izena.

Kontuak ezabatzea

Kontu bat ezabatzen baduzu, sinkronizatu duzun informazio guztia desagertuko da telefonotik, baina ez kontutik.

Kontu bat ezabatzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Pasahitzak eta kontuak**.
2. Sakatu kontuaren izena.
3. Sakatu **KENDU KONTUA**.

Aholkua: Laneko kontu bat ezabatu ezin baduzu, ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatasuna** > **Segurtasun ezarpen gehiago** > **Gailua administratzeko aplikazioak**, desaktibatu kontuaren aplikazioa eta saiatu berriro ezabatzen.

Aldatu Googleko kontuaren izena eta informazioa

Googleko kontuaren oinarrizko informazioa eguneratzeko, gehitzeko edo ezabatzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Google** > **Kudeatu Google-ren kontua**.
2. Sakatu **Informazio pertsonala**.
3. Eguneratu informazioa behar duzun bezala. Gehitu edo aldatu profileko argazkia, eta editatu izena eta jaiotze-data. Informazio gehiago.

Googleko pasahitza ahaztu duzu edo aldatu egin nahi duzu? Ikasi pasahitza berrezartzen.

Kontuari buruzko beste galderarik baduzu? Irakurri Googleren laguntza.

Aplikazioak Googleko kontuarekin sinkronizatzea

Sinkronizazioari buruz

Sinkronizatzea zer den

Telefonoa sinkronizatzen denean, Googleko aplikazioek zure datuak eguneratzen dituzte, eta eguneratzeei buruzko jakinarazpenak jasotzen dituzu.

Zer aplikazio sinkronizatzen diren

Lehenespenez, Googlek sortutako aplikazioak automatikoki sinkronizatzen dira. Aplikazio bakoitzerako sinkronizazio automatikoa desaktibatu eta berriro aktibatzeko aukera duzu.

Beste aplikazio batzuk (Googlek sortu ez dituenak) sinkronizatzeko gaitasuna aplikazioaren araberakoa da.

Sinkronizazio automatikoa desaktibatuz gero

Sinkronizazio automatikoa desaktibatzeak ez ditu ezabatzen, ez aplikazioa ez datuak. Horren ordez, aplikazioaren datuak automatikoki eguneratzea eteten du.

Mezu elektronikoak, egutegiko jakinarazpenak edo Googleren aplikazioen beste jakinarazpen batzuk jasotzeko, sinkronizazioa eskuz egin behar duzu.

Automatikoki sinkronizatzen diren aplikazioak zein diren ikustea

Ikustea Googleren zer aplikazio sinkronizatzen diren automatikoki

1. Ireki **Ezarpenak** > **Pasahitzak eta kontuak**.
2. Sakatu kontuaren izena.
3. Sakatu **Kontuaren sinkronizazioa**.
4. Berrikusi zure Googleko aplikazioen zerrenda eta azkeneko aldiz noiz sinkronizatu diren.

Berrikusi beste aplikazioak

Zure beste aplikazioak automatikoki sinkronizatzeko aukera duten ikusteko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Pasahitzak eta kontuak**.
2. Berrikusi kontuen zerrenda:
   - Aplikazioa zerrendan agertzen ez bada, ezin da automatikoki sinkronizatu.
   - Aldiz, zerrendan agertzen bada, egin klik izenaren gainean zer sinkronizazio-aukera ezar daitezkeen ikusteko.

Sinkronizazio automatikoa desaktibatzea

Googleko aplikazio jakin batzuetarako desaktibatzea

1. Ireki **Ezarpenak** > **Pasahitzak eta kontuak**.
2. Telefonoan kontu bat baino gehiago baduzu, Sakatu nahi duzuna.
3. Sakatu **Kontuaren sinkronizazioa**.
4. Desaktibatu automatikoki sinkronizatzea nahi ez dituzun aplikazioak. Adibidez, Calendar eta Gmail sinkronizatzea, baina Drive ez.

Zure Googleko konturako desaktibatzea

1. Ireki **Ezarpenak** > **Pasahitzak eta kontuak**.
2. Desaktibatu **Sinkronizatu aplikazioetako datuak automatikoki** ().

   SMS/MMS mezuak, mezu elektronikoak, egutegia eta beste aplikazio batzuen eguneratzeak jasotzeko, kontuak eskuz sinkronizatu beharko dituzu.

Aholkua: Sinkronizazio automatikoa desaktibatzeak bateria aurrezten lagundu diezazuke. Bateria kargatu ondoren sinkronizazio automatikoa abiarazteko, piztu ezazu berriro .

Eskuz sinkronizatzea

1. Ireki **Ezarpenak** > Pasahitzak eta kontuak.
2. Sakatu kontuaren izena.
3. Sakatu **Kontuaren sindronizazioa** > > **Sinkronizatu**.

Arazoak konpontzea

Hautatu arazo bat, hori ebazteko urratsak ikusteko:

- Kontua sinkronizatzeko arazoak
- Googleko kontuaren pasahitza ahaztu dut

- Arazoak Facebook-ekin, WhatsApp-ekin eta beste aplikazio batzuekin

---

Kontrolatzea zer informazio gordetzen duen Googlek

Googlek zuri buruzko informazioa biltzen du zerbitzu eta eduki pertsonalizatuak eskaintzeko, Googleren pribatutasun-politikan adierazi bezala.

Googlek zuri buruz jasotzen duen informazioa berrikusi, ezabatu eta kontrolatu dezakezu. Googleren informazio gehiago atzi dezakezu gai horiei buruzko esteketan:

- Biltzen den informazioa ikustea eta kontrolatzea (bilaketak, YouTube, ahots-aginduen grabazioak, kokapena).
- Bilaketa-historia eta bestelako jarduerak ezabatzea.
- Kokapen-historia berrikustea.
- Zure kontuari buruzko beste edozein galdera

Segurtasunari buruz

Pantaila blokeatzeko aukerak

Telefonoa babestuta edukitzeko, erabili pantaila-blokeoa “Etenaldi modua”n sartzean.

- Konfiguratu PIN bat, eredu bat edo pasahitz bat telefonoa desblokeatzeko.
- Gehitu Smart Lock bat automatikoki desblokeatzeko gailu fidagarri batera konektatuta zaudenean, konfiantzazko leku batean zaudenean (adibidez, etxean edo lantokian), aurpegi-ezagutza aktibatuta duzula, edo telefonoa gainazal baten gainean utzi arte.
- Jakinarazpen eta ezarpen bizkorretara sar zaitezke, dei bat egin eta kamera ireki, blokeo-pantailatik.
- Telefonoa blokeatuta egon arren, larrialdi-deiak egin ditzakezu. Telefonoa berdin jotzen du blokeatuta egonda ere, eta ez dago desblokeatu beharrik erantzuteko.
- Eredua, PINa edo pasahitza ahaztu baduzu, jarraitu urrats hauei.

Blokeo-pantaila pertsonaliza dezakezu, harremanetarako datuak erantsita. Blokeo-pantailan zein jakinarazpen agertzea nahi duzun ere kontrola dezakezu.

Hatz-marken irakurgailua

Egiaztatu zure identitatea azkar eta erraz zure telefonoko hatz-marken sentsorearen bidez, pasahitza, PINa edo eredua sartu beharrean telefonoa desblokeatzeko, online edo dendan erosketak egiteko, nahiz finantza- eta banku-aplikazioetan saioa hasteko.

Hatz-markak gehitu edo ezabatu ditzakezu.

Hatz-markak:

- Hatz-markaren ezaugarrietatik abiatuta sortzen dira, adierazpide matematiko bihurtuta, eta, ondoren, zifratu eta telefonoan gordetzen dira. Inoiz ez da gordetzen hatz-marken irudirik.
- Inoiz ez dira partekatzen Googlerekin edo Motorolarekin.
- Ez dira inoiz partekatzen beste aplikazio batzuekin partekatzen. Telefonoak egiaztapena bakarrik partekatzen du, ez hatz-marka.

Oharra: Hatz-marka bidezko pantaila-blokeoa ez da eredu konplexu baten edo PIN baten bidezko blokeoa bezain segurua. Telefonoa desblokea daiteke hatz-marka baten kopia fisiko baten bidez.

Segurtasun gehigarriko aukerak

- Telefonoa galera edo lapurretetatik babestu. Bilatu nire gailua funtzioa erabili.
- Sare pribatu birtual batera konektatu, sare seguru bateko fitxategietara sartu behar baduzu.
- Ikusi noiz ari diren aplikazioak mikrofonoa eta kamera erabiltzen, eta blokeatu, beharrezkoa bada.
- SIM blokeo bat gehitu, beste pertsona batzuek zure datu-tarifa erabil ez dezaten eta zure kontuko informazioa eskuratu ez dezaten, telefonoa lapurtzen badizute.

- Saihestu birusak eta zure datuen eta pribatutasunaren kontrako beste eraso batzuk Googleren Play Protect-ekin.

Aplikazio kaltegarrietatik babestea

Telefonoan aplikazio kaltegarriak bilatzea

Play Protect zerbitzuak telefonoa babesten laguntzen du: aplikazioak automatikoki aztertzen ditu, transferitutako aplikazioak barne, kaltegarriak izan daitezkeenak bilatzeko (malwarea).

Play Protect zerbitzuak kaltegarria izan litekeen aplikazioren bat aurkitzen badu, aplikazioa eten egingo du eta desinstala dezazun abisatuko dizu.

Emaitzak ikusteko edo analisia errepikatzeko:

1. Ireki **Play Store** aplikazioa.
2. Sakatu zure profilaren ikonoa > **Play Protect**.
3. Egiaztatu azken analisiaren emaitzak edo sakatu **Bilatu**.

Play Protect lehenespenez aktibatuta dago.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Googleren laguntza.

Telefonoa motel badabil

Kaltegarria izan daitekeen aplikaziorik ez dagoela ziurtatzeko telefonoa analizatu baduzu, baina, hala ere, oso mantso funtzionatzen badu, konpondu arazoa.

Ziurtatu zure telefonoa aurki daitekeela

Ziurtatu zure telefonoa aurkitu daitekeela. “Encontrar mi dispositivo” funtzioak aukera ematen du telefonoa aurkitu eta blokeatzeko, bai eta haren datuak urrutitik ezabatzeko ere.

Inoiz zure telefonoa aurkitu behar baduzu, ezinbestekoa izango da:

- Piztuta egotea
- Googleko kontu batean saioa hasita edukitzea
- Datu mugikorretara edo wifi-sare batera konektatuta egotea
- Aktibatu kokapen-zerbitzuak. Kokapen-zerbitzuak desaktibatuta badaude, telefonoa blokea edo ezaba dezakezu, baina ez aurkitu.
- “Encontrar mi dispositivo” aktibatuta egotea.

“Encontrar mi dispositivo” telefonoan aktibatuta dagoen egiaztatzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna**.
2. Sakatu **Bilatu nire gailua**, eta aktibatu .

Telefonoa aurki dezakezula baieztatzeko, joan Android.com/find aukerara telefonoan edo ordenagailutik.

Telefonoa galdu baduzu, pentsatu operadoreari deitzeko aukera zure kontua bertan behera uzteko. Zure telefonoak SIMaren blokeorik ez badu eta lapurtu egiten badizute, norbaitek SIM txartela erabil lezake.

Pantaila-blokeoa konfiguratzea

Telefonoa babesteko pantaila-blokeo bat ezartzen baduzu, pantaila pizten edo aktibatzen duzun bakoitzean telefonoa desblokeatzeko eskatuko dizu.

Pantaila-blokeoa ezartzea edo aldatzea

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna**.
2. Sakatu **Gailua blokeatzeko eginbideak**.
3. Sakatu **Pantailaren blokeoa**, eta hautatu zein motatako pantaila-blokeoa nahi duzun.

   Aukera batzuk ez dira erabilgarri egongo VPN bat edo laneko posta elektronikoko kontu bat (enpresakoa) gehitu badiozu telefonoari.

Aholkua: Eredu, PIN edo pasahitz bat ezarri ondoren, hatz-markaren bidez gaitu dezakezu segurtasuna, hatz-marken sentsorearekin telefonoa desblokeatzeko.

Pantaila blokeatzeko moduak:

Blokeorik gabe:

- **Bat ere ez**: ez du babesten telefonoa, baina pantaila nagusira bizkor sartzeko aukera ematen du.
- **Irristatze bidez**: irristatu gorantz. Nahi gabe markatzea saihesten du, baina ez du telefonoa babesten.

Blokeatu:

- **Eredua**: marraztu eredu bat lauki batean.
- **PINa**: sartu lau eta hamasei digitu bitarteko zenbakizko kode bat. PIN luzeak seguruagoak dira.
- **Pasahitza**: sartu gutxienez 4 eta gehienez 16 letra, digitu edo sinbolo, pasahitza osatzeko. Pasahitz luze eta konplexuak dira aukerarik seguruena.

Hiru blokeoetako bat erabiltzen duzunean, hatz-marken sentsorearen bidez ere desblokea dezakezu telefonoa, eta telefonoa konfigura dezakezu automatikoki desblokea dadin kondizio jakin batzuetan.

Pantaila automatikoki desblokeatzea

PIN bat, pasahitz bat edo eredu bat erabiltzen baduzu, aukera hauek dituzu:

- Desblokeatuta eduki dezakezu gailu batera konektatuta zaudenean (adibidez, autoko audio-sistemara).
- Edo kokapen jakin batean zaudenean.
- Edo telefonoa eskuan edo soinean daramazunean.
- Aurpegiarekin ere desblokeatu dezakezu.

Aholkuak:

- Hatza gorantz irrista dezakezu, pantailaren edozein lekutatik, telefonoa desblokeatzeko. Ez da beharrezkoa ikonoa sakatzea.
- Aukera batzuk ez dira erabilgarri egongo VPN bat edo laneko posta elektronikoko kontu bat (enpresakoa) gehitu badiozu telefonoari.

Pantaila-blokeoa ezabatzea

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna**.
2. Sakatu **Pantailaren blokeoa**.
3. Sakatu **Gailua blokeatzeko eginbideak**.
4. Sartu zure PINa, pasahitza edo uneko eredua, zure identitatea berresteko.
5. Sakatu **Bat ere ez** edo **Hatza pasatzea**.

Pantaila-blokeoaren segurtasuna azkar areagotzea

Hatz-marken sentsorearen bidez desblokeatzeak eta automatikoki desblokeatzeko konfigurazioak telefonoa babesten laguntzen dute, eta zure PINa, patroia edo pasahitza sartzeko beharra minimizatzen dute. Hala ere, batzuetan erosotasuna galdu behar izaten da segurtasun handiagoa izateko. Blokeoak aldi baterako gehitu ditzakezu, eta blokeo-pantailan jakinarazpenak eragotzi.

1. Lerratu hatza beherantz **bi aldiz**, pantailaren goiko aldetik hasita, eta sakatu > Itzali.

   Edo, aldi berean, luze sakatu **pizteko eta bolumena gehitzeko** botoiak, eta sakatu **Itzali**.
2. Sakatu **Blokeoa**.

   Hatz-marken sentsorearen ezarpenak eta desblokeatze automatikoa desaktibatuta daude; beraz, ez da jakinarazpenik agertuko blokeo-pantailan.
3. Segurtasun-blokeotik irteteko, desblokeatu telefonoa zure PINarekin, ereduarekin edo pasahitzarekin.

Blokeo-pantailaren aukerak ezartzea:

Erabili aukera hauek telefonoa noiz blokeatzen den eta desblokeatzean kodea ikusten den kontrolatzeko.

Blokeo-pantailan zer agertzea nahi duzun ere kontrola dezakezu.

Blokeatu aurreko denbora-tartea ezartzea

Automatikoki desblokeatuta eduki ezean, telefonoa itzali eta bost segundora blokeatuko du pantaila.

Pantaila automatikoki blokeatu aurreko denbora-tartea luzatzeko edo murrizteko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna**.
2. **Pantailaren blokeoa** aukeraren ondoan, sakatu .

3. Sakatu **Bloquear tras suspender Bistaratzea** eta hautatu denbora-tarte bat.

Pizteko botoiak telefonoa automatikoki blokea dezan saihestea

Telefonoa eskuz blokea dezakezu pizteko botoia sakatzen baduzu. Pizteko botoiak pantaila itzaltzea nahi baduzu, baina ez blokeatzea:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna**.
2. **Pantailaren blokeoa** aukeraren ondoan, sakatu .
3. Desaktibatu Blokeatu etengailua sakatzean .

Pantaila itzalitakoan, telefonoa blokeatu egingo da automatikoki blokeatzeko ezarritako denbora igaro ondoren.

Eredua ezkutatzea

Ereduak ezkutatzeko (pantaila blokeatzeko eredu bat erabiltzen baduzu):

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna**.
2. **Pantailaren blokeoa** aukeraren ondoan, sakatu .
3. Desaktibatu Ezarri eredua ikusgai .

Pasahitzak ezkutatzea

Telefonoa desblokeatzeko pasahitza sartzean edo webguneetan eta aplikazioetan saioa hastean karaktereak denbora-tarte labur batez agertzen diren kontrolatzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna** > **Pribatutasuna** > **Pribatutasun-ezarpenak**.
2. Desaktibatu Erakutsi pasahitzak .

Gailu fidagarriekin desblokeatzea

Gailu fidagarriak konfiguratzea

Telefonoa desblokeatuta eduki dezakezu gailu fidagarri batera konektatuta zaudenean; adibidez, erloju batera edo bluetootha duen auto batera.

1. Ziurtatu hau egin duzula:
   - Telefonoan pantaila-blokeo bat ezarri.
   - Bluetooth aktibatu telefonoan.
   - Telefonoa bluetooth gailuarekin lotu.
2. Joan **Ezarpenak** aukerara.

3. Sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezarpen gehiago > Smart Lock**. Ez baduzu Smart Lock ikusten, egin hau:
   - Eguneratu Google Play zerbitzuak. Pantaila nagusiko Googleren bilaketa-widgetean, bilatu «Google Play» zerbitzuak, eta sakatu aplikazioa, Google Play-n irekitzeko.
   - Ireki **Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezarpen gehiago > Fidagarritasun-agenteak** eta gaitu **Smart Lock.**
4. Desblokeatu telefonoa eta, ondoren, sakatu **Gailu fidagarriak > GEHITU GAILU FIDAGARRI BAT**.
5. Sakatu gailu bat konektatutako gailuen zerrendatik hautatzeko.

> **Aholkua:** Gailua zerrendan ez badago, ziurtatu hari lotuta dagoela.

Telefonoa gailura konektatuta dagoenean, telefonoa automatikoki desblokeatzen da.

Gailu fidagarriak ezabatzea

1. Joan **Ezarpenak** aukerara.
2. Sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezarpen gehiago > Smart Lock**.
3. Desblokeatu telefonoa, eta, ondoren, sakatu **Gailu fidagarriak**.
4. Sakatu gailuaren izena, eta baieztatu ezabatu nahi duzula.

Telefonoa eskuz blokeatzea

Gailu fidagarri batera konektatuta dagoela telefonoa blokeatuta dagoela ziurtatu behar baduzu, eskuz blokea dezakezu telefonoa.

Blokeo-pantailan, sakatu . Telefonoa blokeatuta egongo da eskuz desblokeatzen duzun arte.

Aurpegiarekin desblokeatzea

Aurpegi-ezagutza erabili aurretik

Gogoratu:

- Telefonoari begira bazaude, nahi izan gabe ere desblokea dezakezu.
- Zure antz handia duen pertsona batek ere desblokea dezake telefonoa.
- Beste pertsona ere batek desblokea dezake begiak irekita dituela aurpegiaren aurrean jartzen badu. Gorde telefonoa leku seguruan. Segurtasun gutxiko egoeretarako prestatzeko, blokeoa aktiba dezakezu.
- Zure telefonoak 4 ordu baino gehiago baditu blokeatuta, aurpegi-azterketak ez du funtzionatuko, aurretik beste metodo batekin desblokeatu arte.

Aurpegi-ezagutza konfiguratzea

1. Ziurtatu pantaila-blokeo bat ezarri duzula telefonoan.

2. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna** > **Gailua blokeatzeko eginbideak** > **Aurpegi eta hatz-marka bidez desblokeatzeko eginbidea**.
3. Desblokeatu telefonoa eta sakatu **Aurpegi bidez desblokeatzeko eginbidea**.
4. Jarraitu pantailako argibideei. Ziurtatu aurpegi osoa bat datorrela ertzarekin.

   Zurekin bat datozen aurpegien datuak modu seguruan jasoko dira gailuan.

Telefonoa pizten edo aktibatzen duzun bakoitzean, zure aurpegia bilatuko du, eta, ezagutu orduko, desblokeatu egingo da. Edo aurpegi-ezagutzaren funtzionamendua pertsonaliza dezakezu:

- Aurpegia ezagutu ondoren blokeo-pantailan gora lerratu behar izateko, hasierako pantaila ikusi baino lehen, desaktibatu **Saltatu pantaila blokeatua**.
- Telefonoa desblokeatzeko norbaitek zure argazkia erabil ez dezan, aktibatu **Mugimenduaren modua**. Aurpegiaren azterketa erabiltzen duzunean, keinu egin beharko duzu. Telefonoa ez da desblokeatuko, baldin eta azterketan aurpegi-mugimendurik detektatzen ez badu.

Telefonoa desblokeatzea

Erakutsi aurpegia blokeo-pantailari.

Ezagutzen ez badu, blokeatuta geratuko da, eta ikono hauetako bat agertuko da.

Ikonoa	Nola desblokeatu
	Erabili zure pasahitza, PINa edo eredua
	Erabili hatz-marken sentsorea

Aurpegi-ezagutza desaktibatzea

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna** > **Gailua blokeatzeko eginbideak** > **Aurpegi eta hatz-marka bidez desblokeatzeko eginbidea**.
2. Desblokeatu pantaila. Ondoren:
   - Aldi baterako desaktibatzeko, desaktibatu **Desblokeatu telefonoa**.
   - Aurpegiko datuak ezabatzeko, sakatu **Ezabatu arupegi-eredua**.

Arazoak konpontzea

Telefonoak aurpegia ezagutzeko arazoak badituzu:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta pribatutasuna** > **Gailua blokeatzeko eginbideak** > **Aurpegi eta hatz-marka bidez desblokeatzeko eginbidea**.
2. Desblokeatu telefonoa eta sakatu **Redo face scan**.
3. Ziurtatu ondo argiztatutako ingurunean zaudela. Saihestu argi gutxi, argi gehiegi eta atzeko argia duten inguruak, aurpegi- irudia argia dela bermatzeko.

4. Jarraitu pantailako argibideei.

Konfiantzazko tokietan desblokeatzea

Toki seguruak konfiguratzea

Toki seguru eta ezagunetan zaudenean (etxean edo lantokian, adibidez) telefonoa etengabe desblokeatzen ez aritzeko, erabili Smart Lock. Telefonoa eskuz blokeatu ahal izango duzu beharrezkoa denean.

1. Ziurtatu hauek egin dituzula:
   - Telefonoan pantaila-blokeo bat ezarri.
   - Kokapen-zerbitzuak aktibatu.
   - Zure etxearen edo lantokiaren kokapena Maps-en kokatu, hala nahi izanez gero. Nola egin jakiteko, kontsultatu Googleren laguntza.
2. Joan **Ezarpenak** aukerara.
3. Sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezarpen gehiago > Smart Lock**. Ez baduzu Smart Lock ikusten, egin hau:
   - Eguneratu Google Play-ren zerbitzuak. Pantaila nagusiko Googleren bilaketa-widgetean, bilatu «servicios de Google Play» eta sakatu aplikazioa, hura irekitzeko.
   - Ireki **Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezarpen gehiago > Fidagarritasun-agenteak** eta gaitu Smart Lock.
4. Desblokeatu telefonoa, eta, ondoren, sakatu **Toki fidagarriak**.
5. Konfiguratu tokiak:
   - Etxearen eta lantokiaren kokapenak Maps-en gehitu badituzu, kokapenaren izena sakatu dezakezu, baita aldatu ere, hala nahi izanez gero.
   - Kokapen bat gehitzeko, sakatu **Gehitu toki fidagarri bat**. Egiaztatu uneko kokapena hura gehitzeko edo sakatu , idatzi gehitu nahi duzun helbidea, eta sakatu **Hautatu kokapen hau**.

Telefonoa eskuz blokeatzea

Toki seguruan zaudenean telefonoa blokeatu nahi baduzu, sakatu blokeo-pantailan. Telefonoa blokeatuta egongo da eskuz desblokeatzen duzun arte.

Toki seguruak kentzea

1. Joan **Ezarpenak** aukerara.
2. Sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezarpen gehiago > Smart Lock**.
3. Desblokeatu telefonoa, eta, ondoren, sakatu **Toki fidagarriak**.

4. Kendu kokapena toki seguruen zerrendatik:
   - Maps-en gehitutako etxearen eta lantokiaren kokapenen kasuan, sakatu desaktibatu nahi duzun kokapenaren izena. Helbidea guztiz ezabatzeko, Maps-era joan behar duzu.
   - Gehitu dituzun toki pertsonalizatuen kasuan, sakatu kokapenaren izena, eta, ondoren, sakatu .

Telefonoa desblokeatuta izatea soinean eramatean

Telefonoa desblokeatuta izan dezakezu eskuan duzunean edo poltsikoan edo poltsan duzunean. Nahikoa da behin desblokeatzea; hala jarraituko du gainazal batean utzi arte (edo eskuz blokeatu arte).

1. Ziurtatu pantaila-blokeoa ezarri duzula.
2. Joan **Ezarpenak** aukerara.
3. Sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezarpen gehiago > Smart Lock**. Ez baduzu Smart Lock ikusten, egin hau:
   - Eguneratu Google Play-ren zerbitzuak. Pantaila nagusiko Googleren bilaketa-widgetean, bilatu «servicios de Google Play» eta sakatu aplikazioa, hura irekitzeko.
   - Ireki E**zarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezarpen gehiago > Fidagarritasun-agenteak** eta gaitu **Smart Lock**.
4. Desblokeatu telefonoa, eta, ondoren, sakatu **Soinean eramatea hautematea**.
5. Aktibatu.

Hatz-markaren bidezko segurtasun-erabilera

Hatz-markaren bidezko segurtasuna konfiguratzea

Erabili hatz-marken sentsorea telefonoa desblokeatzeko, erosketak online nahiz dendan azkar eta seguru egiteko eta finantza- eta banku-aplikazioetan saioa hasteko.

1. Ireki **Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna**.
2. Sakatu **Gailua blokeatzeko eginbideak > Aurpegi eta hatz-marka bidez desblokeatzeko eginbidea**.
3. Sakatu **Hatz-marka digitala**, eta, ondoren, desblokeatu telefonoa.
4. Egin kasu pantailan agertzen diren argibideei telefonoaren atzeko aldeko sentsorearen bidez zure aztarna digitala eskaneatzeko.

Hatz-markak era seguruan gordetzen dira telefonoan.

Hatz-marka digital gehiago gehitzea

Gogoratu:

1. Egiaztatu egoera-barran agertzen den. Hala bada, telefonoa deiak ahots-postontzira bidaltzen ari da, ez ongaitzeko. Sarrerako deiak jasotzean telefonoak jotzea nahi baduzu, ireki doikuntza azkarrak eta ukitu Ez molestatzeko modua desaktibatzeko.
2. Egiaztatu Ez molestatzeko modua aukeraren programazioak, eta ezabatu nahi ez dituzunak.
3. Lo egiteko garaiaren modua erabiltzen baduzu baina lo zaudela deiak ahots-postontzira bidali nahi ez badituzu, ukitu **Ezarpenak > Ongizate digitala eta guraso-murriztapenak > Lo egiteko garaiaren modua > Pertsonalizatu eta desaktibatu Ez molestatzeko modua lo egiteko garaiaren modurako**.
4. Ez molestatzeko modua hasteko, jarri telefonoa buruz behera jarrita gainazal baten gainean. Telefonoa ahuspez dagoenean deiak ahots-postontzira bidali nahi ez badituzu, ireki E**zarpenak > Audioa eta dardara > Poner boca abajo para Ez molestatzeko modua** eta desaktibatu aukera hori.

Deiak irauten duen bitartean sortzen diren arazoak

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den.

Pantaila beltz geratzen da

1. Estalkia, karkasa edo pantaila-babesgarria erabiltzen baduzu, kendu arazoaren eragilea den ikusteko.
2. Kontsultatu zure hurbiltasun-sentsorea.

   Egin dei bat eta utzi telefonoa mahaiaren gainean (ez erabili “Bozgorailu modua”). Ondoren, jarri eskua hurbiltasun-sentsorearen gainean, pantaila pizteko eta itzaltzeko gai zaren ikusteko.
3. Erabili modu segurua arazoaren eragileak aplikazioak diren egiaztatzeko, eta desinstalatu itzazu beharrezkoa balitz.

Deiak eten egiten dira

1. Egiaztatu seinalearen intentsitatea:

   - Operadorearen seinale ahula izan ohi da deiak eteteko arrazoi nagusia. Egoera-barran, egiaztatu sareko konexioaren barra-kopurua. Barra bat edo bi bakarrik agertzen badira, tokiz aldatu seinalearen intentsitatea hobetzeko, batez ere eraikin baten barruan bazaude.
2. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.

   Luze sakatu **pizteko** eta **bolumena igotzeko** botoiak batera, eta ukitu Itzali. Ondoren, piztu sareko beste konexio bat ezartzeko.
3. Dei batean zaudela, egiaztatu hurbiltasun-sentsoreak funtzionatzen duela hura estaliz, pantaila itzali dela baieztatzeko; horrela, ez dira teklak nahi gabe sakatzen deietan. Pantaila automatikoki blokeatzeko aplikazio bat ere deskarga dezakezu; bilatu “deietara pantaila-blokeoa” Play Storen.
4. Erabili modu segurua arazoaren eragileak aplikazioak diren egiaztatzeko, eta desinstalatu itzazu beharrezkoa balitz.
5. Egiaztatu telefonorako software-eguneratzerik badagoen eskura.
6. Telefonoa berrezartzea

Ez da entzuten deia egin bitartean

1. Egiaztatu ezerk ez duela mikrofonoa estaltzen:
   - Estalkia, karkasa edo pantaila-babesgarria erabiltzen baduzu, kendu arazoaren eragilea den ikusteko.
   - Egiaztatu telefonoarekin batera ematen den film babesgarria kendu duzula.
2. Egiaztatu telefonoa Pribatutasuna de Ahotsa aukera erabiltzen ari den. (Funtzio hori ez dago eskuragarri modelo guztietan.) Desaktibatu soinuaren kalitatea hobetzen den ikusteko:
   a. Sakatu .
   b. Sakatu > **Ezarpenak > Deiak**
3. Arazoa esku libreko gailu bat edo bluetooth bidezko entzungailuak erabiltzean agertzen bada, egiaztatu seinalearen intentsitatea.

   Egoera-barran, egiaztatu sareko konexioaren barra-kopurua. Barra bat edo bi bakarrik agertzen badira, tokiz aldatu seinalearen intentsitatea hobetzeko, batez ere eraikin baten barruan bazaude.
4. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.

   Sakatu **pizteko botoia** eta **bolumena igotzekoa** batera, eta ukitu Berrezarri, sarearekin konexio berri bat ezartzeko.
5. Egiaztatu telefonorako software-eguneratzerik badagoen eskura.
6. Desaktibatu Voice Match.
   a. Ireki Google aplikazioa.
   b. Sakatu zure profilaren ikonoa > **Ezarpenak > Google-ren Laguntzailea > Hey Google & Voice Match.**
   c. Desaktibatu **Hey Google** .

   «OK, Google» esaten baduzu, ez du pantaila guztietan funtzionatuko, baina bilaketa-widgeta sakatu eta ondoren «OK, Google» esan dezakezu.
7. Erabili modu segurua arazoaren eragileak aplikazioak diren egiaztatzeko, eta desinstalatu itzazu beharrezkoa balitz.
8. Telefonoa berrezartzea

Ez didate entzuten Meet edo WhatsApp aplikazioetan

1. Aplikazioa gelditzera behartu. Ekintza horrekin aplikazioa guztiz ixten da, baita arazoa eragin dezaketen atzeko planoko zerbitzuak ere.
2. Egiaztatu aplikaziorako eguneratzerik badagoen.
3. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.
4. Ezabatu aplikazioaren cachea.

Soinuaren kalitate txarra deia egin bitartean

Lehenik eta behin, egiaztatu bolumena (**Ezarpenak > Audioa eta dardara > Deien bolumena**).

Entzungailu kabledunak

1. Egiaztatu entzungailuak konektorean guztiz sartuta daudela.

2. Estalkia edo karkasa erabiltzen baduzu, kendu eta jar ezazu berriro, interferentziarik eragiten ari den egiaztatzeko.
3. Egin proba beste entzungailu batzuekin, entzungailuen arazoa den egiaztatzeko.

Entzungailua

1. Egiaztatu ezerk ez duela mikrofonoa estaltzen:
   - Estalkia, karkasa edo pantaila-babesgarria erabiltzen baduzu, kendu arazoaren eragilea den ikusteko.
   - Telefonoa plastiko babesle batekin iritsi bazaizu, kendu.
2. Dei bat egin bitartean, probatu esku libreko aukera edo kabledun entzungailuak soinuaren kalitatea hobetzen den ikusteko. Hala ez bada, litekeena da sareko seinalearen intentsitatean egotea arazoa, eta ez hardwarean.
3. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.

   Sakatu **pizteko botoia** eta **bolumena igotzekoa** batera, eta ukitu **Berrezarri**, sarearekin konexio berri bat ezartzeko.
4. Erabili modu segurua arazoaren eragileak aplikazioak diren egiaztatzeko, eta desinstalatu itzazu beharrezkoa balitz.
5. Egiaztatu telefonorako software-eguneratzerik badagoen eskura.
6. Telefonoa berrezartzea

Bluetootha darabilten gailuak

Egiaztatu bluetootha darabilen gailuaren eta telefonoaren bateria-maila, eta karga itzazu beharrezkoa balitz. Bluetootha darabilten gailuak deskonektatu egin daitezke edo zaratak eragin, telefonoak edo bluetootha darabilen gailuak bateria gutxi dutenean.

Karga-arazoak

Probatu urrats hauek arazoak konpontzeko. Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den.

1. Egiaztatu USB konektorea behar bezala sartzen dela telefonoan.
2. Bateria guztiz deskargatuta badago, konektatu kargadorea eta itxaron 10 minutu inguru kargatzeko beste tentsio izan arte. Ondoren, sakatu pizteko botoia.
3. Hormako hartune batera konektatuta kargatzen baduzu:
   - Hartunea etengailu baten bidez kontrolatzen bada, egiaztatu piztuta dagoela.
   - Erabili telefonoarekin datorren kargagailua edo kargagailu bateragarri bat.
   - Kendu kargatzeko edo atakako konexioa galarazten duen edozein estalki.
   - Aztertu kargagailua kableak eta konektoreak kalterik ez dutela ziurtatzeko. Kalteren bat behatuz gero, saiatu USB kable bidez ordenagailu batera konektatuta kargatzen.
   - Begiratu hormako hartuneak kalterik edo aske dagoen osagairik baduen. Kalteren bat behatuz gero, erabili beste hartune bat.
4. Ordenagailura konektatuta kargatzen baduzu, egiaztatu USB konexioa:
   a. Irristatu egoera-barra beherantz.
   b. USB jakinarazpenean, sakatu eta, ondoren, sakatu jakinarazpena.
   c. Sakatu **Sin transferencia de datos**.
5. Berrabiarazi telefonoa; luze sakatu pizteko botoia 7-10 segundoz.
6. Berrezarri telefonoa.

Kargatu bitartean telefonoa berotu egiten da

TurboPower kargagailuak kargatze azkar eta eraginkorra eskaintzen du, eta bateria berotzea eragin dezake; normala da. Bateria 44 °C-ra iristen bada, karga-abiadura jaisten da. Bateria hozten den unean, kargagailuak kargatze azkarra abian jartzen du berriro.

TurboPower kargak ez du funtzionatzen

Bateria % 78tik behera dagoenean, TurboPower kargagailuak azkar kargatzen du. Bateria % 78an edo hortik gora dagoenean, abiadura normalean kargatzen du.

Bateria % 78tik behera egon eta ez badu azkar kargatzen, deskonektatu telefonoa kargagailutik eta konekta ezazu berriro.

Bateria azkarregi agortzen da

Aldaketak bateriaren iraupenean

Telefonoa erabiltzeko moduak izugarri eragiten du bateriak berriro kargatu bitartean duen iraupenean. Nabigatzeko, jokoetan aritzeko, Interneten nabigatzeko, deiak egiteko eta mezuak bidaltzeko, energia behar da.

Horregatik, bateriaren iraupena ez da beti berdina, telefonoa erabiltzen duzun moduaren arabera.

Bateria espero baino lehen agortzen bada

Bateriak ohi baino gutxiago iraun duela iruditzen bazaizu, telefonoa berrabiaraztea da urrats erraz eta azkar bat, batez ere astebetez edo luzaroago itzali ez baduzu.

1. Luze sakatu pizteko eta bolumena igotzeko botoiak aldi berean.
2. Sakatu **Berrezarri**.
3. Entxufatu telefonoa eta normal kargatu.

Aholkua: Bateriaren iraupena luzatzeko moduan ezar dezakezu konfigurazioa.

Arazoak bluetootharekin

Bluetootha automatikoki aktibatzea

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den:

1. Bluetooth-konexioa desaktibatuta dagoenean, telefonoak aurretik lotutako gailu bat bilatzen eta automatikoki konektatzen jarraitu dezake. Hori saihesteko, desaktibatu Bluetooth bidezko gailuen bilaketa.
2. Bluetootha darabilten gailuak kontrolatzen dituzten hirugarrenen aplikazio batzuek (erloju adimendunak, ariketa-gailua, ibilgailuetakoak eta abar) automatikoki aktibatzen dute bluetooth-konexioa. Horrek bluetooth-konexioa desaktibatzea galaraz dezake.

   Instalatutako hirugarrenen aplikazio batek Bluetooth-konexioa automatikoki aktibatzen duen egiaztatzeko, erabili modu segurua arazoak eragiten dituen aplikazioa identifikatu eta desinstalatzeko.

Ezin da konexiorik ezarri

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den:

1. Hasteko, oinarrizkoa probatu.
2. Egiaztatu telefonoa eta bluetootha darabilen gailua seinalea atzemateko moduan daudela.
3. Eguneratu dauden gailuen zerrenda.
   a. Ireki **Ezarpenak** > **Konektatutako gailuak**.
   b. Sakatu **Parekatu beste gailu batekin**
4. Egiaztatu telefonorako software-eguneratzerik badagoen eskura.
5. Autoarekin lotzeko arazoak badituzu, kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzailearen argibideak zure modelorako.
6. Berrezarri telefono-konexioak, eta, ondoren, berrabiarazi telefonoa.

Ezin da aurretik lotutako gailua berriro konektatu

Kendu bluetootha darabilen gailuaren lotura, eta lotu berriro:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Konektatutako gailuak**.
2. Lotutako gailuaren ondoan, sakatu > **AHAZTU**.
3. Lotu gailua berriro.

Ezin da musika entzun

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den:

1. Hasteko, oinarrizkoa probatu.
2. Egiaztatu telefonoaren, ibilgailuaren edo bluetootha darabilen gailuaren bolumena piztuta dagoela.
3. Egiaztatu telefonoari lotutako gainerako gailuak ez direla ari musika erreproduzitzen.

4. Egiaztatu **Audio multimedia** aktibatuta dagoela:
   a. Ireki **Ezarpenak** > **Konektatutako gailuak**.
   b. Lotutako gailuaren ondoan, sakatu .
   c. Ziurtatu **Audio multimedia** aktibatuta dagoela.
5. Arazoa ibilgailuarekin erlazionatuta badago, kontsultatu haren argibideak.

Ezin dira deiak egin, ez eta solaskideari entzun ere

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den:

1. Egiaztatu telefonoari lotutako gainerako gailuak ez direla ari deiak jasotzen.
2. Egiaztatu **Gailuaren audioa** aktibatuta dagoela:
   a. Ireki **Ezarpenak** > **Konektatutako gailuak**.
   b. Lotutako gailuaren ondoan, sakatu .
   c. Ziurtatu **Gailuaren audioa** aktibatuta dagoela.
3. Arazoa ibilgailuarekin erlazionatuta badago, kontsultatu haren argibideak.

Konexioa galtzea

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den:

1. Egiaztatu telefonoaren eta bluetootha darabilen gailuaren bateria-maila, eta karga itzazu beharrezkoa balitz. Bluetootha darabilten gailuak deskonektatu egin daitezke edo zaratak eragin telefonoak edo bluetootha darabilen gailuak karga gutxi dutenean.
2. Doitu posizioa:
   - Ziurtatu gailua zuzen duzula kokatuta.
   - Objektu metalikoak (giltzak, txanponak eta abar) telefonotik eta gailutik urrun eduki, interferentziak saihesteko.
3. Ezabatu aplikazio honen datuak sistematik:
   a. Ireki **Ezarpenak** > **Aplikazioak** eta, gero, sakatu **Aplikazio guztiak**
   b. Sakatu > **Erakutsi sistemaren prozesuak**
   c. Sakatu **Bluetooth** > **Memoria eta cachea** > **GARBITU MEMORIA**

Lotutako gailuak ezin ditu kontaktuak ikusi

Egiaztatu kontaktuen erabilera partekatua aktibatuta dagoela:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Konektatutako gailuak**.
2. Lotutako gailuaren ondoan, sakatu .
3. Ziurtatu **Partekatu Kontaktuak** aktibatuta dagoela.
4. Egiaztatu eta doitu erabilera partekatuaren konfigurazioa lotutako gailuan edo gailuko aplikazioan.

Arazoa konpontzeko: egiaztatu oinarrizkoa

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den:

1. Egiaztatu telefonoaren eta bluetootha darabilen gailuaren bateria-maila, eta, bietakoren batek bateria gutxi badu, kargatu ezazu.
2. Telefonoa eta bluetootha darabilen gailua bata bestetik 10 metro baino gutxiagora jarri, eta hurbildu itzazu errendimendu hobea izateko.
3. Telefonoan, desaktibatu bluetooth-konexioa eta aktibatu berriro.
4. Itzali bluetootha darabilen gailua deskonektatzeko. Ondoren, piztu berriro telefonoarekin automatikoki konektatzeko.
5. Itzali eta piztu telefonoa eta bluetootha darabilen gailua.

Horrek arazoa konpontzen ez badu, egin aurreko ataletan arazo espezifikoak ebazteko urratsak.

Arazoak wifiarekin

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den.

Sare batera konektatu ezin izatea

1. Konektatzeko pasahitza idaztean:
   - Wifi-bideratzailean aurkituko duzu pasahitza; ziurtatu telefonoan behar bezala sartu duzula.
   - **KONEKTATU** botoia ilunduta agertzen bada, idatzitako pasahitza laburregia da. Egiaztatu pasahitza bideratzailean eta idatzi berriro telefonoan.
2. Egiaztatu telefonorako software-eguneratzerik badagoen eskura.
3. Egiaztatu wifi-bideratzailearen firmwarea eguneratuta dagoela.
4. Berrezarri telefonoaren sareko konexioak.
5. Telefonoa berrezartzea

Konexioa galtzea

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den.

1. Desaktibatu wifi-bilaketa.
2. Ezabatu sare-konexioa Ondoren, konfiguratu berriro wifi-konexioa.
3. Egiaztatu telefonorako software-eguneratzerik badagoen eskura.
4. Haririk gabeko bideratzailea berrabiarazteko, deskonektatu elikatze-hartunetik 30 segundoz, eta, ondoren, entxufatu berriro. Haririk gabeko bideratzailea berriz martxan jarritakoan, saiatu berriro konektatzen.

5. Ordenagailu batean, hasi bideratzailearen saioa eta probatu bideratzailearen ezarpen hauetako bat edo gehiago
   - Bideratzaileak hainbat banda baditu, desaktibatu gaitasun txikiena duen banda.
   - Aldatu SSIDren pasahitzaren zifratze-/segurtasun-ezarpena, WPAtik WPA-PSK aukerara.
   - Ez erabili kanalen hautatze automatikoa. Horren ordez, kanal finko bat esleitu; adibidez, 6. kanala.
6. Berrezarri telefonoaren konexioak.

Wifi-guneko arazoak

Sarbide-puntua aktibatu ezin baduzu, egiaztatu:

- Datu mugikorrak aktibatuta daudela.
- Datuak aurrezteko funtzioa aktibatuta dagoela.

Ordenagailu edo tableta bat zure telefonoaren wifi-gunean konektatu ezin baduzu:

1. Litekeena da telefonoaren sare mugikorra barrutitik kanpo egotea. Egiaztatu egoera-barrako seinalearen ikonoa, konektagarritasun altua duela egiaztatzeko. Hala ez bada, egin urrats hauek arazoa konpontzeko.
2. Idatzi berriro telefonoan konfiguratutako wifi-gunearen pasahitza gailuan. Ziurtatu zifratze-motak eta segurtasun-ezarpenek bat egiten dutela gailuan eta telefonoan.
3. Deskonektatu eta konektatu berriro:
   a. Desaktibatu gailuaren konexioa.
   b. Itzali telefonoaren wifi-gunea.
   c. Berrabiarazi gailua.
   d. Itxaron minutu bat; ondoren, piztu eta aktibatu telefonoaren wifi-gunea.
   e. Konektatu gailua berriro.

Ordenagailu edo tableta bat konektatu baduzu, baina ezin bada webgune jakin batzuetan sartu:

1. Itzali eta piztu berriro ordenagailua edo tableta.
2. Ziurtatu nabigatzailearen bertsioa eguneratuta dagoela.

Ezin dira fitxategiak transferitu, ez eta telefonoa ordenagailura konektatu ere

Telefonoa ordenagailura konektatzeko USB konexio bat erabiltzean arazoak badituzu, probatu urrats hauek arazoak konpontzeko.

Aztertu ordenagailua

Windows ordenagailua

1. Egiaztatu ordenagailuaren ezarpenak Windowsek hardware berria automatikoki atzematen duela berresteko.
2. Berrabiarazi ordenagailua.

Mac ordenagailua

- Egiaztatu ordenagailuak Mac OS X 10.5 sistema eragilea edo berriagoa erabiltzen duela.
- Egiaztatu ordenagailuak Android File Transfer instalatuta eta irekita duela.
- Berrabiarazi ordenagailua.

Aztertu telefonoa

1. Egiaztatu telefonorakosoftware-eguneratzerik badagoen eskura.
2. Sakatu telefonoaren pizteko botoia 5-7 segundoz, edo 30 segundora arte.

Aztertu USB konexioa

1. Probatu beste USB kable bat. USB kable guztiek ezin dituzte fitxategiak transferitu.
2. Telefonoaren USB atakak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, konektatu telefonoa beste ordenagailu batera.
3. Ordenagailuaren USB atakak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, konektatu beste gailu bat ordenagailura.

Desblokeatzeko kodea ahaztu dut

Pantailaren PIN kodea edo desblokeatzeko eredua ahaztu baduzu, telefonoaren informazioa ezabatu, berriro konfiguratu eta beste pantaila-blokeo bat ezarri beharko duzu.

1. Ziurtatu helbidea eta Gmail-eko pasahitza badakizkizula, telefonoa konfiguratzeko beharko dituzu eta. Ahaztu badituzu, erabili Googleren webgunea haiek berreskuratzeko.
2. Egin telefonoaren kanpo-berrezarpen bat.

Ezin dut Googlen saioa hasi

Googleko konturako Gmail-eko helbidea eta pasahitza ahaztu badituzu:

1. Joan Googleren webgunera pasahitza berrezartzeko.
2. Ordenagailuan, hasi saioa Gmail-en eta berretsi pasahitz berriak funtzionatzen duela.
3. Pasahitza aldatu ondoren, itxaron 24 ordu gailua berrezartzeko. Segurtasun-arrazoiak direla eta, berrezarri ostean ezin duzu kontu bat erabili telefonoa konfiguratzeko, pasahitza azken 24 orduetan aldatu bada.

Kontua sinkronizatzeko arazoak

Googleren kontuak sinkronizatzeko arazoak baditu, litekeena da mezu bat edo ikonoa ikustea.

Kasu gehienetan, arazoak aldi baterakoak dira, eta kontua minutu gutxiren buruan sinkronizatzen da berriro. Sinkronizatzeko arazoekin jarraitzen baduzu, probatu hemen azaltzen diren aukerak.

Kontua eskuz sinkronizatzea

1. Ireki **Ezarpenak** > **Pasahitzak eta kontuak**.
2. Sakatu sinkronizatu nahi duzun kontua.
3. Sakatu **Sinkronizatu kontua**

Telefonoa sinkronizatzen bada, arazoa ebatzita dagoela esan nahi du. Ez bada sinkronizatzen, probatu hemen azaltzen diren konponbideak.

Arazoetarako oinarrizko konponbideak

Urrats bakoitzaren ondoren, probatu eskuz sinkronizatzen, funtzionatzen duen ikusteko.

1. Egiaztatu sinkronizazio automatikoa aktibatuta dagoela.
   a. Ireki **Ezarpenak** > **Pasahitzak eta kontuak**.
   b. Sakatu kontua.

      Kontuaren izenaren ondoan agertzeak esan nahi du informazioaren zati bat edo guztia automatikoki sinkronizatzeko konfiguratuta dagoela.

      Kontuaren izenaren ondoan agertzeak esan nahi du ez dagoela automatikoki sinkronizatzeko konfiguratuta.
2. Ziurtatu Interneterako konexioak funtzionatzen duela.

   Sinkronizatzeko, Interneterako konexioa behar da. Konexioak funtzionatzen duela egiaztatzeko, ireki nabigatzaile bat eta kargatu webgune bat. Orria kargatzen ez bada, konektatu wifi-sare batera edo datu mugikorretara.
3. Egiaztatu kontuan arazorik duzun.

   Sinkronizazioa gerta dadin, Googleko kontuan saioa hasteko aukera izan behar duzu. Ziurtatu beste era batera eta beste gailu batekin kontuan saioa has dezakezula. Adibidez, ordenagailuko nabigatzailean zure Gmail-kontua egiazta dezakezu.

   - Saioa has badezakezu, arazoa telefonoan dago, eta hurrengo konponbidera joan zaitezke.
   - Saioa hasi ezin baduzu, litekeena da kontuarekin arazoren bat izatea.
4. Egiaztatu telefonorako software-eguneratzerik badagoen eskura.

Arazoetarako konponbide aurreratuak

Urrats bakoitzaren ondoren, probatu eskuz sinkronizatzen, funtzionatzen duen ikusteko.

1. Ezabatu eta gehitu berriro kontua.
2. Ezabatu Kontaktuak aplikazioaren cachea eta datuak.
   a. Sinkronizatu duzun azkeneko alditik kontakturen bat gorde baduzu, egin babeskopia bat. Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta sakatu > . Ondoren, esportatu VCF fitxategi batera, eta bidali posta elektronikoz.
   b. Ezabatu Kontaktuak aplikazioaren cachea eta datuak.
   c. Deskargatu zure buruari posta elektronikoz bidalitako VCF fitxategia eta inportatu kontaktuak (**Kontaktuak** > >).

Arazoak aplikazioekin edo widgetekin

Pantaila nagusian widget edo aplikazio bat falta da

Pantaila nagusian widget bat desagertzen bada, gehitu widgeta pantaila nagusian eremu huts bat luze sakatuta.

Pantaila nagusian aplikazio bat desagertzen bada, aplikazioa irekitzeko lasterbidea ezabatu da; nahikoa da lasterbide bat gehitzea.

Aplikazio bat aplikazioen zerrendatik desagertzen bada, berriro instalatu beharko duzu.

Aplikazioa blokeatu egiten da, ez da irekitzen edo ez du funtzionatzen

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den:

1. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.

   Luze sakatu **pizteko** eta **bolumena igotzeko** botoiak batera, eta sakatu Berrezarri.
2. Egiaztatu ez dituzula desgaitu aplikazioaren baimenak. Desaktibatuta badaude, aktiba itzazu, eta saiatu aplikazioa berriro erabiltzen.
3. Eguneratu aplikazioa.
4. Aplikazioa gelditzera behartu. Ekintza horrekin aplikazioa guztiz ixten da, baita arazoa eragin dezaketen atzeko planoko zerbitzuak ere.
5. Ezabatu aplikazioaren cachea. Ekintza horrek tokia libratzen du, aldi baterako fitxategiak ezabatzen baititu.
6. Ezabatu aplikazioaren datuak. Ekintza horrek aplikazioan gordetako datu guztiak ezabatzen ditu.
7. Jarri harremanetan aplikazioaren garatzailearekin.
   a. Ireki Play Store aplikazioa.
   b. Sakatu zure profil-ikonoa > **Kudeatu aplikazioak eta gailua**
   c. Sakatu aplikazioa eta irristatu kontaktuaren informazioa ikusteko.
8. Beste guztiak huts egiten duenean, kendu aplikazioa.

Aholkua: Errendimendu-arazoak hirugarrenen zer aplikaziok eragiten dituen aurkitzeko, erabili modu segurua.

Aplikazioa desgaituta modu seguruan

Modu seguruan egoteagatik aplikazioak desgaituta badaude, ezingo dituzu erabili modu horretatik atera arte.

Modu segurutik irteteko, itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.

Aplikazioak ezin badituzu eguneratu

«Zain» egoeran dauden aplikazioak badaude, eguneratu lehenik Chrome aplikazioa.

1. «Deskargak zain» pantailan, utzi bertan behera deskarga guztiak.
2. Irristatu **Chrome**rantz eta sakatu **Eguneratu**.
3. Chrome eguneratu ondoren, ukitu.

   Aplikazioa normal eguneratuko da.

Arazoak instalatutako aplikazio batekin

Urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den:

1. Egiaztatu aplikaziorako eguneratzerik badagoen.
2. Aplikazioa ireki ahal baduzu, sakatu edo > **Laguntza** eta bilatu arazoa ebazteko informazioa.
3. Ezabatu aplikazioaren cachea.
4. Joan garatzailearen webgunera laguntza eskuratzeko.
   a. Ireki Play Store aplikazioa.
   b. Sakatu zure profil-ikonoa > **Kudeatu aplikazioak eta gailua**.
   c. Sakatu aplikazioa eta irristatu beherantz webgunerako esteka ikusteko.

Arazoak kamerarekin

Argazkia lausotuta ikusten da

Garbitu lentea zapi leun eta lehor batekin, eta atera argazkia berriro. Beste argazki horiek ere lausotuta badaude:

- Handitu bereizmena (argazkiaren tamaina) kameraren aplikazioan. Irudiaren tamaina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da haren kalitatea.
- Ez erabili zooma argazkia egitean, argazki digitaletan zooma erabiltzean pixelatu egiten delako beti. Argazkia ateratzen duzun unean erabiltzen baduzu zooma, pixelak nabarmenagoak izango dira.
- Eraikin baten barruan bazaude eta argazki panoramiko bat egin behar baduzu, aldatu modu arruntera. Efektu horrek hobeto funtzionatzen du kanpoan ateratako argazkiekin, irudiak lotzen dituen algoritmoa ez baitago optimizatuta barruan ateratako lehen planoetan erabiltzeko.

Argazkiak nahi gabe ezabatu dira

Duela gutxi ezabatutako argazkiak berreskuratzen saia zaitezke.

Berreskuratzen badituzu, egiaztatu argazkien babeskopia bat egiten duzula hodeian.

Argazki bat ezin da ezabatu

Ezabatutako argazki edo bideo bat berriro agertzen bada, egiaztatu SD txartelean dagoen. Ezabatzeko, erabili Files aplikazioa. (Aplikazio hori ez baduzu, fitxategi-administratzailearen aplikazio bat deskarga dezakezu, eta txarteleko argazkia ezabatzeko erabil dezakezu).

Edo atera txartela telefonotik eta erabili ordenagailua argazkiak ezabatzeko.

Arazoak WhatsApp-eko kamerarekin

WhatsApp instalatu eta aplikazioarekin argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko arazoak badituzu:

1. Egiaztatu aplikaziorako eguneratzerik badagoen.
2. Ezabatu aplikazioaren cachea.
3. Arazoak bere horretan jarraitzen badu, ireki WhatsApp, sakatu > **Ezarpenak > Laguntza** eta bilatu arazoari buruzko informazioa.

Errorea: berrabiarazi kamera

Arazoak konpontzeko urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den.

1. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.
2. Ezabatu kameraren aplikazioaren cachea eta datuak.
3. Egiaztatu kameraren aplikaziorako eguneratzerik dagoen.
4. Erabili modu segurua arazoaren eragileak aplikazioak diren egiaztatzeko, eta desinstalatu itzazu beharrezkoa balitz.

   Kamerak modu seguruan behar bezala funtzionatzen badu, litekeena da hirugarrenen aplikazio bat izatea arazoaren eragilea.
5. SD txartelean gordetako argazkiak/bideoak badituzu, atera txartela eta egiaztatu errorerik gabe argazkiak egin ditzakezun. Hala bada, SD txartelaren ordez beste bat jarri. Ziurtatu txartel berriak A1 ziurtagiria duela eta idazteko abiadura handia duela.

Errorea: kamera okupatuta dago

Errore hori gerta daiteke kamera aplikazio batean erabili ondoren, kamera atzitzeko baimena behar duen beste aplikazio batera aldatuz gero.

Arazoak konpontzeko urrats bakoitza egin ondoren, egiaztatu arazoa ebatzi den.

1. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.
2. Egiaztatu zer aplikaziok duten kamera atzitzeko baimena.

   Ezarpenak > Aplikazioak> Kamera

   Berrikusi zure telefonoan kamera atzitzeko baimena behar duten aplikazioen zerrenda, eta kendu baimena aplikazio susmagarriei edo erabiltzen ez dituzunei.
3. Ezabatu kameraren aplikazioaren cachea eta datuak.

Errorea: zaborrontzia beteta dago

Zaborrontzia beteta dagoela jakinarazten dizuten mezuak jasoz gero:

1. Ireki **Fotos** aplikazioa.
2. Sakatu **Biblioteca** > **Papelera**.
3. Sakatu > **Vaciar la Papelera**.
4. Sakatu **Eliminar definitivamente** ezabatzea berresteko.

Arazoak mezuekin

Mezuak bidaltzeko edo jasotzeko arazoak izaten ari bazara, egin ekintza hauek:

1. Egiaztatu mezuen aplikaziorako eguneratzerik badagoen.
2. Egiaztatu telefonorako software-eguneratzerik badagoen eskura.
3. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.
4. Arazoak bere horretan jarraitzen badu, egin ondoren aipatzen diren arazo espezifikoak konpontzeko urratsak. Arazoak konpontzeko urratsak egin ondoren, egiaztatu arazoa konpondu den.

Gorria SMS/MMSan

ikusten baduzu, mezua ez da bidali.

1. Egiaztatu seinalearen intentsitatea:

   Operadorearen seinale ahula izan ohi da SMS/MMS mezuak bidali gabe geratzearen arrazoi nagusia. Egoera-barran, egiaztatu sareko konexioaren barra-kopurua. Barra bat edo bi bakarrik agertzen badira, tokiz aldatu seinalearen intentsitatea hobetzeko, batez ere eraikin baten barruan bazaude.

2. Ireki elkarrizketa eta bidali mezua berriro.

Ezin ditut jakinarazpenak entzun

1. Egiaztatu mezuen jakinarazpenak aktibatuta dauden.
2. ikonoa agertuko da egoera-barran. Ikusiz gero:
   - Ireki ezarpen bizkorrak eta sakatu Ez molestatzeko modua desaktibatzeko.
   - Ziurtatu deiak tarte egokietan iragazteko konfiguratuta dagoela telefonoa.
3. Hirugarrenen abiarazle bat erabiltzen ari bazara, erabili berriro Moto abiarazlea. Horrek arazoa konpontzen ez badu, erabili beste abiarazle bat.

Ezin da SMSrik/MMSrik bidali edo jaso

1. Aldatu zure sare gogokoa **Mundial** aukerara. Operadore batzuek ez dute onartzen funtzio hori.
2. Duela gutxi iPhone-a aldatu eta mezuak bidaltzeko edo jasotzeko arazoak badituzu, litekeena da telefono-zenbakia aurreko telefonoko iMessage-rekin lotuta egotea oraindik. Zure kontuari baja eman beharko diozu.
3. Jarri harremanetan zure operadorearekin.

Ezin da irudirik edo bideorik bidali edo jaso

Egiaztatu:

- Datu mugikorrak aktibatuta daudela.
- Zure datu-plana bateragarria dela MMSekin (multimedia-mezuak).

Mezuak aplikazioa ez dabil

1. Egiaztatu ez dituzula desgaitu Mezuak aplikazioaren baimenak. Desaktibatuta badaude, aktiba itzazu, eta saiatu aplikazioa berriro erabiltzen.
2. Aplikazioa gelditzera behartu. Ekintza horrekin aplikazioa guztiz ixten da, baita arazoa eragin dezaketen atzeko planoko zerbitzuak ere.
3. Desinstalatu duela gutxi egindako aplikazioen eguneratzeak.

   Luze sakatu eta, ondoren, sakatu **Aplikazioen informazioa** > > **Desinstalatu eguneratzeak**
4. Ezabatu aplikazioaren cachea. Ekintza horrek tokia libratzen du, aldi baterako fitxategiak ezabatzen baititu.
5. Berrezarri telefonoa.

Teklatua ez dabil

Teklatuak arazoak baditu, zuriune-barra agertzen ez bada, adibidez:

1. Egiaztatu teklatuaren aplikaziorako eguneratzerik badagoen.
2. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.
3. Ezabatu teklatuaren aplikazioaren cachea.

Arazoak Facebook-ekin, WhatsApp-ekin eta beste aplikazio batzuekin

Instalatuta dituzun mezularitza-aplikazioekin arazoak badituzu:

1. Egiaztatu aplikaziorako eguneratzerik badagoen.
2. Aplikazioa ireki ahal baduzu, sakatu edo > **Laguntza** eta bilatu arazoa ebazteko informazioa.
3. Itzali telefonoa, eta, ondoren, piztu berriro.
4. Ezabatu aplikazioaren cachea.

Arazoak Gmail-ekin

Gmail-ekin laguntza behar baduzu, ikusi Googlen nola konpondu dezakezun arazoa.

Arazoak Play Store-rekin

Play Store-rekin laguntza behar baduzu, ikusi Googlen nola konpondu dezakezun arazoa.

Android softwarea eguneratzea

Errendimendu onena eskuratzeko, Android-en softwarearen azken bertsiora eguneratuta izan telefonoa.

Android-en bertsioa egiaztatzea

Telefonoaren Android-en bertsioa egiaztatzeko:

1. Joan **Ezarpenak** > **Telefonoari buruz** > **Android-en bertsioa** aukerara.
2. Hor agertzen den zenbakia telefonoaren Android-en bertsioa da.

Android-erako software-eguneratzeak instalatzeko modua

Telefonoak jakinarazi egiten dizu Android-en software-eguneratzea eskuragarri dagoenean.

Eguneratzeak eskuz bilatzeko, joan **Ezarpenak** > **Actualizaciones del sistema** > **Buscar actualizaciones del sisGaia** aukerara.

Eguneratzeren bat eskuragarri badago, jarraitu pantailako argibideei hura instalatzeko.

Aholkuak:

- Datu-tarifan kargu gehigarriak aurrezteko, erabili wifi-konexioa software-eguneratzeak deskargatzeko.
- Segurtasun-arrazoiak direla eta, litekeena da telefonoak segurtasun-eguneratzeak (ez sistema eragilearen eguneratzeak) automatikoki deskargatzea sare mugikorraren bidez, segurtasun-eguneratzea eskuragarri dagoela dioen jakinarazpena jaso eta egun batzuetako epean wifi-konexioa eskuragarri ez badago. Kasu horretan, litekeena da karguak aplikatzea datuak erabiltzeagatik, operadorearen arabera.

Eguneratze bat instalatu ondoren, ezin da softwarearen aurreko bertsioa berreskuratu.

Eguneratzerik eskuragarri dagoen eta noizko egongo den egiaztatzea

Eguneratze-motak:

- **Segurtasun-eguneratzeak**: bertsiorako zuzenketak eta Googleren hobekuntzak dituzte uneko Android sistema eragilerako. Motorolak aldizka eskaintzen ditu telefono gehienetarako eguneratzeak.
- **Android sistema eragilearen eguneratzeak**: Android sistema eragilearen bertsio berriak dira. Motorolak Google-ren sistema eragilearen eguneratzeak eskaintzen ditu dagozkien telefonoetarako, eskuragarri dauden unean.

Sistema eragilearen eguneratze bat zure telefonorako eskuragarri egongo den jakiteko edo zure telefonoa segurtasun-eguneratzeekin bateragarria den jakiteko, kontsultatu zure herrialdeko software-eguneratzeen webgunea. Gure laguntza teknikoko agenteek ere webgune hori erabiltzen dute Android-eko eguneratzeei buruzko informazioa eskuratzeko. Webgunean ez bada agertzen zure telefonorako eguneratzearen argitaratze-datarik, horrek esan nahi du oraindik ez dagoela halakorik.

Android sistema eragilerako eguneratzeen kasuan, zenbait telefono-modelo, eskualde eta banaketa-kanaletarako ehunka software-bertsio egiaztatu behar ditugu zure telefonorako eguneratze bat argitaratu aurretik. Operadoreekiko eta funtsezko beste bazkide batzuekiko mendekotasunaren ondorioz, ziurtagiriek, proba independenteek eta aldaketa-eskaerek denbora gehiago behar dute; horregatik, telefonoen jabeek ez dituzte eguneratzeak aldi berean jasotzen, eskualde berean egonda ere.

Konexioak, doikuntzak edo aplikazioak berrezartzea

Probatu berrezartzeko aukera hauek telefonoaren funtzio espezifikoekin arazoak badituzu. Arazoa konpontzen ez bada, telefonoa berrezartzen saia zaitezke.

Nola berrezarri wifi-konexioa, bluetootha eta datu mugikorrak

Noiz erabili berrezarpena

- Wifi-konexioa ez dabil. Wifi-sarearen izena ez da agertzen telefonoan.
- Datu mugikorrak: seinalerik gabe eta egoera-barran. Ezin duzu deirik egin edo jaso, edo deiak maiz eteten dira.
- Bluetooth konexioa ez dabil edo automatikoki deskonektatzen da
- VPN konexioak ez du espero bezala funtzionatzen.

Zer ezabatzen da telefonoa berrezartzean?

- Telefonoan konfiguratutako wifi gailu eta pasahitz guztiak
- Doikuntza mugikor guztiak, hala nola sare mugikor gogokoena
- Telefonoarekin konektatzeko konfiguratu diren Bluetooth gailu guztiak, hala nola entzungailuak, autoetako audio-sistemak eta bozgorailuak
- Telefonoan konfiguratutako VPN konfigurazio guztiak

Ezin dituzu berrezarri nahi dituzun banakako konexioak hautatu; denak berrezarriko dira.

Berrezartzea

Konexioekin arazoak badituzu, berrikusi informazio hau lehendabizi:

- Wifia
- Bluetootha
- Datu mugikorrak
- Wifi-gunea (Interneten erabilera partekatua)

Ondoren, arazoak izaten jarraitzen baduzu, berrezarri sareko ezarpen guztiak beste behin:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Sistema** > **Berrezartzeko aukerak**
2. Sakatu **Berrezarri wifia, Bluetooth-a eta sare mugikorrak** > **Berrezarri ezarpenak**.
3. SIM bikoitza erabiltzen ari bazara, hautatu zer SIM txartel berrezarri nahi duzun datu mugikorren ezarpenetarako.
4. Sakatu **Berrezarri ezarpenak**.
5. Konektatu berriro wifi-sarera, datu mugikorretara eta bluetoothera edo saiatu Interneterako konexioa berriro partekatzen.

Aplikazioetako ezarpenak berrezartzea

Noiz erabili berrezarpena

Berrezartzeak ez dizu uzten aplikazioak banaka aukeratzen; aplikazio guztiak berrezarriko dira.

Aplikazio guztiak berrezarri aurretik, aplikazio batekin edo birekin arazoak badituzu, berrezarri aplikazioak banan-banan.

Berrezarri aplikazio guztiak, arazo hauek izaten jarraitzen baduzu:

- Aplikazioa maiz blokeatzen da edo ez da irekitzen
- Aplikazioak ez du espero bezala funtzionatzen
- Aplikazioak bateria edo datu gehiegi erabiltzen ditu
- Aplikazioak mezuak edo errore-jakinarazpenak bidaltzen ditu
- Aplikazioak telefonoa moteldu edo blokeatzea eragiten du

Zer ezabatzen da telefonoa berrezartzean?

- Aukeratu aplikazio lehenetsiak funtzio espezifikoetan erabiltzeko edo berariazko fitxategi-motak irekitzeko; berriro aukeratzeko eskatuko zaizu.
- Aplikazioen erretiluan edo hasierako pantailan bistaratu ez daitezen eskuz desgaitu dituzun aplikazioak berriro agertuko dira; berriro ezgaitu ditzakezu.
- Aplikazioen jakinarazpenetarako ezartzen dituzun lehentasunak berrezar ditzakezu; adibidez, jakinarazpenen edukia blokeo-pantailan ezkutatzea..
- Aplikazioen baimenak eta bigarren mailako datuak aldatzea.

Berrezartzea

Aplikazio guztiak berrezartzeko.

1. Ireki **Ezarpenak > Sistema > Berrezartzeko aukerak**
2. Sakatu **Berrerazi aplikazioen hobespenak**
3. Ukitu **Berrezarri aplikazioak**

Oinarrizko bandaren doikuntzak berrezartzea

Telefonoaren sareko konexioak berrezartzen ditu.

Noiz erabili berrezarpena

- Mugikor-seinalea ahula denean
- Deiak sarri eteten direnean
- Telefonoak zailtasunak dituenean datu mugikorretara konektatzeko

Zer ezabatzen da telefonoa berrezartzean?

- Sarbide-puntu mugikorraren izena (APN)
- Aukeratutako sare mugikorraren modua
- Sarearen beste doikuntza espezifiko batzuk

Berrezartzea

1. Ireki **Ezarpenak > Sistema > Berrezartzeko aukerak**
2. Sakatu **Reset baseband settings**.
3. Sakatu **Reset and restart**.

Telefonoa berrabiaraztea

Berrezartzearen ondorioak

Telefonoa berrezartzean, datu guztiak ezabatzen dira eta jatorrizko egoerara leheneratzen da. Telefonotik datu hauek ezabatuko dira:

- Googleko kontua
- Multimedia-fitxategiak (musika, argazkiak, bideoak)
- Sistemaren ezarpenak eta datuak
- Aplikazioaren ezarpenak eta datuak (SMS/MMS barne)
- Deskargatutako aplikazioak.

Berrezarri aurretik

1. Egin zure datuen babeskopia bat.

   Telefonoak funtzionatzen badu eta desblokeatu badezakezu:

   - Argazkiak eta bideoak Googleren Fotos liburutegian automatikoki gordetzen ez badituzu, egin horien babeskopia bat orain edo kopiatu itzazu ordenagailu batean.
   - Egin zure fitxategien eta karpeten babeskopia bat Driven.
   - Ziurtatu kontu batekin sinkronizatzen dituzula kontaktuetan edo egutegian egindako aldaketak.

2. Ziurtatu segurtasun-informazioa duzula:

   - Googleko kontuko erabiltzaile-izena telefonoan. (**Ezarpenak > Pasahitzak eta kontuak**)
   - Googleko kontu horretarako pasahitza. Pasahitza ahaztu baduzu, berrezartzeko aukera duzu. Itxaron 24 ordu telefonoa berrezartzeko, pasahitza berrezarri baduzu.
   - Pantaila-blokeoa ezartzen baduzu, ziurtatu badakizula PINa, eredua edo pasahitza.

   Berrezarri ostean datuak leheneratzeko, segurtasun-informazioa idatzi beharko duzu. Hala, egiaztatzen da zuk edo fidagarria den norbaitek berrezarri duela, eta beste batzuek zure telefonoa baimenik gabe erabiltzea saihesten laguntzen du.

3. Telefonoa norbaiti eman behar badiozu, desgaitu fabrikako datuak berrezartzeko aukera:

   a. Ezabatu pantaila-blokeoa.

   b. Ezabatu Googleko kontuak telefonotik.

   Fabrikako datuak berrezartzea segurtasun-neurri bat da, eta datuak babesten ditu telefonoa galduz edo lapurtuz gero. Jabearen kontuarekin hasi behar da saioa berrezarri ahal izateko. Berrezarri aurretik zure kontua eta pantaila-blokeoa ezabatzen badituzu, telefonoa ematen diozun pertsonak bere informazioarekin konfiguratu ahal izango du.

Ezarpenak ataletik telefonoa berrezartzea

Datu guztiak ezabatzeko eta telefonoa berrezartzeko:

1. Ireki **Ezarpenak** > **Sistema**.
2. Sakatu **Berrezartzeko aukerak** > **Ezabatu datu guztiak (berrezarri jatorrizkoak)**

Telefonoa berrezartzea Ezarpenak ireki ezin denean

Ezarpenak ezin baduzu ireki, egin kanpoko berrezartze bat.

1. Kargatu bateria % 30 edo gehiago.
2. Itzali telefonoa.
3. Luze sakatu bolumena jaisteko botoia eta pizteko botoia aldi berean, telefonoa piztu arte.
4. Sakatu bolumena jaisteko botoia Recovery mode ikusi arte.
5. Sakatu pizteko botoia berreskuratze moduan berrabiarazteko.
6. Harridura-marka bat duen Android robot bat ikusiz gero, luze sakatu pizteko botoia, eta, sakatuta duzun bitartean, sakatu eta askatu bolumena igotzeko botoia.
7. Erabili bolumen-botoiak **Wipe data/factory reset** aukerara joateko, eta, ondoren, sakatu pizteko botoia hura hautatzeko.
8. Erabili bolumen-botoiak **Factory data reset** aukerara joateko, eta, ondoren, sakatu pizteko botoia hura hautatzeko.

   Utzi hainbat segundo berrezartzea amaitu arte.
9. Erabili bolumen-botoiak **Reboot system now** aukerara joateko, eta, ondoren, sakatu pizteko botoia hura hautatzeko.

   Utzi hainbat minutu berrezartzea amaitu arte. Telefonoak ez badu erantzuten, luze sakatu pizteko tekla, pantaila itzali eta telefonoa berrabiarazi arte.
10. Hirugarrenen aplikazioren bat arazoak eragiten ari den susmoa duzulako telefonoa berrezarri nahi baduzu, ziurtatu ez dituzula aplikazio guztiak kopiatzen telefonoa berriro konfiguratzean. Berrezarri aplikazioak banan-banan, denboraldi batez proba eginda. Telefonoan arazorik ez badago, instalatu hurrengo aplikazioa eta probatu berriro.

Laguntza gehiago jasotzea

Arazoa	Non lortu laguntza
Fakturazio-arazoak edo sare mugikorreko arazoak	Jarri harremanetan zure operadorearekin.
Aplikazio bat erabiltzen ikastea	Ireki aplikazioa eta sakatu ⋮ edo ☰ > **Laguntza**

Arazoak telefonoarekin	Joan mobilesupport.lenovo.com webgunera irtenbideak, erabiltzaileen foroak eta zuzeneko harremanetarako aukera aurkitzeko.

Iruzkinak Motorolari bidaltzea

Telefonoari buruzko iruzkinak edo iradokizunak badituzu, entzun egin nahi dizugu. Ireki **Ezarpenak > Rating & feedback**.

Iruzkinak maiz bidaltzeko, aurreko pantailako pantaila-argazkia barne, ireki ezarpen bizkorrak eta sakatu Share feedback. (Nahi baduzu, gehitu aukera hori ezarpen bizkorrei).

Motorolaren aplikazio bati buruzko iruzkinak bidaltzeko, aplikazioan, sakatu edo edo > **Feedback**